

# gakoak

## Alkoholaren kulturatik at ere bizitza dago

34

“Gaztelania eta frantsesa  
armen bidez inposatu  
zituzten Euskal Herrian”

IÑIGO URRUTIA

95

Azpiegitura handien  
mehatxupean

IBILBIDEAK

101

‘Pedro Ruiz de  
Eguino hil da’

CIRA CRESPO ETA  
SHU OTEROREN IPUINA



Erabiliz gero,  
ate berriak  
zabalduko dituzu

**ZER DA?**

**E \_ S K A \_ \_ \_**



**Bilbao**

## Argazkia nork egiten duen

**I**rudi hau ez du pertsona batek egin”, irakurri daiteke ARGIAren aurtengo ale batean. Adimen artifizialak egindakoa zen, alegia, multinazionalen esku dagoen tresna batek eginga. Izatez, argazkigintza argia baliatuta irudi errealak erreproduzitzeko prozedura da, baina argazki eta irudien gaindosia dugun honetan, zaila da bereiztea zer den erreala eta zer ez. Nor dagoen fotografia baten atzean, eta zer utzi duten enkoadretik kanpo. Eta, batez ere, zergatik jarri duten fokua han; testuingururik gabeko argazki bat ez baita irudi lauso bat besterik.

Kazetaritzak, fotokazetaritzak bezala, garbia eta gardena izan behar du. Herritarrei informazio osoa eman behar die, errealtateko argi guztia harrapatu eta edonork ulertzeko gisan irudikatu. Zentsuraren eta autozentsuraren atzaparretatik ihes egin, eta agintari eta boteretsuek itzalean ezkutatu nahi dutena argitaratu. Klaru ikusi dugu multinazionalen euren baliabide guztiak jartzen dituztela lurrak eta bizitzak suntsitzen ari diren tokietako argazkiak manipulatzeko. Baina kamera hara bideratzea besterik ez dute lortzen horrela.

Gero eta ohikoagoa da kapitalismoaren zuriak edonon ikustea, berdez, gorritz, morez, arrosaz, margotuta, eta begirada inoiz baino zorrotzagoa izatea dagokigu. Berresten dugu

kazetaritza independentea ezinbestekoa dela, eta kazetariok dagokigu ikerketa-kazetaritzaren bidez herritarrentzat garrantzitsuak diren auzietan zoom egitea.

Datozen orriotan fotografia ugari bildu ditugu, erreportaje, elkarrizketa eta bestelako formatu papereratuak. Itotzen gaituen sistema kapitalista heteropatriarkal honetatik soa altxa, eta alternatibak eraiki dituztenen ahotsak eta hausnarketak ekarri ditugu. Agortzen ari den lur honetan nola bizi, kontsumismotik eta gehiegikeriatik kanpo? Eztabaida deserosotarako abiapuntu izan daitezke batzuk, aukera berriak ezagutzeko, besteak.

Pantailen eta estimulu zurrumbilatik atera eta udan gozatzeko alea duzue hau. Udako argiak itsutu ez zaitzaten, eta garai ilunek begiak irekita harrapatu zaitzaten, kontraesanak identifikatzeko, bederen.

Ez, argazkigintza ez da neutrala, eta are gutxiago fotokazetaritza. Esku artean duzun ale berezi hau ere neutraltasunetik urrun dago. Gehiago du politikotik, pil-pilean dauden gaiak kamera desberdinen bisoreetatik begiratzetik. Topatuko duzuna ARGIAk egindako une honen fotografia bat da, gure filtroa, objektiboa, kolorea eta fokua dituen. Udan behin eta berriz eskuetan hartzeko argazki horietako bat. Pertsonen eginga, txikitik eragiteko asmoz. ●

# gakoak

## Aktualitatea

16 / Sorionekuuuuu!

Adur Larrea

17 / Botagurea

Uxue Apaolaza Larrea

18-22 / Motzean

Erredakzioa

## Sakonean

24 / Txina 2023

**Txikiok handia  
uler dezakegu,  
asmoz eta jakitez**

Mikel Aramendi

44 / Feminismoa

**Maitasun-harremanen  
piramidea hankaz gora  
jartzeko beharra**

Jenofa Berhokoirigoin

52 / Alkohola

**Oharkabean pasatzen  
den droga**

Olaia. L. Garaialde

61 / Bidaiak

**Nola ibili mundua  
desorekatu gabe?**

Estitxu Eizagirre Kerejeta

## Elkarrizketak

34 / Iñigo Urrutia

**“Gaztelania eta frantsesa  
armen bidez inposatu zituzten  
Euskal Herrian”**

Lander Arbelaitz Mitxelena

76 / Alfredo Ollero Ojeda

**“Ibaiak haien ibilguetan gero eta  
sakonago hondoratzen ari dira”**

Xabier Letona Biteri

## Kultur gomendioak

88 / Dena eta gehiago jan  
(edo hartu atsedena)

Gorka Peñagarikano

90 / Liburuak

92 / Ikus-entzunezkoak

94 / Diskoak

## Ibilbide geologikoak

95 / Sasien gainetik

Urko Apaolaza Avila / Jon Torner Zabala

## Ipuina

101 / Pedro Ruiz de Eguino hil da  
–Nerium Oleander–

Testua: Cira Crespo

Ilustrazioak: Shu Otero



AZALEKO ILUSTRAZIOA: PAULA ESTÉVEZ

### AKTUALITATEAREN GAKOAK 2023

INPRIMAKETA: ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA DISEINUA: MAITANE GARTZIANDIA AZALA: PAULA ESTÉVEZ

KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L., 2023 ISBN: 978-84-09-51925-5 LEGE GORDAILUA: LG D 00586-2023



DOAN ETA LIBRE: ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



**6** *Librearen ederra*



**44** *Feminismoa*

NANTÉNÉ TRAORÉ



**61** *Josu Iztueta*

DANI BLANCO



SHU OTERO



ALFONS RODRÍGUEZ

**68** *Urtze aroa. Klima larrialdi globala iruditán.*

**101** *Ipuina*

# Librearen ederra

Wikipedian, munduko entziklopedia libre eta kolaboratiboan, erabiltzen diren lizentzia libreko argazkiek bilduma erraldoia osatzen dute. 2006an hasi ziren Wikipediara igotako argazkirik onenak aukeratzen. 2022koak hautatu berri dituzte bozketa bidez eta horietako batzuk ekarri nahi izan ditugu, Creative Commonsen filosofiaren indarra eta beharra irudi libreen bitartez ere azpimarratzeko.

 AXIER LOPEZ

 PRASAN SHRESTHA / CC BY-SA 4.0

Aurtengo irabazlea. Ubarroi handia (*Phalacrocorax carbo*), koartzatxo txiki (*Egretta garzetta*) eta ipar-ahatea (*Mareca strepera*) Taudaha lakuan, Katmandutik gertu, Nepalen.



 WAVRIK / CC BY-SA 4.0

Etiopiako Banna leinuko haurrak, gorputz-pintura tradizionalarekin, zurezko trikimakoeekin jolasten.







 STEPHAN SPRINZ / CC BY 4.0

Marigorringo zazpittita  
(*Coccinella septempunctata*),  
Alemaniako Viernheimer  
Waldheide kontserbazio  
bereziko eremuan.





© NASA, ESA ETA CSA / DOMEINU PUBLIKOA

Labar kosmikoak Gila nebulosan.  
James Webb espazio-teleskopioak  
hartutako lehen argazkietako bat.






© MASSIMO BRIZZI / CC BY-SA 4.0

Ascaris ar baten  
zeharkako ebakidura  
baten irudi  
mikroskopikoa;  
nematodo  
parasito bat.









# Botagurea

 UXUE APAOLAZA LARREA



**A**ngulak probatu dituzte-netakoa naiz: gulak oinarri hartu behar izan ditut noizbait zer arraio diren azaltzeko. Mariskoa bizi-rik egosi dugu: txikitan, arrandegiko izotz artean, ikuskizun hipnotikoa, erdi beldurgarriak ziren itsaski bizi-dunen mugimenduak. Foiea erruz jan dugu, mi cuit edo fresko, piku marmeladaz. Hilabete baino gutxiagoko oilaskotxo erre indibidualak gozatu ditugu. Eta euskara klaseetan, *txuria* eta *txikia* esan ondoren, *jakia* eta *xamurra* esan diet arkumea asma zezaten. “Jakia?” harritu da ikasle bat. “Jaki moduan definituko zenuke arkume bat?”. Nire “nola bestela?” aurpegia, beharbada, belaunaldi arteko amildegi bat zen.

Nola ez, lehen erreakzioa “gure garaian” bat izan zen. Gure garaiko ekologismoa. *Vía campesina* ekologismoa. Produkzio sistema osoa auzitan jartzen zuena, behetik gora, landatik hirira, desazkundera bezalako kontzeptuak eman zituena, Jose Bove traktore batez McDonald’s bat birrintzen, mundu osoko zapalduak biltzeko gai zen mugimendu bat, ezkerre globalizatzekeko modu bat. Elikadura burujabetza azaldu zen hauteskunde programetan, eta, nola ez, betiko eroen beste zorakeria bat irudi zezan erridikulu egin zuten. Zuena Bambi ekologismoa da, Igeldoko baserritar baten aurka oldartzen zarete behiak jezteagatik, baina ez duzue arazorik hiri ez-jasangarrietan bizitzeko, hegazkina eten-gabe hartzeko. Ekologismoa dieta bihurtu duzue.

Uda hasi orduko bizi ditugu jada lehen petardo egunak, eta ikusi ditugu dardaraka gure bizikideak. Eta sokamuturra programa ofizialetan da oraindik, gure belaunaldiaren marka lotsagarri, gizontasunaren ikur: saldoan askoz ahulagoa den norbaiten gainean indartsu, barregarri, boteretsu... Eta gazteenek horrorea seinalatu dutenean, tradizioa eta giro on eta jatorra defendatzeko plataformak sortu dira, eta “iritzi guztiak” kontuan hartu behar direnez, tortura egunak murriztu ditugu. Bejondeigula. Hernanin agindu digute enuntziatuak legera egokituko dituztela datozen urteetan gure haurrek animalien sufrimenduari gogor izan daitezten hastapen klaseekin jarraitu ahal izateko (lege berriren batek oztopatu du aurrean), zezen txikien eta pottoken zera beldurgarri batean. Asto karrerak ere ikusi ahal izango ditugu. Ea zer gehiago.

Berdin zait “gure garaian”, barre egin diezaiokegu begetarianoari, barre bigantxari, zezenari, astoari... egiten dioguna gaizki dagoela esaten digunari. Kontuz ibili beharko dugu aurtengo udan ere, guztiz idiotak ez bagara, gazteenak esaten ari zaizkiguna nolabait garunera filtratu bazaigu, irailean ispilura begiratu eta gai izan baikaitezke, azkenean, geure aurpegi ekologistaren lekuan, barruan daraman indarkeria barretzeko gladiadoreak hondarretaraten dituen psikopata ikusteko. Eta ez zaigu gustatuko. Niri bada denbora bat sokamuturra urrunean antzeman, eta botakagurea jartzen zaidala. ●

LED PANTAILA ERRALDOIAK  
MULTIKAMERA EKITALDIAK  
BIDEGINTZA  
STREAMINGNA  
3D ANIMAZIOA  
AIREKO IRUDIAK  
BIDEO PROIEKTOREAK

info@pixel.eus

# Iraingarria da istorio bateko pertsonaia “Iodia” dela esatea?

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

**C**harlie eta txokolate-lantegia (jatorrizko izenburua: *Charlie and the Chocolate Factory*) liburuko eta ondoren zinemara eraman-dako Augustus Gloop pertsonaia ez da “Iodia” izango; “oso handia” dela irakurriko da aurrerantzean. Roald Dahl idazle galestarrak lehen adiera hori erabili bazuen ere 1964an, 2023tik aurrera argitaratuko diren edizioek bestelako adjektibo eta deskribapenak izango dituzte, “hizkera iraingarria saihestu” eta “askotariko sentsibilitateak” aintzat hartzeko, Puffin argitaletxeak eta Roald Dahl Story Company-k jakinarazi dutenez.

*Charlie eta txokolate-lantegia*-n aurkezten diren Ooma Loompa-k berriz, “pertsona txikiak” izango dira eta ez “gizon txikiak”. Generoa ez bereiztearena ere aplikatuko da *James eta Melokotoi Erraldoia* (*James and the Giant Peach*) ipuinean: “hodei-gizonak” aurrerantzean “hodei-pertsonak” izango dira. Oso eza-guna den beste pertsonaia bat da *Matilda*-ko Trunchbull andrea. Pelikula ikusita erraz deskriba eta lotu daiteke handia, zatarra eta zakarra gisako hitzekin; aldiz, liburuan, “egundoko andrea” moduko zerbait esango da edizio berrietan. Hau da, “emakume” adieratik aldenduko da kategoria biologikoarekin ez erlazionatzeko. Matilda pertsonaiak, gainera, ez

du gehiago Rudyard Kipling autorearen *Oihaneko Liburua* edo *The Jungle Book* irakurriko Dahlen berezko kontakizunean jasotzen zen bezala, arrazakeria leporatzen baitzaio Kiplingi 1894an idatzitako eleberriagatik. Horren orde, Jane Austen-en *Zentzua eta Sentiberatasuna* (*Sense and Sensibility*) liburua izango du mesanotxean. Detailtxoa bada ere, garrantzia eman diote.

Badira adibide gehiago ere, ondorengo bi hauek esaterako. *Ergelak* (*The Twists*) eleberriko Twist andrea ez da gehiago “itsusia” izango, “izugarria” baizik; eta *Sorginak* edo *The Witches* liburuan berriz, esaldi bat gehituko da sorginek ileordea daramatela nolabait ere justifikatzeko. Hauxe izango da justifikazioa: “Arrazoi asko egon daitezke emakumeek ileordea eramatearen atzean, baina ez dago ezer txarrik horretan”.

## BESTE ADIBIDE BAT: LIFE OF BRIAN

Polemika eragin du eszena baten ezabazteak eta hautsak harrotu asmoz altxatu dira ikuspegi tradizionalako prentsa eta hainbat hedabide, gidoia antzerkira eramango denean enegarrenez.

Anfiteatroan eserita dagoen kuadrillaren solasaldia da eszen ospetsua. Stan pertsonaiak, ordua arte gizonen gisa iden-

tifikatu eta manifestatu denak, lagunarteari eskatuko dio Loretta dei diezaioten aurrerantzean. Haurrak izan nahi dituela esaten du, eta kide batek, irri giroan, honela dio: “Non heziko duzu haurra? Kutxa batean?”. Barre egiten dute besteek.

Aipaturiko eszena erreproduzitzeari planto egin diote antzerkiko aktoreek, eta harriduraz hartu du filmaren egileetako batek. “Inoiz ez da kexarik egon eta orain, 40 urteren ondoren, jendea irainduko omen du. Zer egin behar dugu?”, esan du John Cleeseek. ●



errenteria.eus

Errenteria  
**ARN**  
kreatiboa  
Izan herriaren eraldaketaren parte



 **HERRI BIZIA**  
etorkizunaren bidean

 **ERRETERIA**  
UDALA

# Garun-paralisedun bi ikasleren borroka

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**P**remia bereziak izan arren, behar izan duten laguntzarik ez dute jaso artikulu honetako bi protagonistek. Biek garun-paralisia dute eta borrokan eman dute pasa den ikasturtea, euren eskubideen alde borrokan. ARGIAN kontatu ditugu bi kasuak.

Noelia Da Costa Reviriego gasteiztarak garun-paralisia du eta unibertsitatean laguntzaile bat behar du komunera joan, berokia erantzi edota ordenagailua mahaian jartzeko. EHUK, ordea, ukatu egin dio laguntzailea, egiten ari den graduondoko masterra ofiziala ez dela argudiatuta. Aldiz, masterra ofiziala dela dio berau ematen duen fakultateak. Bitartean, Da Costaren amak egunero eta ikasturte osoan lau ordu egin behar izan ditu fakultateko pasilloan, "laguntza eskatuz noiz deituko diodan zain".

Egoera bidegabea EHUKo Gizarte Kontseilura iritsi zen lehenik, Arartekora ondoren, eta Eusko Legebiltzarrean ere azaldu zuen Da Costak, jasaten ari zena. Arartekoak arrazoia eman zion: laguntzailea jarri beharko lioke EHUK. Eta azkenean, Arartekoaren ebazpena onartu du EHUK, hurrengo ikasturteko aurre-matrikula betetzeko epearen aurretik araudia aldatuko dutela adierazi dute. "Niretzat berandu da jada, laguntzailerik gabe amaitu dut ikasturtea, baina atzetik datorren jendearentzat iritsiko bada, pozten naiz".



Ezkerrean, Noelia Da Costa. Eskuinean, Usurbilen Lanbide Heziketa egiten ari den ikaslea.

Bigarren kasuak Usurbilera garamatza. Garun-paralisia eta %87ko desgaitasun motorrarekin, gazte batek ikastordu guztietan laguntzailea izan du orain arteko ibilbide akademikoan, baina Lanbide Heziketara igaro denean, jardunaldi erdian baino ez diote jarri laguntzailea. Laguntzailerik gabe dagoen orduetan ezinezkoa zaio aurrera egitea, eta ikastetxeak berak lanaldi osoko laguntzailea eskatu du, baina ukatu egin dio Hezkuntza Sailak. Egoera honengatik ikaslea terapia psikologikoan dago. "Utzi dioten alternatiba bakarra ikasketak bertan behera uztea da, bertan behera uztea formatzeko, garatzeko eta enplegua eta etorkizun oparoa izateko aukera", kontatu zion ARGIAri ikaslearen amak.

Kasu hau ere Arartekora iritsi zen ekaina bukaeran. Azken finean, gutxienez bi errealitate azaleratu dira albiste hauen atzean: batetik, "inklusioa" hitza denen ahotan egon arren bide asko dagoela oraindik egiteko arlo horretan; bestetik, sarri luzea eta oso neketsua den borrokan aurrera egiteko prest daudenek agian lortuko dutela dagozkien baliabideak jasotzea, baina familia askok ez duela gaitasunik edo baliabiderik borroka hori aurrera eramateko. "Zenbat familiak etsiko zuen bidean? Zer hausnartua eman beharko liguke, borroka eta zarata egiten duenak beharbada lortuko duelako dago-kiona, baina gainerakoek zer? Tristeia da familiak eskean aritu behar izatea, esku-bide bat lortzeko", salatu zuen ARGIAN Usurbilgo alkateak. ●

## Behar dugun HEZKUNTZA:

- # Euskal eskola publikoa indartu.
- # Ez itxi gelak publikoan.
- # Hezkuntza Legea publikoaren alde.
- # Diru publikoa publikoarentzat: inbertitu BPGaren % 6.

**ZERBITZU PUBLIKOAK GARATU**



# Frankismoak erreprimitutako LGTBIQ+ kolektiboko kideak gogoan Bidankozen

 URKO APAOLAZA AVILA

**F**rankismoaren esklaboei urtero Bidankozen egin ohi zaien omenaldian, protagonismo berezia izan dute aurten LGTBIQ+ kolektiboko kideek. 1936ko gerraoste luzean, asko izan ziren euren sexu-nortasunetik atxilotu eta errepremitutako pertsonak. Hainbatek esklabo lanak egiten amaitu zuen, eta hori gogoratu zuten Erronkari eta Zaraitzu ibarrak batzen dituen Igariko gainean, Memoriaren Bideak e-k ekainaren 17an egin ekitaldian.

Igari eta Bidankoze arteko errepede hori frankismoko esklaboeek eraiki zuten 1939 eta 1941. urteen artean. Historialarien esanetan gutxienez 2.400 lagun aritu ziren. Gaur egun, esklaboeek erabiltzen zuten barrakoien erreproduktzioa dago Igariko gainean, eta abuztuaren 1, 2 eta 22rako bisita gidatuak antolatuta dituzte.

Fernando Mendiola eta Edurne Beaumont ikerlariak sakonean aztertu zuten Igariko kasua, Txalapartarekin 2006an argitaraturiko *Esclavos del franquismo en el Pirineo* ("Frankismoaren esklaboak Pirinioetan") liburuan. Diotenez, kondizioak hain ziren latzak preso askok –"ezinezkoa da jakitea zenbatek"– ihes egitea erabakitzen zuela. Zaintzan ari ziren guardiek horietako batzuk hil egin zituztela ihesaldian.

Langile batailoietan disidente politikoak eta erregimenak "arriskutsutzat"



FOKU / JAGOBA MANTEROLA

Igariko gainean frankismoaren esklaboeek erabilitako barrakoia berreskuratzeko auzolandegia, 2018an.

ikusten zituenak zeuden; eta horien artean, noski, nazional-katolizismoaren harreman eredu patriarkalarekin bat egiten ez zuten pertsonak ere bazeuden.

## TEFIAKO NEKAZAL KOLONIA

Hainbestekoa zen frankismoak egin nahi zuen garbiketa soziala, hainbat kolektiborentzat berezko kontzentrazio esparruak sortu zituela. Steilas sindikatuak gogorarazi duen moduan, LGTBIQ+-eko kide ugari bortxazko lanak eginarazi zizkieten Fuerteventurako Tefiako gu-

nean; nekazal kolonia moduko bat, egiaz kartzela makabro bihurtu zena.

Espainiako zuzenbideko *Vagos y maleantes* ("Alperrak eta gaiztaginak") legean oinarriturik 1954 inguruan sortua, Tefiako esparru hori basamortu baten erdian zegoen, aerodromo zahar batean, eta Gasteizkoa omen zen karmeldar-ohi batek zuzendu zuen lehen urteetan esku gogorrez, jipoiak, gosea, umiliazioa eta erreprezio sexuala ezarrita. 1966an itxi zuten, eta egun gazteentzako aterpetxe bat dago bertan. ●

# BERTAKOIA BERTATIK



ANOETAKO  
UDALA

**BASERRI BIZIAK  
DENDA BIZIAK  
HIZKUNTZA BIZIAK  
HERRI BIZIAK**

# Suizidioa eta buru osasuna nerabeen artean

 ERREDAKZIOA


Espainiako Estatuko nerabeen **%4,9** bere buruaz beste egiten saiatu dela argitu du ikerketa berri batek. Beste era batera esanda, **20tik 1.**

14 eta 18 urte bitarteko gazteen **%12**k osasun mental txarra izateko arriskuarekin bateragarriak diren puntuazioak aurkeztu dituzte.

Emakumeek gizonek baino arrisku handiagoa dute osasun mentaleko arazoak izateko, lehenak **%16,6** eta bigarrenak **%6,3**.

Antsietateari erreparatuta, **%6**k sintoma larriak ditu.

Depresioaren esparruan, nerabeen **%16**k depresio-sintomatologia larria du.



SHU OTERO

**ITURRIA:** Espainiako Psikologia Kontseilu Nagusiak eta Psikofundazioak egindako ikerketa. Haur eta gazteen osasun mentalari eta eskola-testuinguruetako esku-hartze psikologikoen eraginkortasunari buruz egin den ikerketa handiena da.



**EUSKAL HERRIA**  
esnea

*Dastatu betiko esnearen zaporea*



www.euskalherriaesnea.com · arreta@euskalherriaesnea.com · 618 829 964

# Sinsorga: Bilboko Alde Zaharreko kulturgune feminista berria

 LEIRE ARTOLA ARIN

**K**ultura eta pentsamendu feminista sustatzeko espazioa ireki dute Irantzu Varela eta Andrea Momoitio kazetari eta aktibistek. Lau solairuko eraikina alokatu dute zortzi urterako, lehen eztei soinekoen denda zena, ia 300 laguntzailerren diru ekarpenekin. Ekainaren amaieratik aurrera “forma guztietako” jarduera feministak antolatzen ari dira. Jateko eta edateko taberna ere badauka, baita denda bat ere.

“Gu bezalakoak direnentzako babeslekua da, bollera eta feminista guztientzako gunea”, azaldu zuten irekieran, eta ohartarazi ez dutela tokirik izango “transfoboek eta faxistek”. Jakinarazi dute *Sinsorgak* euskarazko jatorria dela: *zenzurgue* edo zentzurik gabekoa, formaltasun gutxikoa definitzeko erabiltzen den berba.

Sinsorgak dira, hain zuzen, espazio berri honen zutarriak. Bazkide horiek laguntza ekonomikoaren truke Sinsorga erabiltzen dute euren jarduera pertsonal, politiko edo profesioaletarako; horretarako atondu dute ganbara, sinsorgen espazio pribatua izan dadin. Jendea bazkide egitera animatu dute, eta nabarmendu



GESSAMI FORNER / EL SALTO

dute kulturgune feminista hau irekitzea lortu dutela bazkide guztien sustengu ekonomikoari esker, besteak beste.

Eraikinaren zutabeak sendoak eta zurrunak dira, baina, itxuraz, kapitel korintiarrek bezain dotore eta ponposoa da. Sarreran daude neoizko argiak, brillantina, kolorea, eta lehengo dendaren parte ziren bost ezkontza soineko, bertako bost diseinatzailek transformatuta.

Beheko solairuan “garittoa” dago: edaria, eta Sustrai kooperatibak prestatzen duen janari begetariano eta beganoa. Eskailerak igota, lehen solairuan denda dago, baina ez edonolako: “Irizpide

feministen arabera diseinatutako eta ekoiztutako produktuak daude, propioak eta beste sortzaile batzuenak”.

“Loreen pisua” izena du bigarren solairuak, eta Varela eta Momoitioek errepikatu dute espazio horretan ongi etorriak direla liburuen aurkezpenak, kultur jarduerak, erakusketak eta adierazpen kultural eta artistiko guztiak.

## OBRA EMAKUMEEN ESKU

Proiektuaren hasieran erabaki zuten eraikinaren obra osoa emakumeek egingo zutela, eraikuntza sektorean euren presentzia aldarrikatzeko asmoz. Bada, onartu

dute uste baino zailagoa izan dela, eta berretsi egin dutela emakumeek obretan jasaten duten trataera baztertzailer dela.

Hemezortzi hilabete luzatu den atontze prozesua dokumental batean bildu dute, Al Borde Films ekoiztetxearekin. Eraikinaren atek jada ireki dituzte, baina 2024an bi ikus-entzunezko estreinatuko dituzte aurretik egin duten lan eta gogoetak partekatzeko. Sinsorgaren sortzaileek ilusioz diote askotan amestu duten tokia dela; bada, orain, zentzumen guztien bidez ezagutu daiteke Bilboko Alde Zaharrean. ●



**Mondragon  
Unibertsitatea**



# LEARNING FROM REALITY



## BERRITZAILEA

Mundu osora zabaldu den hezkuntza eredu propio eta berritzailea eraiki duen unibertsitatea.



## PRAKTIKOA

Enpresari, errealitateari, atxikitako unibertsitatea. Gurean, <learning by doing> ez da eslogana, geure DNAn txertatu dugu, eta ondorioz, formazio dualean liderrak gara.



## HURBILA

Lankidetzan aritu, batera sortu, elkarrekin jardun eta konfiantza giroan prestatzen diren pertsonak dira unibertsitateko protagonista.



## KONPROMETITUA

Herrialde-proiektuarekin konprometituriko jende ekintzailea eta langilea ardatz duen kultura.

TXINA 2023

# Txikiok handia uler dezakegu, asmoz eta jakitez

 MIKEL ARAMENDI



## **XI JINPING**

2021ean 100 urte bete zituen  
Alderdi Komunistak, eta ekitaldian  
presidentek etorkizunera  
begiratu zuen, 2121era barne.



Zehazten gaitza den 2023ko egunen batean gogora ekarri beharrekoa izango litzateke; baina, itxura guztien arabera, oharkabean geratuko da. Baina gogoan izanda edo izan gabe, aurtengo urriaren 1ean 74 urte beteko ditu Txinako Alderdi Komunistak Herri Errepublikaren erabateko agintean, herrialde (ia-ia) osoan; eta ezbairik gabe gaindituko ditu hartara Sobiet Batasuneko Alderdi Komunistak, luzeen jota ere, gobernuan eman zituen urteak. Bide batez, agintean urte gehien egin dituen alderdi komunistaren marka onduko du.

**T**xikikeria ote da? Bai eta ez. Urteurrenak, egun eta urte bakoitzak ditu bereak. Baina “komunismoa” (edo “sozialismo erreala”, edo...) egitate politiko behin-behinekoa eta iragankorra dela eta “gauzak bere onera” etorri arteko aldi anomaloetan ager litekeena baina iraunkortasunik gabea dela ziur daudenei zer pentsatua eman behar lieke. Txinako Alderdi Komunistak behintzat ez duela-ko etsitzeko tankerarik: haren gogoeta eta egitasmoak 2035ean jartzen ari dira epe motza, 2049an ertaina, eta “bigarren mendeurrenean”, hau da, 2121ean zerumuga estrategikoa.

**'ZHŌNGGUÓ TÈSÈ'**

Autopertzepzio horren laburpenik argigarrienak izan daitezke 2021ean, Alderdiaren sorreraren ehungarren urteurreneko ekitaldi politiko nagusian, Xi Jinpingen hitzaldiaren hasierako esaldiak:

“Nazio handia da nazio txinatarra. 5.000 urte baino gehiagoko historia du, eta ekarpen ezabaezinak egin ditu Txinako giza zibilizazioaren aurrerabidean.

1840ko Opio Gerraren ondoren, ordea, gizarte erdi-kolonial eta erdi-feudal bihurtu zen Txina pixkanaka, eta inoiz baino triskantza latzagoak jasan zituen. Umiliazio makurra pairatu zuen herriak, oinaze latza jasan zuen jendeak, eta txinatar zibilizazioa ilunpetan murgildu zen. Orduetik, indarberritze nazionala Txinako jendearen eta nazio txinatarren ametsik handiena izan da”.

“Borroka adoretua egin zuen Txinako jendeak nazioa arriskutik salbatzeko. Abertzale zintzoek nazioa batu nahi zuten, eta bizkitartean, bata bestearen atzetik Taiping Zeruko Erreinuaren Mugimendua, 1898ko Erreforma Mugimendua, Yihetuan [“Boxer”] Mugimendua eta 1911ko Iraultza altxatu ziren, eta hainbat plan landu ziren biziraupen nazionala bermatzeko; baina guztiek porrot egin zuten azkenean. Ideia berrien premia larria zuen Txinak nazioa salbatuko zuen mugimendua gidatzeko, eta erakunde berri bat behar zuen indar iraultzaileak biltzeko”.

“1917ko urriko Errusiako iraultzaren danbatekoekin marxismo-leninismoa iritsi zen Txinara. Orduan sortu zen,

1921ean, Txinako Alderdi Komunista, Txinako jendea eta nazio txinatarra susperraldi handia bizitzen ari zirenean eta marxismo-leninismoa Txinako langile-mugimenduekin estuki integratzen ari zenean. Txinan alderdi komunista bat sortzea aro-zedarria ezarri zuen gertaera izan zen, garai modernoetan Txinaren historiaren norabidea sakon aldarazi zuena, Txinako jendearen eta nazioaren etorkizuna eraldatu zuena, eta munduaren garabidearen paisaia aldatu zuena”.

Jaulkitako hitz bakoitza (eta absentzia bakoitza) neurtua izan ohi duen testuinguru batean, Alderdiaren aurrekariak eta funtzio historikoa horrela, nazio-ikuskerari hertsiki (norbaitek esango luke sinozentrismo) horretan, laburbiltzea ez da, haatik, berria ez us-tekabekoa: azkenaldiko dokumentu nagusietan berresaten da ia hitzez hitz, luzexeko edo laburrago. Urrutiago joan gabe, ehungarren urtemuga horren beraren harira XIX. Komite Zentralaren VI. Osoko Bilkurak onetsi zuen “Alderdiak ehun urteko borrokan erdietsi dituen arrakasta funtsezkoen eta ikaskizun historikoen inguruko ebazpen” luzean; garaian garaiko zuzendaritzak Alderdiaren historiari buruz 1945ean eta 1981ean onetsi zituen ebazpenen parean ipini dute dokumentu hori, baina gutxi esatea da: aurrekariak ez bezalako eduki programatikoa ere badarama oraingoak “tasun txinatarreko sozialismoa” zertan datzan zehazteko edo. Eta 20. Kongresuko dokumentu nagusiek eta etengabe argitara ematen ari diren idazki sektorialekin berretsi besterik ez dute egiten haren edukia.

Zer geratzen den marxismotik eta leninismotik XXI. mendeko *Zhōngguó tèsè*, “tasun txinatarreko sozialismo” horretan? Tresna filosofiko batzuk;



batik bat materialismo historikoa (dialektikak, marxismoa bera baino askoz aspaldiagoko erroak ditu Txinan eta, beraz, ezin zaio hari egotzi bere horretan). Baina, gero eta nabariago, bertako eskola filosofiko klasikoen (batik bat, bost nagusien: *rujia, fajia, daoja, moja, yingyangja*; baina badira gehiago ere) etorkiko zertzeladekin ehunduta, haien arteko nahasketa berritzaile samarra dirudiena eratuta.

Hala, sistemaren azken xedea, agian, Konfuziok hain kuttuna zuen “harmoniatik” gertuago legoke Mendebaldeko marxismoaren “klaserik gabeko gizartetik” eta “gizaki berritik” baino, eten-gabeko “autoerreforma” dela medio. Hartarako bidea, bestalde, *fajia* edo legalismoaren enborretik letozkeen “aginte gorenarekiko atxikimendua”, “kontuak eman beharra”, “ustelkeriaren pertsekuzio gupidagabea” eta horrelakoetan legoke, garapen ekonomikoko etapa jakin batzuk gainditzean baino gehiago. Seguruenera, Mozik ez luke txartzat joko “prozesu osoko demokrazia”, edo egungo Txinaren kanpo-politika; eta gogotik txalotuko luke pobrezia desagerrarazteko kanpaina edo “jendearen ongizatea” lehenestea. Eta esan gabe doa, sistemaren ekologismoak egungo zientzia eta pentsamenduarekin adinako zerikusia duela aspaldiko daoismoaren eraginekin.

Sistema osoaren bizkarrezurra den Alderdiaren beraren izaeran ere leninismoaren kanonak hari esleitzen zion abangoardia tasuna gero eta eztabaidagarriagoa litzateke, biztanleria osoaren %6,7 -eta helduen %10 inguru- berezten duen egitura batean, non lurraldeka eta jatorriaren, lanbidearen, dirubideen... arabera ebazten baitira aurretiaz kidegoen zenbatekoak, betiere Indar Ar-



#### **XI JINPING ETA JOE BIDEN, 2022AN**

Trump-aldiko strategiaren porrot argi samarrak akuilatuta, Biden-administrazioak estrategia landuagoa jarri du abian Txina zapuzteko.

**Sistemaren azken xedea, agian, Konfuzioren “harmoniatik” gertuago legoke Mendebaldeko marxismoaren “klaserik gabeko gizartetik” eta “gizaki berritik” baino**

matuen gainordezkaritza nabarmenarekin. Aparatu profesional ikusgarri batek kudeatua, guztia.

Egungo Alderdiaren funtzioa gehiago da (eta 18. Kongresutik, Xi liderra denetik, biziro areagotu da hori) goitik behera aginduak, irizpideak eta helburuak barreiatzea, behetik gora ideiak, eskakizunak, iradokizunak eta gainerakoak helaraztea baino. Hau da, agintearen hitza izatea, herriaren ahotsa baino gehiago, bigarren hori estatutu-betebeharra duten arren alderdikideek.

**koop57**  
SCCL  
finantza zerbitzu  
etiko eta solidarioak

*Mundu berri bat!*

euskalherria@koop57.coop  
622 572 797  
koop57.coop

Itzulpen-zerbitzuak,  
kalitate-berme osoz

(idite) ✓

uzei.eus

aholkukoop  
Fiskala Kontablea Laborala

**EKONOMIA SOZIAL  
ETA ERALDATZAILEAREN  
BIDEAN DOAZENEN  
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680  
aholku.eus



CAMERON SMITH / ETXE ZURIA

## Urriaren leian 74 urte beteko ditu Txinako Alderdi Komunistak Herri Errepublikaren erabateko agintean

### 'CLOSE, DOWN, FAR AWAY'

Horregatik, III. Internazionalaren garaiko komunismoari haren etsai garai-kideek egozten zizkieten maltzurkeria guztiak (despotismo hutsa izatea, mundu osoa menderatzeko agenda ezkutua edukitzea, isilpeko trikimailu gaiztoak erabiltzea) egungo Txinako Alderdi Komunistaren zuzendaritza gorenarentzat guztiz baliagarriak direla abiapuntutzat hartuta egiten diren "analisiak", seriotasun-itxurakoak batzuk, barregarriak ere izango lirateke bestelako ondorioz gabeak balira. Hau da, ideologiaren eta haien propagandaren eremu hutsean geratuko balira. Baina "azterlan" horiek, gero eta ugariagoak izateaz gain, AEBetako

eta, bidenabar, Mendebaldeko herrialde askotako kanpo-politikaren gidalerro bihurtzen diren neurrian, mundu mailako harreman erabakigarrienen engrana-jeetan ipinitako leherkariak bihurtzen ari dira, azken hilabeteetan bi potentzia nagusien arteko tentsioetan garbi ikusi denez.

COVID-19aren krisiarena izango litzateke kasu-azterketa serio bat egiteko lehengai paregabea. Pandemia Txinatik abiatu izanak eta haren kudeaketan Mendebaldeko herrialde aurreratuak emaitzak oro har Asia Ekialdeko herrialdeen eta, bereziki, Txinakoen aldean dezente makurragoak izateak, agerian jarrarazi ditu sakoneko hainbat joera. Batzuetan ideologiko-sozialak eta nahiko espontaneok liratekeenak, baina beste batzuetan estatu-estrategien baitakoak ere bai. Eredugarria litzateke "birusa Wuhango laborategi batetik ihes egindako zerbait izango litzatekeela" dioena. Hasiera batean, saguzar-jaleen asmakeriarekin batera, eta iturri bertsuetatik, abian jarri zen ateraldia, eta zientzialariek aho batez baztertu zuten; baina gerora AEBetako administrazioek, nola Trumpenak hala Bidenenak, berreskuratu nahi izan dute eta sinesga-



Lezoko Unibertsitateko Udala

Gurutze Santuaren Plaza, 1  
20100 Lezo

T. 943 52 46 50 E. [info@lezo.eus](mailto:info@lezo.eus)  
[www.lezo.eus](http://www.lezo.eus)

**EUSKARAZ ZARA**  
*euskaraz gara!*



LIBERATION NEWS

### ARRAZAKERIAREN AURKAKO PROTESTA SAN FRANTZISKON, 2021

*The Yellow Peril*-aren ideologia bete-betean indarberritu da, AEBetan behintzat, China Initiative bezalakoek argi eta garbi erakusten dutenez.

rritasun-aire bat ere lortu du, eta erakutsi du Ockamen labanaz mozarrotuta Akinoko Tomasen idiak zein erraz egin dezakeen hegan.

“Geure” iragan historikoaz eta iaioatsun intelektualaz, egungo sasoi ekonomikoaz edo politiko-militarrak harroago egotea beste erremediorik ez dugun europarrok, bigarren planoan geratzen etsitzen ez dugulako edo, eta Von der Leyen, Borrell edo Barbock bezalako itsasargiak gidari ditugula, aurkitu omen dugu potentzia nagusien arteko gatazka gero eta oldartuago horretan onik ateratzeko formula magikoa: *Keeping America close, Russia down, and China far away*. Amerika alboan, Errusia azpiratuta eta Txina urruti. Hau da, XIX.

## Aurkitu omen dugu potentzia nagusien arteko gatazkan onik ateratzeko formula magikoa: Amerika alboan, Errusia azpiratuta eta Txina urruti mantentzea

mendearen bigarren zatiko europar potentziek zerabiltena bera, faktoreak aldatuta. “Errusia alboan, Txina azpira-

tuta eta Amerika urruti” baitzen orduan, isilka nahiz ozenki.

Ukrainako Gerra izan da Aliantza Santu mendebaldarraren pizgailua; baina Asia Ekialdeko NATO bat antolatzekeo deiek eta bi auzien arteko zubia ezarri nahiak argi erakusten dute azken jomuga non legokeen. Tradizio europar zahar-minduetatik aldenduxeago, eta agertoki hartan Europaren ekarpena hutsaren hurrengo izango litzatekeela jakinik, AEBek oraingoz nahiago dute helburu berbererako “bertako” potentziak beregana erakartzea AUKUS eta Indo-Pazifikoko aliantzen bidez. *Divide and rule* estrategia hain ezaguna duen mundu-parte hartan, ordea, zailtasunak aurkitu behar ditu horrek ere, ezinbestez.

Bada herri bat,  
bada bide bat,  
bada modu bat,  
elkarrekin egiteko.



OÑATI  
dabilen herria

**'THE YELLOW PERIL'**

Nahasmun-aldi hau aukerako abagunea izan zitekeen Suntzu zaharraren aburu ezagunenetako batzuk gogora ekartzeko: "Etsaia ezagutzen baduzu eta zeure burua ezagutzen baduzu, ez duzu ehun bataillen emaitzen beldur izan behar. Zeure burua ezagutzen baduzu, baina ez etsaia, garaipen bakoitzeko porrot bat ere jasango duzu. Etsaia eta zeure burua ezagutzen ez badituzu, borroka bakoitzean eroriko zara". Edo "zeure burua ezagutzea da menderaezina izatea".

Ezagutza (nork bere buruarena nahiz aurkariarena) eta garaipena horren esku lotuta jartzen dituzten apotegmek, haatik, gaur egun noranzko bakarrean funtzionatzen dutela esan liteke. Batez beste, sekula baino hobeto ezagutzen dute egungo txinatarrek Mendebalde. Gure artean aditzera eman ohi denaren kontrara, informazioaren helmuna oso altua delako han ere eta, batik bat, Txinako elitearen zati handi batek harreman zuzen-zuzenak (ikasketak, egonaldiak, turismoa, familiartekoak) dituelako Mendebalde osoarekin. Ezagutza horretatik letorke, ordea, azken urteetan han indartzen ari den joera ere: Mendebaldeak bere burua saltzeko ipinitako prezioa ordaindu nahi ez izatea. Txina bertako errealtatearen ezagutza, bestalde, sistemaren hedabide ofizialek egunero koan hura apaintzeko betidanik erabili ohi duten iruditegiaren gainetik, ez da txarra; sistemak gutxi mozorrotzen du errealtatea bere orokortasunean (eta mendebaldar askoren ustearen kontra, hango zifra ofizialak geureak bezain zuzenak izan ohi dira).

Mendebaldean, eta bereziki AEBetan, ordea, alderantzizko bidea egin dela dirudi. Informazioaren ugaritasuna egundokoa den garai hauetan, Txinari buruzko ezagutza inoiz baino kalitate

---

**Txinari buruzko  
ezagutza inoiz baino  
kalitate eskasagokoa dela  
ematen du. Bezeriari  
karikaturazko irudiak  
eskaintzeko, Txinako  
benetako arazoan  
ezagutza antzutu egin da**

eskasagokoa dela ematen du, misiolari fanatikoen eta E. Backhouse bezalako alprojen albiste fantastikoei agintzen zutenean baino okerragoa. Zerikusi handia du, nik uste, gai-jartzaileak aurretiaz emandako puntua jantzi behar izaten duten migrarien eta antzekoen "azterlan burutsuekin" betetzen diren ateraldiak, faltsatze-froga inoiz gaintzen ez dutenak. Insurgentzia uigurraren aurkako kontrainsurgentziaren harira Adrian Zenz "adituak" argitaratu ohi dituenak, nabarmenaren nabarmenaz, lirateke eredugarrienak; baina ez dira bakarrak. Jakinbideak nahiko erosoak direnean ere, bezeriari karikaturazko irudiak eskaini ahal izateko, Txinako benetako arazoan ezagutza antzutu egin da, ezer ezagutu beharrik ez dutela sinetsita daudenen erosotasunerako.

Sakoneko arazoa ez baitago han, baizik hemen. Eta izen bat eman behar balitzaio, *arrazialismoa* izango litzateke hori. Alegia, "arrazista ez, baina bai ordenazalea" izan behar dela oso argi duten eta esan ere esango dizuten mendebaldar asko eta askoren pentsamolde

horretan datza giltza. Munduak, noski, europar jatorriko zurien agintepean egon behar duelako, behar bezala, ordenaz, funtzionatu behar badu. Gure "balioak" (demokrazia, giza eskubideak, harreman arautuak nazioartean, omen dira orain; merkatu libreak, kristautasuna predikatzen askatasuna –egiazko jainko bakarraren fedea, alajaina–, potentzia nagusiak ezarritako arauak, ziren duela mende bat edo beste) direlako beti aginte-lekuan egon behar dutenak. Hori ontzat emanda, kooptatu litezke aginte-postuetarako bestelako aurpegiara batzuk ere, batez ere betazal-ertzak operatzen badituzte.

*The Yellow Peril*-aren ideologia bete-betean indarberritu da, AEBetan behintzat, *China Initiative* bezalakoek argi eta garbi erakusten dutenez. Inoiz desagertu ez delako, funtsean, ezta gutxieneko seriotasunez kritikatu ere XIX. mendearen hondarreko pogrom eta immigrazio-debekuen ondoren. *Arrazialismoak* eta supremazismo zuriak munduko lehen potentzian bizi duen guraldi orokorren harira espero zitekeen horrelako zerbait gertatzea asiarrei eta, bereziki, txinatarrei buruz. Baina kasu honetan, *sorpasoa*ren mamua kontuan hartu behar da.

**'SORPASSO'A**

Hori guztia ez baita kasualitatez gertatzen ari. Gatazka-giro horren oinarri-oinarrian dago Txinako epe nahiko laburrean AEBei alor ekonomikoan aurrea hartuko dielako konbentzimendua. Hipotesia zen lehenik, progresioaren bilakaeraren pronostikoa ondoren, eta egitatea da gaur egun, zenbait ataletan eta erabiltzen den neurgailuaren arabera. Askorentzat profetikoa izan behar zuen G. Chang-en *The coming collapse of China* argitaratu zenetik 20 urte baino

**Euskaraz? Pozik gainera!**

**Euskara: bide desberdinak, helmuga bera**

943 73 71 91 - euskara@legazpi.eus  
www.legazpi.eus

Legazpi Euskara  
LEGAZPI UDALA

gehiago –eta hark aurreikusitako epeak huts egin zuenetik 10 baino gehiagor igaro direnean, Txinako ekonomiari buruzko “kolapsismoak” zeresana ematen jarraitzen du Mendebaldean, baina tonu minorrean: Txinaren hazkunde-tasak ahalik ezkorren interpretatzera mugatzen da orain.

AEBetako elite politikoez, Trumpen agintalditik gutxienez, *sorpasso* ekonomiko hori aktiboki zapuzteko oso delibero argia erakutsi dute. Lehen fasean, merkataritza-defizitaren munta ikusgarriaren aitzakian ezarritako mugazergak AEBetako ekonomia Txinakoa baino gehiago kaltetu dutela dirudi, edo behintzat ez dutela nabariki ahuldu. Barne-kontsumoarekin eta ASEANeko herrialdeekiko merkataritza biderkatzeko ahalegin nabariekin erantzun du Txinak, errepresalia zuzenekin baino gehiago; eta 14. Bosturteko Planak eta 20. Kongresuaren inguruko ekimen ekonomiko nagusiek horixe lehenesten dute, *sorpasso* bera inoiz helburutzat jarri gabe.

Trump-aldiko estrategiaren porrot argi samarrak akuilatuta, Biden-administrazioak, kanpainen aditzera emandakoari uko egin eta aurreko lau urteetako ia neurri guztiei eutsi arren, estrategia landuagoa jarri du abian, helburu berberarekin. Alde batetik, ahalik aliatu gehien egitasmo berberean batzeko saioa egiten ari da, handienen kasuan (Japonia, Alemania eta Hego Korea) oso kontrako eztarrira joan behar zaien zer-baitetan. Eta bestetik, punta-puntako teknologia eta jakiteetarako atea itxi nahi dio Txinari, jakinik –iruditzen zaitzezindu baino gehiago atzeratu egin dezakeela horrek haren aurrerabidea. Eta espazioan jada gertatu bezala, hemendik urte gutxitara gainditua izango duela oztopo hori... eta epe ertainera munduak

## Gatazka-giroaren oinarri-oinarrian dago Txinak epe nahiko laburrean AEBei alor ekonomikoan aurrea hartuko dielako konbentzimendua

## Taiwango auzia da faktore bakarra, gaur gaurkoz, Txina bere agendatik aterarazi eta bestela inondik ere sutu nahi ez duen gatazka armatu batean murgildu dezakeena

bi estandarrekin aritu beharko duela goi-teknologian eta ikerkuntzan.

Armagintzaren munduak, hala ere, distortsio erabakigarria ezartzen du bestela norgehiagoka, zakarra baina eramangarria, litzatekeen horretan. Teknologia aurreratuenarekin uztartuta dagoelako, alde batetik; eta, Ukrainako Gerra erakusten ari den bezala, ekoizpen industrialaren mugekin berehala egiten duelako topo, bestetik. Eta esan gabe doa, oraindik ere hegemonikoa den potentzia bakarraren ahalmena, azken

buruan, bere nagusitasun militarrean oinarritzen dela. Baina AEBetako arduradun eta pentsalari militarrek (agian, elite politikoak eta iritziz publikoak ez bezalako kontuak ateratzen dituztelako) badakite nagusitasun orokor hori ezerezean gera daitekeela gerra mugatu batean, “Txinaren zelaian” (Taiwan, Korea...) jokatu behar izanez gero, hurbiltasunak hari emango liokeen abantaila estrategikoagatik. Eta horregatik daude asaldatuta Txinak, bere ahalmen industrial ikaragarriarekin, “hurbileko” itsas-gerrarako baliabideak (itsas-armada, hegazkinak, misileria) biderkatzen jartzen ari den grinarekin. Gerra atzertzeak gerra galtzea esan nahi duela aldarrikatzeraino. Txinari “zangoak hautsi” behar zaizkiola gero eta ozenago entzuten da AEBetan. Eta Xiren azkenaldiko adierazpenek aditzera ematen dute Pekingo agintariek ez dituztela txantxetan hartzen horrelakoak. Ezta beldurrez ere, dirudienez.

Testuinguru horretan kokatu behar da Taiwango auziak duen ezegonkortze-ahalmena: Txina bere agendatik aterarazi eta bestela inondik ere sutu nahi ez duen gatazka armatu batean murgildu dezakeen faktore bakarra da, gaur gaurkoz. Aspaldiko ez ezik betidaniko kontua da Pekinentzat ezbaierik gabeko marra gorria dela irlak independentzia ofizialtzeko eman lezakeen edozein pauso (erreferenduma, aldebakarreko deklarazioa). Kissingerek berak gogorarazi du hori bere azken obran, Dengen garaietako solases kontura. Zergatiak ere ez dira batere misterioitsuak: Taiwanen independentzia ofizialdu eta nazioartean onartua izateak seriozki muskilduko luke 1949an ezarritako sistemaren legitimitatea eta autopertzepzioa, eta seguruenera krisi larria sorraraziko luke Alderdiaren barnean.

**ORKLI ECO SYSTEM**

**Etorkizuneko etxea Jasangarria da, Orkli da**

**EGUZKI IRTENBIDEAK** **ZORU IRRADIATZAILE/FRESKAGARRIA** **AIREZTAPENA** **BERO-PONPA + AIREZTAPENA Pkom<sup>4</sup>**

**orkli** [www.orkli.com](http://www.orkli.com)

**TXINA ETA TAIWAN INGURUAN AEB-EK DITUZTEN BASE MILITARRAK**



Egungo *status quo* aldarazteko premiarik ez grinarik ez da sumatzen Txinako agintean, garai batean garrantzitsua izan zitekeen pizgarri ekonomiko (Txinako BPGaren herena baino gehiago zen Taiwanena 1990ean) erabat atzenda legokeenez (Txinako BPGaren 1/24 du orain Taiwanek, kontinente-ko probintzia batzuetakoaren azpitik). Baina auziaren balio politikoa biderkatu egin da, Pekingo sistemak bere iritzi publikoarekiko menpekotasun askoz handiagoa duen heinean.


Joko-zelai horretan, AEBen estrategia da, argi eta garbi, azken hauteskunde orokorretan nagusitzen ari diren Taiwanen independentzia-zaleei animoak eman eta laguntasuna agintzea, nahitaez arrisku bizikoa izango litzatekeen aurrerapauso eman dezaten. Eta Txinarena, alderantziz, izango litzateke taiwandarrei orokorrean etsiaraztea, baina oso bereziki, AEBen laguntza inoiz iritsiko ez litzaekeelako gerra galdu egingo luketela sinestaraztea irlako Indar Armatuiei, berriro Suntzuri men eginez:

“Borroka egin behar gabe irabaztea da garaipenik hoberena”.

**AUTARKIARIK EZ, AUTOSUFIZIENTZIA BAI**

Baina, gainerakoan, Xiren hitzaldi publikoak edo Txinako goi-arduradun politiko eta ekonomikoen adierazpenak aintzat hartzen badira, haien kezka edo premia nagusiak ez leudeke norgehiagoka/gatazka horren inguruan, baizik mahai gainean dituzten –eta beste leku askotan ere badiren– buruhauste batzuetan.

Adibidez, komunikazio-premia ikusgarriak asetzen joateko, eta Txinako historian maizegi gertatu ohi diren baina egungo munduan areagotzea besterik espero ezin diren hondamendiak (uholdeak, lehortek, lurrikarak, muturreko fenomenoak), gizarte urbanizatuan ondorio are latzagoak izan ohi dituztenak, ekidin edo konpontzeko inbertsioek kapitulu berezia osatzen dute, azpiegitura-erakuntzako ahalegin ikusgarriak eraikusten duenez. Ez da soilik “jendearen



ongizateari” zor zaion arretaren kontua; argi dago AEBekiko harremana gaiztotu ahala, Pekingo aginteak nahiago duela bere merkataritza-soberakinak –baita zorpetzeko gaitasuna ere– “etxeko lanetan” (eta zuzenean halakoak ez badira ere, “etxerako hornidurarekin” lotura estua duen *Yidài Yilù*, Zetaren Bide Berria bezalakoetan) inbertitzea, aurkariaren ekonomiaren euskarri den zor estatubatuarra erostera bideratzea baino.

Elikadura- eta energia-nahikotasuna (“arroz-katilua eskuetan sendo edukitzea”, oraintsuko esamoldean), litzateke beste adibide bat; munduko labore-lurren %7rekin gizateriaren seirenari jaten eman behar dion sistema batek ez du parekorik Mendebaldeko munduan. Txina historikoan ohikoa ez ezik filosofikoki desiragarria izan ohi zen autarkiak ez du egun ospe onik, besteak beste, guztiz ezinezkoa litzaiokeelako lehengaien, elikagaien, teknologien edo kapitalen ataletan; baina gero eta maizago egiten ditu aginteak autosufizientzia-deiak, “irekitasunari eustearekin” batera. Antza denez, hainbat mendetan lehen aldiz, goserik pasatu gabe hazi den bigarren belaunaldia unibertsitatera heltzea lortu denean, belaunikarazia ez izateko erronka gainditzeak erabateko lehenasuna du.

Muturreko pobrezia desagertutzat eman zuen Alderdiak orain hurrengo Bosturteko Plana amaitzean; baina pobre asko geratzen direla ukatu gabe. Urbanizazio-prozesu ikaragarria pairatzen ari da herrialdea alde guztietan, etxebizitzarazoa (eta -negozio) kontrolagaitzarekin... Eta Heihe-Tengchong lerroak islatzen duen egiturazko desoreka historikoa apenas samurtu den azken hamarkada haue-tan egindako ahaleginen ondoren ere.

Bestalde, betidanik buruhauste izan den demografiak kezka-gai izaten ja-



IMAGINE CHINA

#### ASPALDIKO UHOLDE HANDIENAK JIANGXI ESKUALDEAN, 2020

Txinan gero eta ohikoagoak eta muturrekoagoak dira uholdeak bezalako hondamendiak, eta handitzen ari dira horiek ekiditeko eta konpontzeko inbertsioak.

### Txina historikoan ohikoa eta filosofikoki desiragarria izan ohi zen autarkiak ez du egun ospe onik, baina gero eta maizago egiten ditu aginteak autosufizientzia-deiak

rraitzen du, baina alderantziz orain: jaiotze-tasak behe-beheraino erortzen ari dira goi-hezkuntzaren orokortzeak, etxebizitzaren garestitasunak eta ugalt-

kortasunaren kontrolak “haur bakarreko belaunaldiarekin” elkartzean sortu duen koitunturagatik.

Halaz eta guztiz ere, 30 urte beteta oraindik bilobarik eman ez dion bere alaba bakarrak baino gehiago kezkarazten du Xi berak nahiko ondo ezagutzen duen landa-eremuetako biztanleen diasporak eta zahartzeak. Santutegi politiko edo parke tematiko moduko zerbait bilakatu du sistemak Liangjiahe, Iraultza Kulturalaren azken fasean, Xi elite-kumeak “nekazariengandik ikasten”, alegia, lan latzean, zazpi urte eman behar izan zituen Shaanxiko bazter galdua. Aldian-aldian, hara itzultzen da oraindik ere, bertako nekazari zahar ezagunekin bazkaldu eta hitz egitera. Eta agian, Alderdiaren egituratik heltzen zaizkion aurrerapen-txostenak egiaztatzen. Harvarden zebilen alaba ere eraman zuen hara, duela hamar urte. ●

# ararteko

HERRIAREN  
DEFENDATZAILEA



arartekoa@ararteko.eus  
www.ararteko.eus

#### ARABA

Prado, 9  
01005 VITORIA-GASTEIZ  
☎ 945 13 51 18 - Fax: 945 13 51 02

#### BIZKAIA

Albia Eraikina  
San Vicente, 8-8. solairua  
48001 BILBAO  
☎ 94 423 44 09 - Fax: 94 424 18 44

#### GIPUZKOA

Arrasate, 19-1  
20005 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN  
☎ 943 42 08 88 - Telefax: 943 42 72 97





# BERTAKO -rekin, BAI!

Euskara da gure territorio  
libre bakarra

bertako  
igogailuak | ascensores

ARABA 945 712 822 **NAFARROA** 848 870 917  
GIPUZKOA 943 903 450 BIZKAIA 946 523 935  
[WWW.BERTAKO.EUS](http://WWW.BERTAKO.EUS)

IÑIGO URRUTIA

---

**“Gaztelania eta frantsesa  
armen bidez inposatu  
zituzten Euskal Herrian”**



Euskarafobia legalaren historia legez lege eta arauz arau aztertu du Iñigo Urrutiak (1966, Jatabe-Maruri), Xabier Irujorekin batera. Horren emaitza da *Historia Jurídica de la Lengua Vasca (1789-2023)* liburu mardula. Irujo atzerrian zegoenez, Urrutiarekin mintzatu gara. Mugaren bi aldeetako euskaldunoi, gure hizkuntzaren aldeko urrats txikienarekin euskara inposatzen ari garela esaten digutenoi, erantzun argia ematen digu lan honek: hemen inposatu direnak, sufrimendu izugarriarekin eta oinarritzko giza eskubideak urratuz gainera, frantsesa eta gaztelania izan dira. Historia ezagutu besterik ez dago, hori hala dela jabetzeko.

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA  IBAI ARRIETA

### **Azken 230 urteotan zenbat lege onartu dituzte Frantziako eta Espainiako estatuetan euskararen eta euskaldunen aurka?**

Milaka arau dira. Guk Boletín Oficial del Estado eta lehengo Gazeta arakatu ditugu, interneten erraz kontsulta baitaitezke. Vasculence edo euskera jarrita hitz hori daukaten arau guztiak agertzen dira. Bibliografiatik ere asko jaso ditugu. Frantziako Estatukoak, bestalde, Aldizkari Ofizialetatik eta hizkuntza gutxiuen historiari eta frantsesaren historia juridikoari buruz aurretik egindako lanetatik atera ditugu.

### **Zer dira, euskararen aurkako legeak ala euskaldunen aurkakoak?**

Galdera oso ona da, zaila erantzuten. Euskara beti egon da botere politikoaren jomugan, baina horren atzean euskaldun izaeraren aurkako jarrera historikoa dago. Aldi konstituzional, diktadura eta abarretan, beti, konstante bat izan da gure hizkuntzaren aurka egitea.

### **Zein zen lanaren helburua?**

Nevadako unibertsitatean egonaldia txiki bat egin nuen eta Xabier [Irujo] ezagutu nuen han. Kezkatuta zegoen euskararen jazarpenarekin. Baziren lan ugari, izan Torrealdairenak eta *Libro blanco del euskera* bezalakoak, baina arauen azterketa egitea falta zela pentsatzen genuen. Ikuspegi historikoa eta juridikoa uztartu genituen, beraz. 2007a zen eta lehen bertsio hura Standfordeko unibertsitatean aurkeztu genuen. Iaz pentsatu genuen liburua eguneratzea, batez ere, argitzeko zer dagoen azken aldiko oldaraldi judizialaren atzean.

### **Zer nabarmenduko zenuke liburutik?**

Asimilazio prozesu bat izan dela gure aurka, baina deigarria dela herri honek izan duen irauteko grina, gogoia eta indarra. Euskararen aurkako lege, dekretu, zigor eta abarren gainetik, gure herriak iraun egin du eta horrek herri izaera indartsua ematen digu. Frogatzen du bere etorkizunaren jabe izan nahi duen herria garela.

### **Liburua genozidio hitzaz Raphael Lemkinek *The Axis Rule* lanean egin zuen definizioarekin hasten duzue, eta amaiera aldera diozue genozidio kultural bat eragin nahi izan digutela euskaldunoi. Hitz potoloa da hori.**

Bai, hitz handia da genozidioa baina liburuak argi uzten du euskararen aurkako politikak mendeetan iraun duela eta ideologia politiko guztiek gauzatu dutela. Gure hizkuntzaren aurkako jokabidea ez da mugatzen garai jakin batera: azken 200 urteetan, aldi konstituzionaletan, diktaduretan, trantsizioetan, guda garaietan... beti sakondu dute euskararen aurkako zapalkuntza sistematiko eta juridikoa. Lemkinek egiten duen genozidioaren definizioa betetzen da. Xabier liburua aurkezten ari da AEBetako unibertsitatean eta genozidioaz hitz egiten du argi eta garbi.

### **Liburua irakurrita deigarria horixe egin zait: Frantzia 1789tik ia gaur arte eta Espainiako Estatuan 1812az geroztik, salbuespen oso gutxi kenduta, etengabe, badirudiela bando guztiak ados egon direla asimilazioan sakontzeko.**

Erregimen politiko guztietan, Frantzia eta Espainian, euskararen aurkako erasoak konstanteak izan dira. Euskara beti ulertu da gure nortasunaren elementu garrantzitsu gisa. Hala ere, gauza bat utzi behar da argi: behin eta berriro ari ziren gauza bera debekatzeko, hezkuntzan, kulturen, komunikabideetan. Horrek erakusten du arau horiek aplikatzeko mugak zituztela, helburua ez zutela betetzen, ondoren beste bat behar zutelako gauza bera debekatzeko. Estatu botereei egokitu ez zaien herri baten kasuan gaude. Estatuaren politika euskararen aurkako izan da, homogeneizazioa bilatu dute etengabe zigor eta neurri juridikoak baliatuz, bete ez duten helburua lortzeko: gure hizkuntza desagerraraztea.

### **Murgil gaitetzen liburuan egin duzuen zapalkuntza horren erreposoan eta has gaitzen Frantziako Iraultzatik, 1789an. Frantziako herritarren %11k mintzatzen zuten Öil hizkuntza romantzeari izena aldatu eta "frantsesa" deituta, hizkuntza ofizial izendatu zutenean hasi zen euskararen eta beste hizkuntzen aurkako jazarpena. Zein zen panorama ordura arte Euskal Herrian?**

Aurretiko egoeraz datu askorik ez dugu, baina euskararen erabilera beste naturaltasun batekin egiten zela badakigu. 1610-1625 inguruan, adibidez, Gernikako Batzar Nagusietan estatuko agenteek, korregidoreak eta abar, gaztelera inposatzen zuten, baina herrietako ordezkarien hizkuntza euskara zen. Bazarretako bilerak eta erabakiak euskaraz hartzen ziren, besterik da gero nola jasotzen ziren idatziz. Maila juridikoan eta administratiboan, botere ahalmena izan zuten bitartean, euskarak ez zuen jasotzen gerora pairatuko zuen presio handirik, nahiz eta 1770tik aurrera geroz eta arau gehiagok debekatu euskara Hegoaldeko eskoletan, eraztunaren praktikarekin, besteren artean. Ikusten da, Konstituzioen aroa zabaldu zenean 1789an, Frantziako Iraultzan, botere zentralek estatuak uniformizatzeko erabakiak hartu zituztela. Hortik aurrera euskararen aurkako presioa biderkatu zuten.

### **Zein zen beren gogoeta politikoa?**

Estatuaren konfigurazioan aldaketa garaia izan zen. Ordura arte, Euskal Herriko lurraldeak konfederazio eskeman



RICARDO BALACA

Hainbat izan dira euskal herritarren erantzun armatuak, estatuen asmo politiko uniformizatzaileen aurka. Olio-pinturaz egindako koadro honetan Mendizorrotzeko bataila, Bigarren Gerra Karlistan, 1876ko urtarrilaren 29an.

antolatzen ziren, bai beren artean, baita estatuekin ere. Nolabait, beren foru, zuzenbide eta izateko eran, parez pareko harremana zuten estatuekin. Aldiz, 1789 urtetik aurrera ikusten da estatu modernoek konfigurazio sendoagoak nahi zituztela. Gailentzen den irizpidea da: ez dago komunitate politikorik batasunik gabe. Herritar guztiak estatuko kide bilakatzeko, hizkuntza bera hitz egin behar zutela pentsatzen hasi ziren, eta estatu hizkuntza ez ziren guztiak bigarren mailara baztertu zituzten. Orduan hasi zen hizkuntza politika genozida hau.

#### **Foruak gure babes neurriak izan ziren. Zebateko eragina izan zuten?**

Benetan garrantzitsuak izan ziren. Pentsa, 1840. urtera arte aduanak zeuden Gipuzkoan zergak jasotzeko. Zuzenbidearen ikuspegitik ere gure zuzenbidea genuen. Foruen birtualitate juridiko nagusia zen salbuespena zirela. Tresnak genituen estatuko uniformitatea saihesteko. Euskal zuzenbideko juristok gaur egun ere horretan gabilta, estatuko legediaren aplikazioan etengabe salbuespenaren bila. Jarrera historikoa da.

**1789ko abuztuaren 5ean, Louis XVI Frantziako erregeak sistema feudala abolitu zuen eta Ipar Euskal Herriko foruak indargabetu. Maila kulturalen kataklismo erraldoia eragin zuen, ordura arteko herri batzarrak eta antolaketa soziala pikutara joan zirelako. Ordura arte gehiengoa euskaldun elebakarra zen lurraldean, 150 urtean hizkuntza ia desagerraraztea lortuko zuten.**

Nafarroako erreinuari loturiko antolaketa ereduak, batzarren garrantzia, herrietako ordezkariak, herrietako batzarrak, herrien barneko kontzejuak eta abar kentzean –Nafarroan eta Araban oraindik ere badira antolaketa horren arrastoak–, homogeneousazio bultzada handi bat gertatu zen. Ikuspegi juridikotik protestak izan ziren arren, galera hori eraso handia izan zen. Inflexio puntua izan zen zalantzarik gabe. Frantziako Gobernuak jarrera erabat oldarkorra hartu zuen eta hori gero Espainiara eraman zuten.

**Saiatu ziren Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako agintariak**

**aurre egiten horri, baina handik gutxira hasi zen Konbentzio Gerraren testuinguruak –Frantzia Espainiaren aurka, batez ere Euskal Herriaren eta Katalunian borrokatu zena–, hiru urtean traidore jotzen zuten jende asko gillotinatzea erraztuzion Napoleonen armadari. Esan dezakegu, beraz, biolentzia handiz sartu zutela frantsesa Ipar Euskal Herriaren, euskararen gainbeheraren fase hau abiaraziz?**

Bai, zalantzarik gabe. Iparraldeko euskal gizarteak horrela ulertu zuen. Instituzioen defentsa egin zuten, baina Napoleon guttiz aurka jarri zen eta erregimen militar batean sartuta, oso denbora tarte txikian instituzioak galdu, uniformitatea ezarri eta euskararen erabilera erabat mugatu zuten. Ipar Euskal Herriko gizartea euskararen eta gure instituzioen defentsan aterra zen, baina parean zuen gillotina eta Europako armadarik potenteena. Oso egoera latza izan zen eta galera hori ikuspegi kolektiboan oraindik ere mantentzen da.

**Garai hartan hasi ziren gutxiespenez “patois” deitu zituzten hizkuntza**

**horiek suntsitzeko estrategiak finkatzen, besteren artean, hezkuntzaren bidez. Zer paper jokatu du eskolak haur euskaldunak erdalduntzeko orduan?**

Uniformizazioa zabaltzeko eskola oinarriko zutabe izan zen. Euskara debekata, eskolaren bidez euskal gazteriaren aurka eraso ikaragarria egin zuten, erabat orokortua. Hezkuntza Elizaren menpeko instituzio izatetik estatuaren menpeko izatera pasa zen, eta estatuaren menpeko zenez, estatuaren helburuak eskola bitartez lortu nahi izan zituzten. Giza eskubideen ikuspegitik ez zen hezkuntza eskubidea bermatzen. Gazte jendeak frantsesa jakin gabe ez zeukan gaitasunik hezkuntzaren bidez eduki dozentek jasotzeko -oinarrizko eskubidea dena-. Beraz, hezkuntza eskubidea bera ere kolokan jarri zuten ez baitzen bitartekorik jartzen hizkuntza ulertzen ez zutenei edukiak transmititzeko. Horrez gain, estatuaren ildo ideologikoak zabaldu nahi izan zituzten eskolan.

**Izugarri sufrutuko zuten frantsesik ez zekiten haur euskaldun haiek -Hegoaldean gaztelaniarik ez zekitenekin gertatu zen bezala-. Askok, beren seme-alabei euskara ez transmititzea erabakitzeraino.**

Deskulturalizazio ikaragarria pairatu genuen herri modura. Baina maila pertsonalean, askatasun eta eskubideen ikuspegitik, egoera latza izango zen. Leku batera joan, zuretzat erabat arrotza, lagunekin ezin hitz egin, hizkuntza ofiziala gaizki egiteagatik zigorrak, debekuak pairatu, iraultzaren aurkako traidore izendapena jaso... "Guk zer egiten dugu hemen?", zioen euskaldun askok. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak erabat debekatzen du asimi-

**“Euskararen aurkako zapalkuntza sistematiko eta juridikoa izan da. Lemkinek egiten duen genozidioaren definizioa betetzen da”**



lazio behartua, eta hori hala izan zen. Giza eskubideen bortxa gure historian asko luzatu zen, Hegoaldean Errepublikak garaira bitarte, eta frankismoan berriro ere. Beraz, Frantziako Iraultzan sortutako euskararen aurkako politika genozida horrek gaur egun arte iraun du, ia 250 urtez.

**Espainiako Estatura pasako gara. Frantziako Iraultzatik 20 urtera, 1812ko Cadizko konstituzioa onartu zuten, eta euskal ordezkariak salatu zuten lau estatu foralen legalitatea ez zutela errespetatzen. 1833an garbi zuten alderdi liberalak foruak abolituko zituela, eta erantzun armatua izan zen Lehen Guda Karlista. Guda garaian euskararen aurkako jazarpena zorroztu zen, euskara bando karlistarekin lotu zuten... 100 urteko epean, euskara hizkuntza gutxitu bilakatuko zen Hego Euskal Herrian ere.**

Hori da abiapuntua. Euskara gaur egun hizkuntza gutxitua da, baina duela 200 urte hizkuntza nagusia zen lurraldearen zati handi batean, beraz, imajinatu zer nolako eraldaketa prozesua eragin duen estatuak. Kadizko konstituzioa onartu

zenez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek deklarazioa argitaratu zuten esanez konstituzioa ez zettorrela bat foruekin. Hala ere, esan behar da Espainiako estatu-egituraketa oso motela izan dela, Frantziakoa askoz sendoagoa eta bortitzagoa izan da. Prozesu hori moteltzeko eta mugatzen saiatzeko, indarkeria horri aurre egiteko, foruak tresna garrantzitsua izan dira. Baina Lehen Karlistadaren ondoren, estatuak onartu zuen lehenengotariko araua izan zen apaizei debekatzea euskaraz predikatzea. Egia da erlijio katolikoaren eta euskararen arteko lotura historikoa izan dela, eskolak eta mezak euskaraz egiten zituztela, modu naturalean. Estatuak botere eklesiastikoaren gainetik jarri zen garai hartako estatuko hizkuntza inposatuta. Foruen galeraren ondoren hasten dira arau horiek, tesuinguru militar eta inposaketa garai beteetan. Ziur nago liberal batzuek euskararen defendatzaile izango zirela, baina ikusten da modu orokorrean foru erregimenak euskara erabiltzearen aldeko jarrera izan zuela eskoletan, eta gerora, erregimen liberalak ez.

**Horren ostean hasten dira gerrarako errekrutamentuak Hego Euskal Herrian. Gazte asko soldadu, beste asko Amerikara migratzen hasi ziren. Ipar Euskal Herrian berdin.**

Militarizazio izugarria haren erdian, errepresioa areagotu zen, izan eskolan, elizan edo kalean. Jende askok ihes egin zuen. Foruen galeraren osteko aldiak oso gogorrak izan ziren. Gainera, Espainian mende amaieran diktadurak izan ziren.

**Euskararen aurkako erabakiak etengabeak izan ziren Lehen Guda Karlista amaitu eta ondorengo**



Ugarte auzoa, **Muxika**  
Tel. 94 625 27 01  
**muxikakoudala.eus**



**Muxikakoudala**  
MUXIKA - GOROZIKA - IBARRURI

**Hiru herri,  
udalerrri bat**

hamarkadetan, Bigarren Guda Karlista lehertu zen arte. Guda hasi zenean karlisten esku zeuden lurraldeetan foruak berrezarri eta eskoletan euskara sustatzeko neurriak hartu zituzten berehala. Nolakoa izan zen karlisten esku zegoen lurraldeko 1872ko estatu forala?

Mugimendu interesgarria izan zen. Gerra piztean estatu karlista ez zen soilik ikuspegi militarretik antolatu, kontrolpean zituen lurraldeetan artikulazio politiko bat ezartzen saiatu zen. Bai ikuspegi juridikotik –foruen erabateko aplikazioa eginda– edo zerbitzu publikoak eskainita. Hezkuntza euskaraz egin behar zela arautu zuten. Sistema hura urte eta erdiz luzatu zen, testuinguru beliko betean, baina interesgarria da dokumentu gisa, frogatzen duelako agintari karlistek kultura gaiei eta euskarari, herriak hitz egiten zuen hizkuntzari, erabateko lehentasuna ematen ziotela. Behin gerra galduta, jazarpena eta euskararen aurkako oldarraldi berriak hasi ziren.

**Guda 1876an amaitu arren, de facto salbuespen egoera mantendu zuten 1881 arte Hego Euskal Herrian. Ipar Euskal Herrian esan dugun bezala, esan genezake Hegoaldean ere**



**armen bidez sartu zutela gaztelania eta euskararen galera eragin?**

Bai. Estatus juridiko politiko berezia jarri zuten gerra amaitutakoan. Kontrol soziala, kontrol politikoa eta kontrol militarren harira, euskarari debekatu jarri eta gaztelaniaren penetrazioaren alde egin zuten argi. Euskal gizartearen zat bat beste garai ilun bat hasi zen eta exodo handia hasi zen berriro Ameriketara.

**“Herriarak estatuko kide bilakatzeko, hizkuntza bera hitz egin behar zutela pentsatzen hasi ziren; estatu hizkuntza ez ziren guztiak bigarren mailara baztertu zituzten”**



**Foruak behin betiko ezabatu ostean, euskal kulturaren eta hizkuntzaren aurkako giro betean, Euskal Pizkundea mugimendua sortu zen, karlismoa albo batera utzi eta abertzaletasunean islatu zena. Euskararen galera prozesua gerarazi eta goranzko joeran jarri zuten zenbait pertsonak fusilatuta amaitu zuten frankismoan.**

Euskal Herriko elite kulturaletik gertu zegoen zenbait jende ulertu zuen galera horri aurre egiteko beste bultzada bat behar zela eta ikuspegi kulturaletik giro berri bat sortu zen. Eta hitzez baino ekintzaz egin zuten. Liburugintzan, euskarari buruzko azterketak, hedabideak... bultzatuta, karlismoa albo batera utzita beren burua abertzaletasunean kokatu zuten. Foruen galerak eragindako kontzientziak mugimendu politiko berria eragin zuen. Abertzaletasunaren sorrera hor kokatzen da. Mugimendu sinbiotiko bat izan zen, elkar elikatzen zuten testuinguru kulturalak eta mugimendu politiko horrek, egiturek ez zutelako asetzen euskarak eta euskal gizarteak zituen beharrak. Estatutik zetozen erasoiei aurre egiteko bide bat zabaldu zen.

**Errepublikara garaian, gauza esanguratsua gertatu zen ikuspegi politiko eta juridiko batetik: autonomia estatutua aitortu zioten EAeri eta**

**euskarara koofizial izendatu zuten. Bigarren Guda Karlistan bezala, oso epe laburra izan zen ordea.**

Errepublikaren aurreko garaia, Primo de Riveraren diktadurarekin, euskararen aurkako oso giro bortitza izan zen Hegoaldean. Gero, konstituzioa onartu zuten 1931 urtean eta Kataluniari autonomia estatutu aurrerakoa eman zitzaion. Hegoaldeko proiektua zen lau lurraldeak batuta, konstituzioak baimentzen zuen “regiones autonomas” delako bat sortzea. Baina mugimendu batzuk izan ziren, bereziki Nafarroako eskuinak bultzatuta, eta azkenean Nafarroa kanpoan geratu zen. Autonomia estatutua ezartzearekin batera euskara ofizial egin zuten agintariak. Euskarak berreskuratu zuen bere naturaltasuna dokumentu ofizialetan, administrazio jardueretan eta abar. Lege eta arau guztiak bi hizkuntzatan argitaratzen hasi ziren, Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zuten, herri batentzat oinarriko egiturak sortzen hasi ziren. Hori, dena den, egoera beliko betean izan zen eta garatzeko aukera askorik gabe.

**Frankismoan sartu aurretik, itzul gaitzean Iparraldera. Prusiarren aurkako 1870eko gudak, Frantziaren abentura kolonialek, Lehen Mundu Gerrak... errekrutatze masiboak eragin zituen, eta honek armadari uko handia.**

Frantziaren armadaren deia intsumisio garaia izan zen. Ipar Euskal Herriko gazte askok zerbait arrotz moduan ikusten zuten armada. Asko joan egin ziren gudara baina beste askok uko egin zioten eta exilioa zen irtenbide bat, izan Hego Euskal Herrira edo Ameriketara. Izugarriko sarraski soziala izan zen, milaka eta milaka euskaldunek egin zuten ihes. Azkenerako, kontrolak areagotu zituzten kanpora zihoazenen mugimendua mugatzeko.

**Garai horretan, XIX. mende hasieran, euskaldun, bretoi, kataluniar eta abarren aurkako jarrera xenofoboak ere pairatu izan ditugu, adibidez, Frantziako hezkuntza ministro Jules Ferryk hitzez hitz esan zuen “arrazo gorenak betebeharra dute beheagoko arrazak zibilizatzeko”. Halako asko aurkitu dituzue?**

Bai, botereak supremazismo hori bultzatu zuten. Ferryk gainera denboran luze iraun zuen hizkuntza lege bat onartu zuen. Frantziarrak beste maila batean zeudela uste



Josu Martinezen *Anti* filmaren fotograma bat. 1921eko neguan kokatua. Parisetik heldu da maistra Ipar Euskal Herrira. Herriko umeez euskaraz besterik ez dute egiten. Maistrak frantsesez baino ez.

zuen eta ideia hori hezkuntzaren bidez hedatu nahi izan zuten, sekulako erasoak komunitate askoren aurka. Horren eragin negatiboa oso handia da.

**Frankismo gordinera itzulita, jazarpena maila guztietara eraman zuten. Euskal izenak erregistroan inskribatzea debekatu zuten, edo k, tx, eta b hizkiak debekatu zituzten, milaka izen, abizen eta toponimo euskal grafiatik gaztelaniara aldatzera behartuz. Mende bat geroago, arrastoa utzi duten legeak dira.**

Izenen antroponimiaren aurkako erasoak


oso handiak izan ziren, grafia eta abarren-gatik. Adibide batzuk jartzearen, itsasontzietako euskarazkoak ere debekatu zituzten, pospolo kutxetan euskarazko esaldiak eta hitzak desagerrarazteko agindu zuten edo hilarrietan euskarazko inskripzioak kentzera iritsi ziren. Eta bada kasu bat, Gernikakoa, nola jabeek ez zituzten hilarrietako euskal inskripzioak ezabatu, agintari faxistek ormi-goiarekin estali zituzten.

**Alegia, paisaia linguistikoa erabat espainolizatu zuten.**

Administrazio zibila administrazio milita-

rraren menpe jarri zen. Gauza asko arauen bidez debekatu zituzten, baina beste gauza asko ahalmen militarren menpe jarri ziren. 1943 bueltan onartu zuten Ley de Orden Público, egungo Mozal Legea bezalako zerbait, baina ikuspegi faxistatik egina. Eta noski, ordena publikoaren aurkako jarduera edozer izan zitekeen, euskaraz hitz egitea barne. Beraz, edozer egin zitekeen euskarazko hizketaldien aurka. Nolabait lege babesa zuten. Zigorrak eta isunak ere eguneroko ogi izan ziren.



**Falangearen eskutik Guardia Zibikoa izeneko erakundea jarri**



**ARTAZA UREDERRA**

Nafarroaren bihotzean  
esperientzia berri bat  
ezagutzeko aukera

Artaza Urederra kanpina  
www.campingartazaurederra.com  
646 957 225

*Ihes betea zilegi balitz,  
nonbait balego bakea...*

**zuten abian autoritate frankistek, kalean ere euskaraz hitz egin ez zezan jendeak. Azal dezakezu zer izan zen hori?**

Euskaraz hitz egiteak ez zuen inolako lege babesik eta ordena publikoaren aurkako ekintzat har zitekeen. Gogoratu behar da leku askotan euskalduna zela gizartea garai hartan. Donostian adibidez, ezarri zen Guardia Zibikoa, kaletik euskara desagerraraztea helburu zuen erakundea. Lauko taldeak izan ohi ziren eta kalez jantzita ibiltzen ziren agenteak. Sakabanatuta joaten ziren kaletik, eta norbaitek baten bat entzuten bazuen euskaraz, modu onean edo esaten zion gaztelaniaz hitz egiteko. Horren atzetik, ordea, bikote bat joaten zen, hauek ere kalez jantzita, eta horiek entzuten bazuten euskaraz jarraitzen zutela, isuna jartzen zioten edo jo egiten zuten, dokumentatuta dagoenez. Beldurra sartzeko estrategiak ziren, jendeak kalean euskaraz hitz egiteari utz ziezaiola.

**Frantziako Estatuan, II Mundu Gudaren ostean, nazien aurka Bretainian, Euskal Herrian, Katalunian edo Okzitanian eginiko erresistentziak nolabait saritu zituzten, lehen aldiz, eskoletan irakasleak hala erabakitzen bazuen, hautazko gisa, bertako hizkuntzak astean ordubetez irakasteko baimena onartuta, Loi Deixonne delakoaren bidez. Zer ekarri zuen horrek?**

Euskarari, bretoiari eta abarri errekonozimendu juridikoa eman dion araua izan zen hori. Lege horrek dialektotzat jotzen zituen hizkuntzak, baina tira, bidea zabaldu zien eskoletan ordubete bazen ere, irakasteko.



#### **GERNIKA-LUMO. 1949KO AZAROAK 2.**

Alkate faxistak sinatutako aginduak gogorarazten zuen hilobietan ezin zela euskararik erabili. Hilarietan euskarazko hitzak agertuz gero, hilarriak ordezkatu behar zirela.

**Garai horretan, Hegoaldean, modu klandestinoan antolatzen hasi ziren ikastolak. Legalki borrokatu zituzten estatuek?**

Bai, euskal ikastolen aurkako neurriak onartu zituzten, isunak jarri zituzten eta ikastolarik ere itxi zuten. Euskara erabiltzen zela ezkatzen zen. 1960ko hamarkadako ikastolen ereduak ez zegoen eramaterik frankismoaren lege margetara, baina gizarteak horren alde egin zuen. Ikastolen sorreraren prozesua horren zabala eta orokortua izan zenez, erregimen frankistak ez zuen jakin nola kudeatu. Ikastolen sorrera mugimendu

hura intsumisio kolektiboaren adierazlea izan zen. Talka hori nola islatu zen? Eskola euskaraz eginez, eta horrela, araubide juridikoaren gainetik pasa zen gizartea.

**1975etik gaur egun arteko garaira etorrira. Iparraldean, geroz eta gehiago dira euskaraz ikasi nahi duten ikasleak, baina Frantziako Gobernuak jarraitzen du trabak jarritz.**

Frantziako Estatuan zutabe errepublikarrak mantentzen dira frantsesaren alde. Ematen du Frantzian ez dagoela aniztasunik, baina Frantzia Europako herririk anitzena da. Hala ere, Frantziako Estatuak ez da heltzen Europako giza eskubideen estandarretara, hizkuntza aniztasuna bermatze aldera. Europar Kontseiluan eta batez ere Hizkuntza Gutxituen Europako Kartan jasotzen dira bermatu beharreko gutxiengoak, eta Frantziako Estatuak azpitik dago. Ez da Europako bakarra, Grezia eta Turkia ere hor daude. Izan dira mugimendu batzuk hizkuntzaren afera demokratizatzeke, baina konstituzio kontseiluak beti adierazi izan du errepublikako hizkuntza frantsesa dela, eta beste hizkuntzen estatus juridikoa ezin dela frantsesaren mailara igo. Koofizialtasunetik urruti gaude. Molac Legearen harira 2021en konstituzio kontseiluak murgiltze sistema konstituzioaren kontratatzat jo du. Zabalkunde txiki bat ikusten da ideologia errepublikarrean, baina oraindik giza eskubideen Europako estandarretara ez da heltzen.

**Hego Euskal Herrian, Franco hil ostean, Konstituzioak jaso zuen – Hego Euskal Herrian gehiengoak ez zuen babestu- herritar guztiek**


#### **AMURRIOKO UDALA**

Juan Urrutia plaza z/g  
01470 Amurrio  
Tel.: 945 89 11 61  
Faxa: 945 89 16 45  
amurrio@amurrio.eus  
www.amurrio.eus



Egunez egun euskararekin konprometiturik





En la escuela no tengo que hablar vasco esaldia mila aldiz kopiatu behar izan zuen Lontxo Zubeldia bedaiotarrak 1966an eskola zigor moduan. Milaka euskaldunek pairatutako jazarpenaren froga eztabaideazina bilakatu da koadernoak. (Dani Blanco)

**dutela gaztelania ikasteko eskubidea eta obligazioa, baina bestelako hizkuntzak ikasteko orduan, hori eskubidea dela, baina ez obligazioa. Hor al dago gaur egungo zapalkuntza azaltzen duen gakoetako bat?**

Bai, hori da gaztelaniaren nagusitasuna oinarritzen duen parametro juridiko nagusia eta gaztelaniaren aldeko asimetria agerian uzten du. Gaztelania nahitaez jakin behar da. Nahitaeztakotasun horretatik abiatuta, epaile batek uler dezake: denek dugunez gaztelania ezagutzeko beharra, gaztelania libreki erabil dezake administrazioak. Gaztelaniak mugarik

## “Ikastolekin araubide juridikoaren gaitetik pasa zen gizartea”

ez du, baina halako betebeharrak ez zaie aplikatzen beste hizkuntzei, beraz koo-fizialak badira ere, ez dira gaztelaren ofizialtasunera heltzen; hots, euskararen ofizialtasunak muga juridiko gehiago du.

Konstituzio auzitegiaren azken jurisprudentzian, adibidez, bi hizkuntzen arteko orekaren printzipioa jarri da, neurri asimetriko normalizatzaileak blokeatuta: Katalana Kataluniako hizkuntza propioa dela oinarri hartuta, katalanari lehen-tasunezko erabilera bermatu nahi izan zaionean, Espainiako Konstituzio epaitegiak adierazi du ezin zaiola hizkuntza propio bati, nahiz eta ofiziala izan, lehen-tasunezko posizioa bermatu. Beraz, esan daiteke, marko konstituzional espainiarrak mugak ezartzen dizkiela gaztelania ez diren hizkuntzen ofizialtasunari, euskarari barne.





**“Euskararen defentsarako araubideak zuloak ditu eta erasoak etengabeak dira”**



**Nafarroaren zonifikazioarekin min handia egin zuten duela 40 urte. Nola ikusten duzu?**

Zalantza juridiko handiak sortzen dizkit zonifikazioak. Zonifikazioaren ondorioz, euskara erabat desagertu da Nafarroako hegoaldeko leku batzuetan. Espainiak Europako Hizkuntza Gutxituen Karta berretsi zuen, eta honek dio muga administratiboak ezin daitezkeela erabili hizkuntzen garapena mugatzeko. Beraz, zonifikazioa zilegi da Europako es-

tandarren arabera? Bai, baldin eta zonifikazioak ez badu euskararen aldeko korrontea mugatzen. Baina kasu honetan, zonifikazioa erabiltzen da euskara mugatzeko. Eta beraz, Kartarekin ez da bateragarria. Momentua da Nafarroako hizkuntzaren, euskararen, estatusa errebisatzeko eta hori amezoramentuaren errebisioari lotuta etorri beharko litzateke. Euskararen lege berri batek euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora zabal dezake. Euskararen normalizazioa

askoz errazagoa litzateke ofizialtasunetik abiatuta. Nafarroan euskararen ofizialtasuna lurralde osora hedatzea-ri buruz sortu behar litzateke debatea, giza eskubideen afera baita.

**Euskara ofizial den eremuetan ere, EAEz ari naiz, epaitegietan ikusten ari garen jarrerak hari historiko honetan kokatzen dituzu?**

Ikaragarria da euskararen aurka ematen ari diren epaiak. Azken epaietan iraku-

**Zumaia euskaraz bizitzeko da.**



rri dugu adibidez “euskara munduko hizkuntzarik zailenetakoa” dela eta euskara ezagutzea exijitzea gehiegizko zerbait dela. Hizkuntza eskakizunen sistema indarrean dago aspalditik, baina gaur egun magistratuek ez dute aplikatzen eta konstituzioaren berdintasun printzipioaren aurkako zerbait bezala hartzen dute. Erabat ideologikoak dira epai horiek, ez diote euskararen gaineko araubideari erreparatzen. Epai horien guztien atzean ideia politiko bat dago: uste dute euskararen normalizazioarekin urrunegi joan garela, beraz, epaileak euskararen aurrerabideak mugatzera datoz. Orain gutxi, Auzitegi Nagusiko presidente izandako Juan Luis Ibarrek publikoki adierazi zuen administrazio asko urrunegi joan direla euskararen normalizazioarekin. Epaile batek esan dezake erakunde batek legea ez duela bete edo halakorik, baina hortik harago ezin du joan.

**Agintariak eginiko oso adierazpen esplizituak daude dokumentatuta mugaren bi aldeetara. Bi bakarrik aipatzearen, “Euskal Herriko gure eskolek helburu dute euskara ordezkatzeko frantsesarekin” (1846), edo “Foruak kentzea ez da nahikoa, orain hizkuntza kendu behar diegu” (1876). 200 urte beranduago, Kataluniako haurrak espainolizatzeari buruz hitz egin zuen Jose Ignacio Wert hezkuntza ministroak. Ez da ohikoa, dena den, hain garbi hitz egitea agintariak. Formak aldatu arren, helburuak mantentzen dituztela esango zenuke?**

Ildo ideologiko bera aplikatzen da euskararen aurka, badago jarraikortasun historikoa. Nortasunaren adierazle na-

## “Euskararen aurkako azken erasoan aurrean, Jaurlearitzaren defentsa ahulegia iruditu zait, askoz gehiago egin zezakeen”



gusia da hizkuntza, eta estatuen ideologia zentralizatzaile eta uniformizatzaileekin ez dator bat. Espainian, gaur egun, euskararen erabilera eta hizkuntzaren garapena mugatu nahi duen korronte ideologikoa indar hartzen ari da. Euskal Herrian sumatzen dudaren kontrako norabidea da. Hemen jendeak naturalizatzen hartzen du funtzionario publikoa izateko euskaraz jakitea edo eskoletan euskarazko maila handia bermatu behar dela.

**Euskararena eta euskaldunena zapalkuntza baten historia da zalantzarik gabe, baina baita erresistentzia batena ere. Izan baitziren, etengabe, euskal administrazioen partetik eta herritarren partetik. Nola ikusten duzu gure erresistentzia?**

Euskara jauzi kualitatibo baten premian dago Hegoaldean eta Iparraldean. 40 urte daramatzagu aplikagarri ditugun legeekin. Epaileak frogatzen ari dira Nafarroan eta EAEn euskararen defentsarako araubideak zuloak dituela eta erasoak etengabeak dira. Euskararen

estatusarekin aurrera egin behar da eta estatus juridiko berria behar dugu. Nafarroako Vasceancearen legea Nafarroan eta EAeko Euskararen Legea aldatzeko garaia heldu da. Nik behetik gorako prozesuetan sinesten dut. Hegoaldean itun politiko berri bat, gizarte itun bat, egingarri ikusten dut, euskarari estatus juridiko berri bat emate aldera. Lehenasuna bermatu behar zaio eta trabak gainditzen lagundu, modu naturalean, euskaraz aritu ahal izateko testuinguru guztietan, izan kalean edo administrazioan. Inpresioa dut euskalgintza eta hizkuntza politika instituzionalaren arteko sinbiosi antzeko bat gertatzen ari den unean etorri dela epaileen erasoaldia. Kontua da administrazioak hizkuntza eskubideak bermatuz gero, euskararen erabilera normal bihurtzea erabat zilegi izan beharko litzatekeela. Gizarteak badu grina hori, baina horrek eskatzen du itun juridikoa.

**Eta gure agintariak nola ikusten dituzu oldarraldi honen aurrean?**

Euskararen aurkako erasoak hain bortitzak izanik, Jaurlearitzaren defentsa ahulegia iruditu zait, askoz gehiago egin zezakeen. Urrats kualitatiboak emateko garaia da, inolako konplexurik gabe. Euskarak lehenasunezko hizkuntza izateko aukerak zabaldu behar dira eta Jaurlearitzak hor gehiago egin behar luke. Hala ere, esan dut, gehiago sinesten dut behetik gorako prozesuetan. Hizkuntz eskakizunei buruzko dekretuarekin, adibidez, askoz urrunago joan gintezkeen parametro konstituzionaletan ere. Momentua da jauzi kualitatibo bat emateko. Euskara lehenasunezko hizkuntza bihurtu behar da administrazioan eta zenbait jardueretan. Hori da gure hizkuntzari zor zaion lekua. ●

- ✓ 305.000 biztanleko lurguneko euskalduna
- ✓ 101 udal

“Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berriekin amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira”.

Jon Maia Soria




**arnasa gara  
EUSKARAZ GARA**

## FEMINISMOA

# *Maitasun-harremanen piramidea hankaz gora jartzeko beharra*

Norberaren barne-barnetik agerturiko sentimendu sakon eta sana omen da maitasunarena. Esfera pribatuan eta intimoan zokoratu ohi ditugu maitasun-harremanak. Ordena hori aztertzeko, galdekatzeko, bestelakotzeko eta iraultzeko saiakeretan dabilta aspaldian feminismotik. Sistemak modelaturiko pentsamendua ere badelako maitasunarena, gurean erromantizatuta eta heteroaraututa duguna.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**H**arreman afektiboei eta zehazkiago gure jendartearen zutabe indartsua den bikoteari begira jarri ziren maiatzean, Paf! elkar-te feministak Baionan antolaturiko Loverdose festibalaren baitan. Sentimendu puru, eder, sakon eta sano gisa presentatu ohi den maitasuna desakralizatu eta bere alde kulturalaz eta politikoaz luze eta zabal aritzeko ariketa izan zen. Azkenean, bikotearen esparrua diskriminazioak eta zapalkuntzak bideratzeko esparru ere badelako. Barne-barnetik sorturiko sentimendu hori sistemak elikatuturiko eta akuilatuturiko osagaia ere badelako. "Bikotea sistema heteropatriar-

kalean: nola eta zerendako uztartzen dira menpekotasun-harreman ezberdinak?" galderari erantzun zioten EHUko antropologo Mari Luz Estebanek, Paris-ko unibertsitateko soziologo Celine Besièrek, kazetari Christelle Murhulak eta abokatu eta desgaitasuna duten pertsonen aldeko militante Elisa Rojasek; eta "Zein dira alternatibak gure harreman afektiboentzat bikote heteronormatibotik haratago/at?" galderari, berriz, kazetari eta bollera aktibista Irantzu Varelak, kazetari eta trans militante Tal Madestak eta post-porn aktibista eta ikerlari Rachele Borghik. Guziak dira feminismoan arituak eta adituak.

Guziek zuten nabarmendu bikotea jendartetik bereizi eta bakarrik horri begiratzeak dakarren zailtasuna, hain zuzen, biak direlako errotik lotuak, elkarren parte direlako, eta batuk bertzear behar duelako irauteko. "Maitasun pentsamendua" kontzeptua teorizatu du Estebanek justuki bikotezentrismoak eta horren erromantizazioak beraien baitan gordetzen dutena azaleratzeko: "Maitasunaren bidez ez dugu bakarrik arautzen zer nolako harremanak ditugun edo bikotearekin bizi garen, baizik eta nola bizi garen, bizia nola antolatzen dugun, lana nola antolatzen dugun... gizartearen egitura guziak hortik abiatzen direlako".



**NANTÉNÉ TRAORÉ**ren argazkia.  
Maitasun-harreman queer-ak  
argazkitan hartzen dabilen artista.

2011n Bellaterra argialetxearekin plazaratu zuen *Critica del pensamiento amoroso* ("Maitasun pentsamenduaren kritika") liburuan honela definitzen du maitasun pentsamendua: "Maitasunaren inguruan eratuko liratekeen sinbolo, nozio eta teoriaren multzo artikulatua, zeinak gizarte espazio guziaz iragaziko lituzkeen, instituzionalak barne, jendearen jardunetan eragin zuzena izanik, eta genero, klase eta etnia harreman ezberdintzaileak eta desioa, identitatea eta subjektua ulertzeko modu zehatza eta heterozuzena egituratuz". Maitasunaz hitz egiterakoan, sistema bere osotasunean hartzeko beharra azpimarratzen du Bessièrek ere, "maitasun-harremanen izaera ez dugulako bestelakotuko jendartearen antolaketa transformatu gabe". Nola ez, maitasun erromantikoa heteroarauarekin doa eskuz esku -guzia egituratzen duen pentsamendua, hori ere-. Genero antolaketaz gain, klase sozialaren, etniaren eta gaitasunaren araberako banaketa sozialei begiratzeko gero, argi geratzen dira jendarte-bereizkeriak bideratzen dituen espazioa dela maitasuna, eta bikotezentrismoa beharrezkoa duela sistemak.

### "GUZIOK EZ DUGU BERDIN ESKURAGARRI MAITASUNA"

"Kapazitismoa da pertsona elbarrituok jasaten dugun zapalkuntza, jendarte antolatzen dutelako pertsona 'gaituek' pertsona 'gaituentzat'. Botere-harreman batean gaude eta pertsona 'ezgaituok' gehiengo handian baztertuak gara". Zapalkuntza horren kontrako militantea da Rojas, eta dioenez, maitasun afektibosexualen esparrua ez da kapazitismotik aparte: "Pertsona ezgaituok, -are gehiago emakume ezgaituok-, hastapenetik ditugu maitasunera heltzeko hamaika traba. Guziok ez dugu berdinean eskuraga-

rri maitasuna". Hasteko, maitasun erromantikoak bideratu desira hegemonikoari segi, gorputz ezgaitu bat ez delako maitagarria: "Harremanen merkatuan dugun sailkapena izugarriki txarra da; iruditegiari segi, ez garelako ama onak, ezin gaituztelako garaikur gisa plazaratu, ez garelako desiragarriak...". Iruditegi horrek pertsona ezgaituei eragiten diela dio, "autogutiespen" dinamikaren espiraletan sartuak direlako gehiegitan: "Guhaurk irudi okertua daukagu geure buruaz; alde guzietatik daukagun iruditegiak eragiten digu. Funtsean, pertsona elbarrituak ia inoiz ez dira bikotean irudikatzen". Zentzu berera doa, "bikotearentzako zama izatearen ustearen eragina".

Eta nahiz eta guzi horri muzin egin, dena dela, "sozializatorako espaziorako irisgarritasun eza" dute parean. Bakartze bortitz hori ez dute arindu teknologia berriek, nahiz eta batzuk aurkakoa uste ukan: "Botere-harremanak errepikatzen dira jendeak ezagutzeko aplikazioetan eta indarkeria anitz topatu dezakegu".

Murhularen lehentasunetan ere da ohartaraztea zapalkuntza-sistemek zeharkaturiko eta bideraturiko esparrua dela maitasunarena. 2022an plazaraturiko *Amours silencieés. Repenser la révolution romantique depuis les marges* ("Isilduriko maitasunak. Iraultza erromantikoa birpentsatu ertzetatik") liburuan ondokoa idazten du: "Maitasuna merkatu bat da, 'fisiko onaren' pribilegiotik edota kokapen sozial egokitik urrunago izan eta are gutxiago desiratua izango zara. Ados, nozio horrek ez lituzke gure gogo eta ideiak estrukturatu beharko. Alta, maitasun harremanen hasiera anitzetan kausitzen ditugu. Emakumeok ez dugu modu berean eskuragarri desioa, eta arrazializatuak bigarren



mailan gaude, are gehiago erakarpen sexual soilaz haratago begiratzekoan".

Murhularen ustez, begirada interseksionala eskas zaio esparru horri begiratzeko dion irakurketa politiko feministari: "Maitasun harremanetan diren dominazioei begiratzekoan patriarkatuaren aurkako borroka hartzen du leku nagusia, eta beste zapalkuntza-sistemak planteatzeko lekurik ez dago. Ideia horren harira, Brigitte Vasalloren ideia bat dakar Estebanek: monogamiari begira planteatuak izan daitezkeen alternatibei begira ere guziak ez gaudela berdinean kokatuak. "Polimaitasunaz anitz hitz egiten dugu, baina zergatik kritiko gara poligamiaz? Etnozentrismo eta arrazismo asko dago beste kulturetan diren alternatibei pentsatzeko orduan".

Moya Bailey ikerlari afroamerikarrak 2008an teorizaturiko *misogynoir* edo misoginobeltz kontzeptuak bikote harremanei begiratzeko ere balio duela dio



Herriko plaza 8  
20577 Antzuola  
Tel.: 943 766 246  
Faxa: 943 787 100  
udala@antzuola.eus  
[www.antzuola.com](http://www.antzuola.com)

**ANTZUOLA eta BERGARAKO**  
udaletan euskaraz lanean

Udal barruko eta  
kanpoko harremanak  
euskaraz bideratzea da gure helburua



San Martin Agirre Plaza  
20570 Bergara  
Tel.: 943 779 100  
euskara@bergara.eus  
[www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)

Irantzu Varela



MYRIAM BOYE



Elisa Rojas

SABINA HOURCADE

Murhulak. Emakume beltzei mugatzen den diskriminazio multzoa izendatzeko terminoa da, hain zuzen, patriarkatua eta arrazakeria batzen dituen begirada baztertzailea delako. Murhulak argi du: "Erroturiko usteen artean dago emakume beltzontzat maitasuna ez dela existitzen, ez zaigula eskuragarri, azkenean, emakume zurientzat delako". Frantziako Estatuan unibertsalismoak pisu anitz du eta horren arabera, emakumea "zurria, zis-a, heterosexuala, klase ertain-altukoa eta argala" delako.

Bere aldetik, bikote heterosexualen baitan diren ezberdintasun ekonomikoak begiratzen die Bessièrek, eta gehiago jakin nahi izanez gero *Le genre du capital. Comment la famille reproduit les inégalités* ("Kapitalaren generoa; familiak nola birproduzitzen dituen desberdintasunak") liburua idatzi zuen 2020an, Sibylle Gollac lankidearekin.

Ondoko datuak dituzte esku artean:

gizon eta emakumeen arteko diru sartearen aldea %25koa bada Frantziako Estatuan, bikote heterosexualen baitakoa, ordea, %42koa da. Nolaz?

Erreproduzio-lanen banaketarengatik: bi herenak emakumeak eginda-koak dira -jakinik lan hori ez dela ordaindua-. Horrez gain, elkarbizitzako gastuak erdi-erdi ordaindu behar-rean bi soziologoek ikerketek erakusten digute emakumeek diru gehiago bideratzen dutela osasun-gastuei, umeen beharrei ala bestelako zaintzei. Hori horrela, diru-sarrera ttipiagoak eta gastu handiagoak izanik, gutiago aurreztu dezakete emakumeek. Banatzen direlarik

begibistakoa zaie ezberdintasun bortitz hori: %23az pobretzen dira emakumeak eta %3az gizonak -gizonen herena aberasten da!-. Ondareen jabetzan ere


desberdintasunak gora doaz (jabetza partekatua bermatzen du ezkontzak, baina gutituz doazenez eta gehiago dibortziatzen denez, bikotearen baitako arrakala garatuz doaz): %9tik %16ra pasa da 1998tik 2015era arrakala.

"Bikote heterosexuala lan espazio bat da emakumeentzat. Dimentsio ekonomiko horrek garrantzia handia du. Hori horrela

izanen deino bikotea ez da askatzailea izanen eta sexu-iraultzarik ez da gertatuko", Madestaren ustez. Bikotea bortiz-

“Pertsona ezgaituok, are gehiago emakume ezgaituok, hastapenetik ditugu maitasunera heltzeko hamaika traba”

Elisa Rojas



**BERTATIK BERTARA**  
Gure herria, gure hizkuntza, gure arnasa



[www.oartzun.eu](http://www.oartzun.eu)



Mari Luz Esteban



SABINA HOURCADE

Christelle Murhula



SABINA HOURCADE

keria handiko espazioa izan daitekeela oroitarazi beharra dago: "Maitasunaz eta bikote eredu ezin dugu solastatu guzia ongi joango balitz bezala. 'Maitasunaren izenean' bideraturiko indarkeriak daude, egoera batzuk hilgarriki arriskutsuak dira", Bessièreren hitzetan. Madestak ere bere amaren adibide konkretua du buruan, bizi osoa gizon bortitz baten ondoan pasatzea: "Argumentu ekonomikoa instrumentalizatzen dute gizon bortitzek, emakumea ondoan mantentzeko asmoz. Espazio oso anbigua da, indarkeriaz gain, ekonomikoki baliabideak ere ekarri ditza keelako eta ez da guzietan emana bertatik alde egitearena".

Baina zapalkuntza eta diskriminazio horiek guziak gorderik atxiki ohi dira. Sentimendurik puruena eta gorena delako maitasuna, barrubarrutik sorturikoa, betetzen gaituena eta bikotea topatuz gero "ongizate" hori bizitzea, eta hala ez bada, performatzea delako bidea. Hainbeste non eta bikoterik ez duen pertsona "gabezia" batean irudikatua den. Zergatik? Maitasun erromantikoaren pisuagatik. Sistema heterozispatriarkal eta kapitalistak ezinbestekoa du mito hori; guzia bideraturik du horretara, Estebanen hitzetan "siste-

maren argamasa delako maitasunaren pentsamendua".

Bikote eredu hegemonikoaren iruditegian agertu ez arren, maitasun erromantikoak osaturiko ideala lortu nahian egon izana aitortzen dute Murhulak zein Rojasek ere; azkenean, fikzio erromantikoz saturatuak garelako eta eragiten digulako guzietan, baita iruditegi horretan ia inoiz agertzen ez direnei ere.

Paris inguruko *banlieue* edo hiri inguruko auzo popularrakoa den Murhulak kontatzen du nola erromantizazioari segi, liburu, film edo serietan bikotearekilako lehen hitzorduak kafetegi politetan eman ohi diren, baina beren errealitatean horrelako leku erromantikorik ez dutela eta kebab edo MacDonald's-ak izan ohi dituztela lehen topaleku.

Hots, mendebaldetarron erromantizazioa ez dela denon errealitatea. Hain da sistema kapazitista eta arrazista –eta beraz, gaitua eta zuria– eta hain da maitasun pentsamendua guziaren argamasa, non bikotean izatea normalizaziorako pauso gisa ere ikusia izan daitekeen." Bikotea norma izanik, bikotean izatea normalizatzailerik ere da, ertzetatik urruntzeko balio digu. Pausatu beharreko galdera hori da: zergatik

nahi dugu bikotean izan? Ordena sozialetik at kokaturiko desira pertsonal bat da edo baloratzen gaituen zeozer erreproduzitu nahi dugu?", Rojasek hitzetan. Maitasunari buruzko bere bizipenak eta gogoetak biltzen dituen *Mister T et moi* ("Mister T eta ni neu") eleberrian modu eskuragarrian kontatzen du maitasun erromantikoaren eragin kaltegarria.

### MAITASUN-HARREMANEN PIRAMIDEA APURTZEKO BEHARRA

Pentsamendu monogamoa dugu antolaketaren horren ezinbesteko zutabeetariko bat. Brigitte Vasallo idazle eta kazetariaren ekarpenak garrantzitsutzat ditu Estebanek. Ohartarazten digunari segi, "monogamiak gure gizartea antolatzen du, eta azpimarratzen du monogamiaren ideia zentralena ez dela eksklusibotasuna, baizik eta hierarkia, bikotea edozein harremanen gainetik ezarrita baitago. Monogamiak piramidea ezarri egiten du". Are gehiago, pentsamendu erromantikoa horrek maitasuna jartzen du elkartzasuna, justizia ala bestelako balio garrantzitsuen gainetik eta hor ere hierarkizazio arriskutsu bat osatzen du. Maitasun-harremanen piramidea apurtzea ezinbestekoa da, bikotearen –eta horren inguruan eraikitako familia nuklearraren– zentralitatea irauli eta bestelako maitasun-harremani eta balioei merezi duten lekua bideratzeko, eta hortik bestelako elkarbizitza batzuk garatu ahal izateko.

Bizikidetzari bestelako begirada bate-tatik so egiteko beharra azpimarratzen

“Monogamiaren ideia zentralena ez da eksklusibotasuna, baizik eta hierarkia. Bikotea edozein harremanen gainetik ezarrita dago”

Mari Luz Esteban



Rachele Borghi



MYRIAM BOYE

Celine Bessi re



SABINA HOURCADE

du Estebanek: "Gaur egungo alternatiba batzuk ez daude maitasunaren inguruan eraikiak eta interesgarriak dira. Maitasunetik at pentsatu behar ditugu bai bikotea, bai bizikidetzeta, bai elkartasuna. Hori delako, hain justu, gure tranpa: taldea sortzeko maitatu behar dugula jendea. Pentsatu dezagun maitasuna ez dela elementu nagusia, sartu ditzagun beste osagai batzuk eraikitze horretan, eta gero ikusiko dugu zer egin maitasunaz". Zentzu horretan enpatia interesgarria zaio, hori delarik gizakiak beste pertsona baten tokian jartzeko edota sentitzen duena antzemateko ahalmena. Besteen beharrianak, sentimenduak eta arazoak ulertzeko eta beraiei erreakzio emozionalei egoki erantzuteko gaitasuna da. Enpatia harremanetarako eta bizikidetzarako "munta" handia ukanik,

landu eta garatu beharreko osagaia dela dio Estebanek. Borghik aipaturiko *Zaintzaren manifestua* (The Care Collective taldeak idatzitakoa) izan daiteke zentzu horretara doan proposamen bat.

Bizikidetzeta hori monogamiaren pentsamendutik at eraikitze bidean, enpatiaz gain kolektiboak duen garrantzia azpimarratzen du bere aldeetik Varelak. "Alternatiba indibidualik ez dagoelako". Silvia Federiciren ekarpenak oinarri harturik, oroitarazten du kapitalismoaren, monogamiaren eta indibidualismoaren arteko lotura. "Modu kolektiboan pentsatu behar dugu bizitzan; kapitalismoak esaten digu modu indibidualean bizi behar dugula, baina indibidualismoak pobretu egiten du bizitza. Bakarrik zaudenean errazago garaitzen zaituzte; zeure bizitza bestee-

narekin lotuta dagoenean has zaitezke mundua aldatzen", Federiciren erranetan. Kolektiboki aritzea, ordea, "mundua berriz liluratzeta" dela dio.

Madestak ere bat egiten du bikotea erdigunetik kentzeko ideiarekin; funtsean, hori da bere *D sirer   tout prix* ("Desiratu, bai ala bai") liburuan sakondurikoa. Trans identitate politikitik mintzo dela, "familia aukeratuaren" indarra azpimarratzen du: "Transok etxetik kanpo ezarriak garenean, beste familia bat atzeman beharrean gaude, hori edo isolamendua delako, hori edo heriotza, hori edo marjinazioa. Baztertua izateak behartzen zaitu kontakizun berrietara, bide berrietara eramaten zaitu. Bikoteaz, maitasunaz ala dena delakoaz gogoetatzeko espazioak dira ertzak". Transen artean suizidio saiakera tasa

A banner for ELA Euskal Sindikatua. On the left, there is a stylized graphic of a raised fist in shades of teal and pink. The main text in large, bold, teal letters reads "BORROKAN, IRABAZTEKO". Below it, in white, is "GARAIPEN BAT LAU EGUNIK BEHIN". On the right, there is a QR code and the ELA logo with "EUSKAL SINDIKATUA" underneath.

%40koa dela gogorarazten du, bestelako maitasun-harremanen garrantziaz ohartarazteko: "Ez dakit laguntasuna iraultzailea den, baina biziak salbatzen ditu".

Harremanen piramidea iraultzearen parte da bikote eredu alternatiboak asmatzea. Gogoetak, saiakerak eta proposamenak badaude eta berriak ere izanzen dira. Aspaldian dabilzalako feministak eta bollerak bide berriak irekitzen. "Heterosexualitatea erregimen politikoa izanik, hori teorizatu zuten Monique Wittigek edota Adrienne Richek, adibidez, horri begirako modelo alternatiboak bazterretatik planteatzea ez da harrigarria". Pentsamendu heteroarautuan ez direlako kabitzen -eta ez dutelako kabitu nahi-: "Ez dugu koadro zikin horretan egon nahi, bizigarria izan den bestelako mundu bat nahi dugu, utopia bat", Borghiren hitzetan.

### BIKOTEARI ESKATZEN ZAIONA ESKURAEZINA DA

Bikote eredu alternatiboei gogoetatzeko orduan ondokoa proposatzen du Varelak: bikotetik guziaz itxoin beharrean, harreman ezberdinen artean banatzea. "Maitasun erromantikoak, bere horretan dauka akatsa, pertsona berari eskatzen dizkiogulako bost betekizun: sexua, elkarbizitza, pasioa, aisialdirako konpainia eta biziko logistikan parte hartzea. Horrek ez dauka itxura onik. Hori deseraiki beharra dugu, osagaiak bereizi eta pertsona ezberdinetatik espero behar ditugu". Guziaz pertsona bakarraren gain jartzea indibidualista izateaz gain, kapitalista eta patriarkala dela gehitzen du. Horregatik ere zaio subertsiboa eskakizun horiei kolektiboki erantzutearena.

Estebanek, bere aldetik, oroitarazten ditu William Jankowiak antropologoak

piramidearen puntaren puntan den pasiozko maitasuna definitzeko zerrendatzen dituen lau osagaiak: idealizazioa, erotizazioa, intimitaterako nahia eta irauteko gogoia. Uste du Jankowiak proposatzen dituen lau aldagai horiek edozein harreman afektibotan topatu daitezkeela, eta betaurreko horiekin begiratu behar zaiela harreman ezberdinei -nahiz eta lagunak edo senidea erotizatzeke ezintasuna sentitu, ariketa egiteak harremanen piramidea galdekatzera garamatzala dio-: "Nire proposamena litzateke definizio eta osagai berak baliatzea edozein harreman kalifikatzeko, maitatzeko aukera guziaz horizontalizatu eta bikote-harremanaren supremazia neutralizatze aldera" (*Maitasuna erdigunetik kanpo. Maitasun-ideologia arrozteko dekalogo*a (2019)). Nonbait, erromantizismoa hobeto erregulatzeke.

### IRUDITEGI BERRI BATEN BEHARRA

Iruditegi berrien beharra aldarrikatzen du Borchik, bi idazki esanguratsu dituela esku artean: "Samurtasun erradikalaren manifestua" (*The Radical Tenderness Manifesto* (2015)) eta "Maitasun queer-en manifestua" (*Manifesto de los Amores Queer* (2010)). Zentzu horretan, post-porn esparruak bideak eta begiak ireki zizkiola dio: "Gorputzak eta fluidoak partekatzea normalki partekatu ezin diren horiekin... horrek paradigmen aldaketa ahalbidetzen digu. Aitortzen dut ez dudala inoiz lagunekin

horrelakorik partekatu, baina, egin ahal dezakedala jakiteak laguntzen nau bestelako begirada bat garatzen".

Baina iruditegi berriak eta alternatibak nola babestu ditzakegu guziaz berreskuratzeko eta bere aldera eramateko gaitasuna duen kapitalismotik? Galdera hori ere luzatu zitzaizen hizlariari. Indarrak errekupezioa saihestera bideratzeko ordez, agenda politikoaren kontrolean jarri behar direla uste du Varelak: ez dezala kapitalismoak erabaki borroka hori nola, noiz eta non eraman.

“Pertsona berari eskatzen dizkiogu sexua, pasioa, elkarbizitza, aisialdia eta logistikan partehartzea. Ezinezkoa da, hori deseraiki behar dugu”

Irantzu Varela

Kapitalismoaren errekupezioaren bezainbat faxismoarenean ikusten du arriskua Madedastak. "Neoliberalismoaren piezaren bi aldeak dira kapitalismoa eta faxismoa edo mugimendu errekupezioarioa". Frantziako Estatuari begira dagoela, argi dauka trans identitateari buruzko agenda politikoa aurkakoei dutela bideratzen.

"Ahotsa lapurtua zaigu, lehen pertsonen ahotsa lapurtzeko joera dute kapitalismoak eta faxismoak". Lanabes gisa, Costanza Spinak ekainean plazaraturiko *Manifeste pour une démocratie déviante. Amours queers face au fascisme* ("Demokrazia desbideratu baten aldeko manifestua. Maitasun queer-ak faxismoaren aurka") saiakera gomendatzen du. Borgik erradikalatasuna begibistatik ez galtzeko garrantzia azpimarratzen du: "Alternatibak errekupejatuz gero, berriak asmatuko ditugu. Bai, nekagarria da borroka, eta justuki, horregatik dira inportanteak kolektiboa eta plazerra". ●





Hemengoak  
izatea ona da

# Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta bertako produktuen  
kontsumoa sustatzen dugu



**EROSKI**

*zurekin*

# ALKOHOLA

## *Oharkabean pasatzen den droga*

Zer da droga eta zer ez? Zer-nolako eragina dauka drogak inguruan? Horren bueltan mintzatu dira Oihana Arana (Eskoriatza, Gipuzkoa, 2001), Maialen Alvarez (Ermua, Bizkaia, 1994) eta Ander Sagardoy (Iruñea, 1994). Drogarik kontsumitu ez arren, drogak inguratzen ditu; batez ere alkoholak. Salatu dute alkoholaren erabilera “oso zabalduta” eta “normalizatuta” dagoela; hala nola familian, herri mugimenduan eta aisialdian. Beste alternatibak sortzeko beharra adierazi dute.

 OLAI A L. GARAIALDE  PAULA ESTÉVEZ  EKAITZ ZILARMENDI





**Drogaz hitz egiten duzuenean zeri egiten diozue erreferentzia?****Zer da droga eta zer ez?**

**Oihana Arana:** Gorputzean edo jokatzeke moduan alterazio bat eragiten duen edozein substantzia. Askotan drogaz hitz egiten dugunean ematen du alkohola ez dugula sartzen, baina nik sartzen dut. Inklusio azukrea ere sar daiteke. Ez dut hartzen azukrea ez den drogarik, eta nabaritzen dut azukre asko jaten dudanean alterazio hori.

**Maialen Alvarez:** Jendeak ere kafea sartzen du definizio horretan. Nire kasuan, ez dut kaferik hartzen, baina sartu daiteke definizioan gorputzean eragiten duelako. Hala ere, nik sartzen ditut legezkoak eta legez kanpokoak direnak.

**Ander Sagardoy:** Ados nago esan duzuenarekin, baina niri gertatu zait esaten dudanean ez ditudala drogak kontsumitzen hor hasten garela droga definitzen, eta sumatzen dut askotan azukrea edo bestelako gauzak aipatzen direla drogaren kontzeptua lausotzeko. Horregatik, azken urteetan esaten dudana da sistema nerbioan inpaktu zuzena izateaz gain, inpaktu soziala eta emozionala duela eta munduarekiko dugun harremanean eragina duela. Beti ere, gure gizartean; hau da, garaikidea eta kapitalista.

**O. Arana:** Nahiz eta drogak adabakia izan, kapitalismoak funtzionatzea lorzen du.

**M. Alvarez:** Hor sartzen dira errezeta-rekin doazen drogak. Azkenean sistema jartzen den adabakia da funtzionatzen jarraitzeko edo produktiboak izaten jarraitzeko.

**Zer suposatzen du drogarik ez kontsumitzea erabakitzeak?**

**O. Arana:** Inguruko jendea edaten hasi zenean ume super karratua, zorrortza eta autoexijentea nintzen. Niretzat goizegi hasi zirela pentsatzen nuen, gero, egoera luzatuz joan zen eta azkenean ez nintzen horretan sartu. Bertso munduan askotan eskaintzen didate alkohola, eta esaten didate: "Zelan izango zara bertsolaria ez baduzu edaten?". Edo poesia errezital batean ura eskatu nuenean esan zidaten: "Nola idazten duzu ez bazara drogatzen?". Barkatu? Oso normalizatuta dago alkoholaren kontsumoa. Nik hasieratik esaten dut ez dudala edaten, behin eta berriz ez esan behar izateko.

**M. Alvarez:** Gainera, arrazoi bat izan

behar dugu ez edateko, beti galdetzen dutelako motiboa. Hau da, antibiotikoak hartzen ari zarela edo beste zer-bait.

**O. Arana:** Eta hasiko bagina galdetzen, zuk zer dela-eta edaten duzun?

**M. Alvarez:** Batzuk oso astunak dira, baina beste batzuek onartzen didate ulertzen dutela esaten dudana, baina haiek ezin dutela egin, behar dutelako asteburua heltzea desinhibitzeko eta ondo pasatzeko, bestela ez dutelako aguantatzen bizitzaren erritmoa.



**“Izorratuta gaudenean mina arindu eta produzitzen jarraitzeko sistema kapitalista bat dago. Kontua ez da batek edo bestek edatea; kontua da ez dugula gertatzen dena arazotzat hartzen”**

Oihana Arana

**Drogarik ez kontsumitzea identitatearen parte bihurtzen da?**

**O. Arana:** Pixka bat bai, adibidez, liburu batean abstemia den norbait agertzen denean lagunek pasarte horren argazkia bidaltzen didate nirekin gogoratzen direlako. Pentsa alderantziz egingo bagenu. Ikusi dut jendeak ez dakiela nola jokatu, pixka bat da amari *bollera* zarela esatea bezala.

**M. Alvarez:** Irakurri nuen behin batek esan zuela irten behar izan zuela armairutik *bollera* gisa eta gero abstemia gisa.

**O. Arana:** Uste dut atera naizela gehiagotan abstemia moduan armairutik *bollera* moduan baino. Jendeak ulertzen du *bollera* izango zarela betiko, baina abstemia betiko izango zarela ulertzea kostatzen da.

**Zein da drogekin, zeharka bada ere, daukazuen lehenengo oroitzapena?**

**A. Sagardoy:** Kontaktua zuzena da jaiotzatik, oso normalizatuta dagoelako alkohola leku guztietan: familian, kaleari... Guztiz transbertsala da.

**M. Alvarez:** Horren aldeko kultura existitzen da, eta uste dut jada ez dela legala, baina lehen saltzen ziren txokolatzeko zigarroak goxoki dendetan. Gainera, alkoholaren kulturak dena normalizatzen du. Horrez gain, erretzea erromantizatu egiten da, super guai, sexya eta interesgarria den irudia du erretzeak.

**O. Arana:** Iruditeria horrek sinbolikoki eragina dauka; adibidez, gertatu izan zait urarekin topa egin nahi izatea eta esatea: "Ez, ez, horrek zorte txarra ematen du".

**M. Alvarez:** Urtebetetze baterako Champín erosi genuen, eta atzeko aldean txikientzako mezutxo bat jartzen zuen: "Nagusiekin topa egin ahal izateko". Horrek esan nahi du txiki-txikitatik hor dagoela.

**A. Sagardoy:** Badirudi droga hori kontsumitu behar duzula festan edo giroan egoteko. Poteak edo txupitoak ateratzen dituztenean pixka bat bazter geratzen zara.

**Noiz edan zenuten lehenengo aldiz alkohola?**

**O. Arana:** Nire lehenengo oroitzapena da parke batean litroak egiten. Uste dut inauteriak zirela, igual hamahiru edo hamalau urterekin. Erritual osoa egin behar zen: norbaitek erostea lortu behar zuen, gero ezkutatzeko, ondoren joateko ez dakit nora eta nahasteko ez dakit zerekin, bakoitza bere botilarekin parkera jaisteko. Dena egin nuen, baina ondoan, edan gabe.

**A. Sagardoy:** Antzeko gogoratzen dut, DBHko lehenengo edo bigarren mailan; Txantreako [Iruñea] jaiak edo beste auzo bateko jaiak izanzen ziren. Alkohola zegoen bereziki, eta gogoan dut joan ginela supermerkatuetako atetara jendea eskatzera alkohola guri erosteko. Orain aztertuta, jende pila batek erosten zigun, eta hamahiru edo hamalau urteko umeak ginen. Bestetik ere, tabakoa erretzen hasten zirenak guaiak ziren. Errepikatzaileen irudia adibidez, oso lotuta zegoen tabakoari.

**M. Alvarez:** DBHn ohikoa zen asteburuan edatea eta guaiak aste tartez erretzea. Gainera, boterea ematen du. Uste dut nire lehenengo litroak Ibilaldi batean izan zirela, eta errituala errepikatzen zen. Askotan Elgoibarrera [Gipuzkoa] joaten ginen, eta gauez egiten zen parranda arratsaldean erreproduzitzen genuen. Oso fuertea da, mozkor geunden eta umeak ginen.



## Oihana Arana

Bertsolaria, idazlea eta mugimendu feministako eta kulturgintzako militantea da. Ez du inoiz drogarik hartu: "Beti izan naiz edaten ez duena, eta ez naizenez inoiz drogatu, ez naiz inoiz hasi eta ez dut inoiz utzi. Hasieran ez zen erabaki kontzientea izan eta urteekin egin dudana irakurketa aldatuz joan da".

## Ander Sagardoy

Gazte mugimenduan hasi zen militatzen, ostean guneez autogestionatuetan eta mugimendu autonomoetan ibili zen; hala nola lurraren defentsaren alde eta drogen aurka militatzen. Gaur egun, batez ere antiespezismoan hartzen du parte eta filosofia irakaslea da: "Drogak hartzen nituen, baina hautu politiko batengatik utzi nituen; nire bizitza aldatzen joan da, eta horren arabera toki batean edo bestean kokatu naiz: Straight edge, drogen aurkakoa, drogarik gabe...".



## Maialen Alvarez

Gizarte hezitzailea, mugimendu feministako eta antiespezistako militantea da, eta hautu politiko batengatik utzi zituen drogak. Nonbait kokatzeko beharra sentitu arren, kosta egiten zaio etiketa batekin edo bestearekin eroso sentitzea: "Ez naiz inoiz Straight edge mugimenduan kokatu, baina hortik hasi nintzen. Pentsatu nuen abstemia nintzela, baina urtean bitan edaten dudanez ezin dut etiketa hori hartu, oso karratua delako. Orduan, esaten hasi nintzen 'abstemia, baina gaizki' nintzela; hala ere, ez dauka zentzurik".



### Oihana, edaten ez zenuelako parranda espazioetatik kanpo geratzen zinen?

**O. Arana:** Joaten nintzen, baina uste dut espazio horietatik urrundu naizela egokitu zaidanagatik; batez ere *txungazoe*kin. Oso gaizki zeudenean niregana etortzen ziren. Zelan ez naiz traumatizatuko horrela. Azkenean, norengan jarriko duzu zaintzeko ardura? Mozkor ez dagoenarengan. Normala da.

**A. Sagardoy:** Normalizatuta dago, baina ez da bidezkoa.

### Mozkortu aurretik eskatzen al dizuete gehiegi edanez gero zaintzeko?

**M. Alvarez:** Ez da aurreikusten *txungazo* bat izango duzula. Batzuetan sari moduko bat izaten da parranda ederra egitea, oso aste gogorra izan duzulako edo azterketak amaitu direlako. Igual ez duzu aurreikusten kristoren aitzurra hartuko duzula, baina bide horretatik zoaz.

### Uste duzue sozializatzen laguntzeko tresna gisa erabiltzen dela?

**A. Sagardoy:** Emozioak kudeatzeko erabiltzen da, edan eta ahazteko. Horren ondorioz, normalizatzen dugu arazo bat dugunean edo zerbait ospatu nahi dugunean emozioak bideratzeko droga kontsumitu behar dela. Gainera, jai giroa ulertzen dugunez ligatzeko leku bat dela, tamalez alkohola ezin besteko bihurtzen da, lotsa galtzen duzulako eta ausartagoa zarelako. Tragoetara gonbidatzea ere ligatzeko erritualaren parte da.

**M. Alvarez:** Kostatzen zait horrelako espazioetan egotea, helden delako momentu bat zeinetan denak oso mozkor dauden eta ni ez. Espazio horietatik aldentzen bagara, galtzen ditugu sozia-



## STRAIGHT EDGE

Straight Edge (iskina zuzena euskaraz) terminoa 1980.

urtean egin zen ezagun Washingtonen Minor Threat punk taldearen bidez. Talde estatubatuarraren xedea zen drogek eragiten zuten kaltea ikusaraztea. Gutxika drogek gogor kolpatzen zituzten langile auzoetan zabaltzen hasi zen mezua eta drogaren menpekotasunaren eta dekadentziaren aurkako mugimendu bat sortu zen. Mugimenduak XXX ikurra erabiltzen hasi zen: ez alkoholik, ez tabakorik, ez droga ilegalik.

lizatzeko eta ligatzeko momentu pila bat. Gainera, orokorrean ligatzeko aukerak parranda edo Tinder dira.

Esan duzu oso tarteka edaten duzula, presio sozialak eraginik dauka horretan?

**M. Alvarez:** Bai, batzuetan presio soziala oso agerikoa ez izan arren, edaten dut ez sentitzeko hain ezberdina edo badakidalako sozializatzen "lagunduko" didala. Baina xedea ez da mozkortzea, xedea bizirautea da. Gainera, zerbait behar dut eskuetan, adibidez ur botila bat.

**A. Sagardoy:** Niri gertatu izan zait desberdin sentitzen naizela eskuan baso bat ur dudalako.

### Alkoholaren kontsumoaren eta maskulinitatearen artean harreman handia dago?

**M. Alvarez:** Parrandan ateratzean behin baino gehiagotan gertatu izan zait ez edatea eta gizonek behin eta berri-berri esatea edateko pixka bat, batengatik ez delako deus gertatzen, edo saiatzea gonbidatzen. Baina ez da ez; utzi bakean.

**A. Sagardoy:** Nire inguruko gizonen artean ez dagoenez tresnarik, emozioak kudeatzeko bidea mozkortzea da. Tontakeria dirudi, baina gure kulturaren saldu digute tabernaria terapeuta modukoa dela, eta horrek harreman zuzena dauka maskulinitatearekin.

### Segun eta nork kontsumitzen duen zamak eta ardurak aldatzen dira?

**M. Alvarez:** Zis-gizonekin aitzakia moduan erabiltzen da erasoei garrantzia kentzeko, esaten dutelako mozkor zeudela. Gizon ez direnekin aldiz, kontrako egiten da, gure kasuan erruduntasuna eta lotsa eragiten ditu, eta erasoak bilatu dugula leporatzen zaigu.

## USURBIL MUSEO IREKIA

**Usurbilgo kale eta hormetako ondarea ezagutu nahi duzu?**

Uda honetan, astebururo, bisita gidatuak!



[650usurbilbizi.eus/agenda](http://650usurbilbizi.eus/agenda)

*Beste mundu bat posible da!*

650  
USURBIL  
bizi





**O. Arana:** Gainera ez da berdín hartzen gizon edo emakume alkoholikoa bazara. Lehena normalizatzen da eta bigarrena zigortzen da.

**Aipatu dituzuen dinamikak, hala nola erritualak, emozioen kudeaketa eta sozializatzeko duen eragina, fikzioaren bidez ere erreproduzitzen dira?**

**A. Sagardoy:** Gazteen artean ranking moduko bat sortzen da ikusteko nork edaten duen eta nork ez. Azken urteetan, *Élite* eta *Narcos* bezalako telesailen pila bat banalizatu dute biolentzia eta zabaldu dute drogak tontakeria bat direla eta kontsumitu eta saldu ditzakezula arazorik gabe. Trapa eta horrelako musikarekin ere drogaren salmenta normalizatu da oso modu kezagarrian. Entzun izan ditut ikasleak esaten droga salduko dutela. Ez dakit oinak lurtean dituzten, baina hori jaso dute.

**O. Arana:** Fikzioetan orokorrean oso idealizatuta agertzen dira drogak. Literaturan adibidez oso orokortuta dago idazle zaharren kasuan irudietan erretzen agertzea. Gaur egun lausotu da, eta beste iruditegi batzuk sortzen ari dira. Baina zenbaten buruan dago pentsalari baten irudia sofán erretzen?

**A. Sagardoy:** Bizitzaren irudi bat saltzen dute fikzioan, eta aisialdia da protagonisten bizitzaren zati txiki bat.



**“Irakaspen politikoa drogetara bideratuta zegoen, eta asanbladak nola kudeatzen diren ikasi edo zaintza landu beharrean, ikasi nuen nola zerbitzatu ongi garagardo bat”**

Ander Sagardoy

Agertzen dira denak gustura, ongi pasatzen, plazera sentitzen, baina ez da agertzen hurrengo egunean gertatzen dena: arazo emozionalak izatea drogen kontsumoarengatik, eraso matxistak gertatu izana edo nola egon diren aste osoa antsietatearekin asteburuaren esperoan. Irudi gordina izateko, osotasuna ikusi beharko genuke.

**BTN Señorak edition podckasteen salatu zenuen bertsotan ere baduela garrantzia gai bakoitzari eskaintzen zaion tartean.**

**O. Arana:** Txapelketetan oso erabakita



**MARCOS**  
*okindegia*

**Benetako  
antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

**baikara**

Gipuzkoako GIZen Federazioa

**HITZURUN**  
Hizkuntz Zerbitzuak

Morlans Bulego  
Antonio Maria Labaien, 14-5.C  
20009 Donostia (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 598 626  
hitzurun@hitzurun.eus  
www.hitzurun.eus





dago zein neurri dagoen gauza bakoitze-rako. Zortziko handiak espazioa ematen dizunez, gehiago izaten da gai serioez argumentatzeko. Zortziko txikiak aldiz, umorerako. Alkoholen inguruko gauzak txikian jarriko direnez, soilik umorerako espazioa egonen da. Baina emandako gaia baldin bada hausnartzea alkohola ez edatearen inguruan, agian jendeak ez dauka argudiorik. Señora Sariketaren bigarren saioan alkoholaz hitz egiteko tartea egon zen, eta nik eskertu nuen.

**Behin baino gehiagotan aipatu duzue alkohola bereziki oso normalizatuta dagoela aisialdian; ba al dago drogarik gabeko parrandarik?**



**“Ematen du estatuak daukala diskurtso argi bat drogen kontra duen borrokan, baina gero oso baliagarri zaio erreproduzitzen ditugulako dinamika berdinak aisialdi esparruetan”**

Maialen Alvarez

**M. Alvarez:** Egon daiteke, baina ez dakit sortzen ditugun.

**O. Arana:** Posible da, beharrezkoa da, baina ez ditugu sortzen.

**A. Sagardoy:** Esaten da errazagoa dela munduaren amaiera irudikatzea kapitalismoarena baino. Nire gertuko jendeak bere burua irudikatzen du parranda egin gabe, baina ez drogarik kontsumitu gabe. Esaten dute parranda egiteari utzi-ko diotela haientzat parranda egitea eta drogatzea iguala delako. Egon beharko litzateke aukera hori, baina gaur egun ez dago bermatuta.

**M. Alvarez:** Zaila da irudikatzea espazio batzuk kontsumo hori kenduta. Esaten dudanean ez dudala edaten askotan esaten didate ea parranda gustuko dudana eta





parrandan ateratzen naizen. Euskal Herrian poteoaren kultura edo edateko kultura handia dago egunaren edozein ordutan: eguerdiko poteoa, arratsaldeko poteoa...

**O. Arana:** Dena sortzen da barra bat inguruan dela, eta dirua lortzeko bidea barra izaten da. Ez da hainbeste jende mugitzen beste ezeren bueltan. Egiten baduzu deialdi bat txosnetan txandak betetzeko edo kartelak jartzeko, lan handiagoa izan arren jende gehiago batuko da barrako txandara.

**A. Sagardoy:** Kontzertuak amaitzen badira parrandak jarraituko du, baina barra ixten baduzu jendeak alde egingo du. Tamalez oinarria da, baina egon beharko lirateke saiakera mini-



**“Kontzertuak amaitzen badira parrandak jarraituko du, baina barra ixten baduzu jendeak alde egingo du”**

Ander Sagardoy

**“Jendeak ulertzen du *bollera* izango zarela betirako, baina betiko abstemia izango zarela ulertzea kosta egiten zaie”**

Oihana Arana

mo batzuk hori aldatzeko. Nire inguru politikoetan ez da zalantzan jartzen eta ez da eztabaidagarria den zerbait.

**M. Alvarez:** Hasieran jarrera edo ideia debekatzailerak izateko joera dugu, hautu politiko bat egin dugunez besteak demonizatzen ditugulako. Normala da alternatibak proposatzea, baina ezin ditugu diskurtso moralista eta kritikatzailerak izan. Ulertzen dut nondik datorren jendearen beharra, eta zalantzak ditut, baina amorrua ematen dit ez planteatzeak kontzertu bat barra barik.

**O. Arana:** Kapitalismoak behar batzuk sortzen ditu, eta izorratuta gaudenean, mina arindu eta produzitzen jarraitzeko sistema bat dago. Kontua ez da ba-

Niretzat errespetua da  
[euskara] ulertzen ez duenak  
ahalegina egitea ulertzeko.

SAGRARIO ALEMAN



Argazkia: Sam Manns

tek edo bestek edatea; kontua da ez dugula gertatzen dena arazotzat hartzen.

### Hortaz, kolektiboan landu beharreko auzia da?

**M. Alvarez:** Arazo soziala denez, kolektiboki egin behar da hausnarketa. Baina ez dugu bakarrik alkoholaren eta tabakoaren inguruan hausnartu behar; jakin behar dugu nondik datozen gutxiago ikusten diren drogak edo ikusten ez ditugunak. Horien atzean pertsona pila bat dago beraien bizitza eta askatasuna jokoan jartzen dituztenak, betikoak aberasteko.

**O. Arana:** Droga mugitzen bada ez da agintariak tontoak direlako, atzean interes batzuk daudelako mugitzen da. Hirurok drogarik ez hartzeak ez dauka eraginik, baina kolektiboan antolatuko bagina, bai.

**A. Sagardoy:** Indibidualki lantzen badugu moralista hutsak izateko arriskua dago, eta nire ustez diskurtso hori ez da onuragarria.

**M. Alvarez:** Ematen du estatuak daukala diskurtso argi bat drogen kontra duen borrokan, baina gero oso baliagarri zaio erreproduzitzen ditugulako dinamika berdinak aisialdi esparruetan. Gainera, erabiltzen dute pobrezia kriminalizatzeko, eta hor klase kontua dago.

**A. Sagardoy:** Azkenean kalteak beste herrialde batzuek jasotzen dituzte, Hegoaldeko lurraldeek.

### Hortaz, militantziarako espazioak barraren bueltan sortzen direla iruditzen zaizue?

**A. Sagardoy:** Hainbat borrokatan aipatzen den bezala, arkitektura oso garrantzitsua da, eta askotan barra ezinbestekoa da. Zentzu honetan, es-



“Ulertzen dut nondik datorren jendearen beharra, eta zalantzak ditut, baina amorrua ematen dit ez planteatzeak kontzertu bat barra barik”

Maialen Alvarez

pazio horietan ez dago argirik, ez dago lekurik, ez da entzuten eta ez da leku atsegina lagunekin elkarrizketa interesgarriak izateko. Adibidez, gazte asanbladan hasi nintzenean ikasi nuen lehengo gauza izan zen barra bat nola muntatu, kudeatu, nola prestatu kuba-

tak, nola zerbitzatu garagardo bat. Irakaspen politikoa drogetara bideratuta zegoen, eta asanbladak nola kudeatzen diren ikasi edo zaintza landu beharrean, ikasi nuen nola zerbitzatu ongi garagardo bat.

**Ander, Madrilgo Straight edge mugimendu ezagutu duzu; bertako jendea drogarik gabeko espazioak sortzeko antolatuta zegoen. Nolako dinamika sortzen zituzten?**

**A. Sagardoy:** Madrilgo zentro soziale-tan eta leku okupatuetan egon nintzen, eta drogarik gabeko kontzertuak eta drogen aurkako jardunaldiak egiten ziren. Euskal Herrian *Drogas, capitalismo y movimientos radicales* liburua dago eta Topatu hedabidean, bere garaian, idazten ziren gaiaren inguruko testuak. Gaia presente egon da, baina ez da oso zentrala izan. Herri mugimenduan ere kolektiboan landu beharko litzateke. ●

## Bizkaiko Batzar Nagusiak




[www.jggbizkaia.eus](http://www.jggbizkaia.eus)

BIDAIAK

# Nola ibili mundua desorekatu gabe?

Klima larrialdiarekin eta energia krisiarekin gure bizi ohiturei buruzko galderak sortu zaizkigu: Zenbat bidaiatu eta nola? Josu Iztueta bidaiari ezagunak kontraesanen ispiluaren aurrean jartzera gonbidatu gaitu, tonu goxoan eta irribarre xamur batekin: "Ikusi beharra dago zer izan garen eta non ibili garen. Orain iritziak eman ditzakegu, baina sententziarik ez".

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



**B**i bizipen oroitzen ditu Josu Iztuetak, munduko bazterrak eza-gutzeko grina piztuko ziotenak: lehena umetakoa, Karibean jaio ziren hiru lehengusu beltzaranak lehen aldiz Tolosara etorri zirenekoa. "Hauek ez dira besteak bezalakoak eta ez dute euskaraz egiten" pentsatu zuen eta non bizi ziren ulertzeko hatzamarra mapan jarri zuenean "mundua handia eta anitza dela" iruditu zitzaion. Geroago, gehien markatuko zuena Tolosako Uzturre Mendi Elkartearen izango zen, 1970eko hamarkada hasieran: "Hor baguenen jende aitzindaria, Antxon Bandres, Lukas Mendikute, Mikel Arrastoa "Arrastro"... atzerrikoen hitzaldiak antolatzen zituzten, nazioartetik mendizaleak etortzen ziren Himalaiako edo Afrikako bizipenak kontatzera". 13-14 urteko gaztetxoa zen orduan Iztueta, eta ekonomikoki azkar egin zen burujabe; 15 urterekin hasi zen ikasteaz gain lan egiten eta lehenbiziko kotxea karneta baino lehenago eskuratu zuen, 17 urterekin, beste lagun batekin erdibana erositara: "Horrek eman zigun aukera Pirinioetara joateko, Europara, Suitzara lanera... Hor hasi zen bide bat, gerora furgoneta eta geroago Nairobitarra autobusa izango zena". 20 urterekin zaletasuna ia ogibide bihurtu zitzaion: "Besteen oporrak gure gustuko lan izan

zitezkeela pentsatu genuen. Gerora ikusi nuen lan hura ez zela bizimodu erosoa baina bai gustukoa".

### **EUSKAL HERRIA, JENDE BIDAIARIA**

"Euskaldunok baditugu bi baldintza, asko bidaiatzeko. Batetik, mugaz bestaldearekiko gertutasuna eta Europaren eragina: bidaia aldizkariak, prentsan mendiari eta bidaiei buruzko orriak... kultura hori oso errotuta egon da. Eta bestetik, dirua. Guadalajarako jendeak ez zeuzkan 100.000 pezeta kanpora joateko baina hemengoak bai. Bazegoen bidaia nork antolatua eta bazegoen nor joana". Bidaiatzeak oinarritzko beharrek duen harremana argi du Iztuetak: "Oinarritzko behar guztiak asetuta behar dituzu bidaiatzeko. Edo bestela oinarritzko ezer ez daukazu eta bidaiatu behar duzu bizimodua ateratzeko: horra migrazioaren arrazoiak. Aisialdiko bidaia zerbait axalekoa da, izan daiteke ilusionagarria, baina ez bizitzari zentzua ematen diona".

Euskal herritarren kontraesanari ispilua jarri dio: "Gurea oso bizi maila altuko herria da, nahiz eta askok negar egin. 240.000 lagunek dute bigarren etxebizitza. Jende askok dauka autokarabana edo goi mailako furgoneta egokitua. Baina ez dugu onartu nahi 60.000 euroko



### **Artzain herriekin.**

Laponian, 1998an, Sami jendearekin: "Europako azken aborigenak esan izan da. Miresmena diot baldintza gogorretan bizi den gizakiari. Txapela jantzita nago argazkian, nolabait azaltzen ariko nintzaion guk ere badugula gure hizkuntza, nortasuna, lotura hori badagoela Europako bi herrien artean, txapa politiko handirik sartu gabe. Samiak artzainak dira, gure familian ere artzainak izan ditugu, eta horrek ere gerturatzen nau artzain kulturetara".



JOSU IZTUETAK UTZIA

**Autobusaren itzalean.** Nairobitarra autobusa 1984an, Sahara basamortuan. Josu Iztueta: "Autobusa guretzat zen dena bat: kanpoan itzala, barruan babes, lotarako toki, jatetxe eta garraio".

Kalifornia duena edo 100.000 euroko ondasun bat duena, munduko 8.000 milioi biztanleetako %10-15 aberatsenen artean dagoenik. Horrek min ematen digu. Kontraesan horretan bizi gara, garenak gara baina ez gurek turista izan nahi, ez dugu energia xahutzen dugunak izan nahi, ez dugu mundua desorekatzen dugunak izan nahi... Diskurtsoan oso urrun joan gaitzke, baina ekintzetan ez. Gure iritziak beti izango dira %20 aberatsenen artekoak. Gu pribilegiatuak gara. Urteetan Titanicetako kamarote on batean joan gara, eta orain sotoko kamarotera jaisteak izorratzen gaitu".

### **BIDAIATZEA ERRAZ ETA MERKE**

"Bidaiatzea lehen baino askoz erraza-



JOSU IZTUETAK UTZIA



JOSU IZTUETAK UTZIA

goa eta merkeagoa da eta horregatik bihurtu da kontsumo produktu bat" azaldu du Iztuetak. Baina lekuek duten indarra pertzepzio kontua dela esan du, ez dela kilometrotan neurtzen: "Gaztetxotan Aralarra joatea niretzat espedizio moduko zerbait zen. Eta orain, Laponiara joatea niretzat oso leku erosoan sentitzea da, askotan joan naizelako. Lehen gertukoak zeukan indarra handiagoa zen orain urrunekoak daukana baino. Pertzepzio kontua da, eta urteen poderio ere bai. Hasieran sekulakoa zen Belagua eta hango historiak ezagutzea, edo Aralarko trikuharriak, putreak Irurtzundik behera, eta beti aldamenean izatea horrelakoak kontatzen zizkigun jendea... nahikoa zen Isabara joatea eta han artzain batekin egotea, hori ere exotikoa zen".

**Burujaletza ekonomikoaren bila.** Josu Iztueta 1977an Suitzan 18 urterekin, bere kotxearekin: "Fruta biltzera joan ginen Suitzara; 12 ordu egiten genituen lan eta hemen halako lau irabazten zen. Gu bezalako jendea hartzen zuten, orain hemen beste herrialdeetakoak hartzen diren bezala. Fruta bildu, Alpeetara gerturatu eta mendiko materiala erosi ahal izateko joan ginen".

Iztuetak oroitu duenez, 1970eko hamarkadan eta 1980ko hasieran kanpora joatea konplikatuagoa zen orain baino: "Tamanrassetera joan nahi bazenuen basamortura, edo Land Rover zahar bat zenuen eta mekanika eta frantses pixka bat zenekien, edo nekez joango zinen zure kabuz. Beste norbaiten laguntza behar zenuen. Gure funtzioa hori zen: jendearen oporrak ardura gisa hartzea. Mugako kontuak, bideak jakitea, arazoak konpontzeko gai izatea. Informa-

zioa lortzeko gida bat erosten genuen, edo han egon zen norbaitekin egoten ginen. Ni joanda nago Parisera autoestopetoz, han gidak eta mapak erosteko. Eta Afrikan zegoen Padre Blanco misiolariarekin bildu izan nintzen Argeliako egoerari buruz galdetzeko". Afrikako lehen bidaiak oso gogorak izan zirela dio: "23 urte genituen, 20 lagun ardu-ara guregain, bideekin asmatu beharra, eguraldi iragarpenik ez, 400 litro ur eta 400 litro gasoil hartu eta segi pistetan,



Euskara zerbitzua  
Barrenkalea 17  
48200 Durango  
94 603 00 16  
euskara@durango.eus  
[www.durango-euskaraz.eus](http://www.durango-euskaraz.eus)

bertako jendea topatu eta galdetu, fidatu...". Hori guztia zeharo aldatu da: teknologiak nahi beste informazio jarri du denen eskura, momentuan bertan jakin daiteke zer eguraldi egiten duen txoko bakoitzean, zer txerto hartu behar diren, mugak nola dauden... "Gainera jendeak lehen baino gehiago daki ingelese-frantsesa lehen baino gutxiago-, eta askoz modu independenteagoan bidaiatu dezake, 30 urteko gazte batek jada ez du gure beharrik, ez bada Himalaiara joateko edo arroilen jaitsierak egiteko bezalako gai teknikoetarako".

Bidaiatzea errazagoa izateaz gain, merkeagoa ere bada orain: "Hegazkin txartela harrigarriki merkea da", esan du Iztuetak, eta kontuak egin dizkigu: "Lehenengo hegazkin txartela 18 urterekin hartu nuen, Karibeko lehengusu horiek bisitatzeko; 40.000 pezeta balio zuen eta nik hilabetean 10.000 pezeta irabazten nituen. Lau hilabeteke soldata osoa behar zen. Egun 1.300 euro irabaziko bazenu, hegazkin txartelak 5.000 euro baino gehiago balio beharko lituzke". Gasoil merkea bizi izan dugula oroitari digu: "Nik lanean orduko 50 pezeta irabazten nituenean, gasoil litroak 19 pezeta balio zituen, beraz, lanordu batekin bi litro eta erdi ordaindu nitzakeen. Orain 10 euro irabazten badituzu

orduko, 4 euro izan beharko litzateke gasoil litroa". Erreferentzia egokiak hartzea ezinbesteko dela nabarmendu du: "Marokon egon berri naiz, eta 'hemen gasoila merkeago dago' entzun dut, 1,2 euroan dagoelako. Nola merkeago? Marokoko soldata 500 euro dira! Euskal Herrian halako hiru balio du gasoilak Marokon! Merkea esatea aberats batek goitik beherako katalajuekin begiratu-ta, subjektiboa da. Beti begiratu behar da mikroskopioarekin: zenbat balio du herrialde horretako pertsona batentzat bere seme-alabentzako eskolako fotokopiak ateratzek edo testu-liburu batek? Eta menuak? Ibuprofeno kaxak? Auto-bus txartelak?".

### BIDAIATU GABE OPORRIK EZ?

Bidaiatzea sozialki ongi ikusia dago eta prestigioa ematen du. Iztuetak umorez aipatu ditu bidaiatu behar diren ajeak. Bat izan daiteke kopuruen lehian erortzea: "Herrialdeak zenbatzen dituenik bada, '55 herrialdean egon naiz' esaten dute". Beste aje bat da denek uste dutela bidaiari direla, inork ez du bere burua turistatzen; Iztuetak azaldu duenez, "niretzat portaera kontua da, izana da gakoa eta ez izena: turista bat izan daiteke errespetu osoz jokatzeko duena, eta ustezko bidaiari hori, berriz, lotsaga-



be bat". Bidaiak merke izateak ekarri du gertukoa ezagutu gabe urrutira joatea: "Jendeak ez du etxekoa ezagutzen eta Victoria ur-jauzietan egon da, Iguazun, Niagaran... Eta gertukoa? Hori edozein asteburutan egiteko modukoa dela uste dugu baina inoiz ez da asteburu hori iristen".

Beste aje bat da bidaiara garaipen pertsonal modura azaldu beharra oportunitatik bueltan: "Inork ez du esaten gaizki pasatu duenik. 'Hau egin genuen eta bestea' kontatzen du, eta bidaiari ikusi duzu erreta, intsektuek janda, kakeria harrapatuta... eta ongi pasatu duela esaten du! Inork ez ditu bidaietako miseriak kontatzen". Adierazi behar horretan, teknologiak lehen ez zegoen erremintak jarri dizkigu esku artean: "Orain edonork edozein momentutan esaten du zero kosturekin non dagoen. 'Hemen nago!' erakutsi beharra sentitzen du askok". Beste aje bat, aktibitate etengabea izan daiteke: "Jende aktiboaren artean gutxietsita egon dira hondartzan eguzkitan egotea, paseoa eta irakurketa. Jarri furgonetan hiru bizikleta, surf taula... hori hobeto ikusia egon da".

Bidaiatzea erraztu eta prestigiatu izanaren ondorioz, bidaiari oportunitate sinonimo da egun: "Jendeak asteburutan kanpora ateratzeko erradio jakin bat dauka, zubia baldin bada handixeagoa eta oportunitate urrutira joan behar da. Norbaitek 'non egon zarete?' galdetzen duenean 'gertu xamar' erantzunez gero, azalpenak eman behar!".



JOSU IZTUETAK UTZIA

**Artzaintza tradizionala.** 1980ko hamarkadan Urbian. Josu Iztueta: "Artzain kulturatik gertu bizi izan naiz, gure aita eta lehengusuak artzainak izanak dira. Kanpoko baina lehen gure gertukoa ezagutzeak balio handia du".





JOSU IZTUETAK UTZIA

### BIDAIA EDER BATERAKO GAKOAK

"Nire lagun batek esaten duenez, lehen asko begiratzen zion nora joan. Gero noiz joan, klimaren eta urtaroaren arabera. Gero nola joan. Orain jabetu da hori dena bezain inportantea dela no-rekin joan aukeratzea: oso leku eder bat infernu bihurtu daiteke ondokoarekin gustura ez bazaude. Eta gustuko pertsona batekin, hain paradisu ez zena kristoren esperientzia bihurtu daiteke".

Baina Iztuetaentzat zer da esperientzia gogoangarri bat? "Esperientzia on batek momentuko plazerra ematen du, baina esperientzia txar batek irakaspen handia eman dezake. Niri gertatu zait goizeko ordubietan etxerako autobusa galtzea eta Donostian gau bat kale gorrian pasatzea. Banku batean etzanda denbora egin eta gero beste leku batera joan, zu bezalako ardi galdu batzuk iku-

si, goizeko seietan lanera doan jendea begiratu... kale gorria zer den probatzea ariketa gogor bezain interesgarria da, etxean daukazuna nolako pribilegioa den jakiteko. Lurrean lo egitea ona da, ohea hartzen duzunean zein eroso den jakiteko". Eskarmentuak alde batera utzita, zer egitea du gustuko Iztuetak bidaiari hiri batera iritsi denean? "Oinez ezagutzea. Gaztetan mendian adinako egurra hartzen nuen hirian oinez. Eta gustuko dut banku batean lasai esertzea (ez dago terraza batean jarri beharrik), geldirik egotea eta jendea behatzea: ikusi zer jende klase pasatzen den, zer hizkuntza, zer bizimodu, irudikatu nolakoa izango den goizean kaleak martxan jartzen direnean, irudikatu zer izan zen leku hori pandemia garaian inor ez zebilenean...".

Gutxitan aipatzen den gakoak, osasuna da: "Osasuna bidaiari oinarria da. Min

### "Traste zaharra, gure mekanika eskola"

1976an, Josu Iztuetak karneta atera berrikan: "Unibertsitate onena beharra da. Gerora askotan tokatu zitzaigun kotxe azpian sartzea: bolantean milaka ordu sartu genituen, eta ehunka batzuk azpian. Ez geneukan diru askorik, Anjel Ortiz trebea zen mekanikan eta ni bere pintxea nintzen. Kotxe zahar horrekin ikasitakoa furgonetarako baliatu genuen, eta Nairobitarra proiektuan oso beharrezkoa izan zen mekanika jakitea. Orduan ez zegoen hainbeste elektronikaririk, logikoagoa zen konponketa lana".



Elorrioko udala

# Euskara

*gehiago, gehiagogaz, gehiagotan*

Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) | 946 58 27 12 | euskara@elorrio.eus | www.elorrio.eus



baserriakm0.com



baserriaKM0



# Atxondoko Udala

www.atxondo.eus  
📞 94 682 1001



bat jartzen bazaizu Groenlandian eta ondokoak esaten badizu 'apendizea hor-txe dago, eskuinaldean'... Bukatu zaizu hango gozamina, badakizu 24 orduan artatzen ez bazaituzte hil zaitezkeela. Aldiz, hemen bazaude, apendizea sentitu orduko ebakuntza egingo dizute eta kito. Osasuna da garrantzitsua, eta hori ustez ona daukagu, huts egiten digun arte edo ondokoa larri ikusten dugun arte".

## GUK ERAGINDAKO GENTRIFIKAZIOA ETA TURISMOA

Ezberdin ikusten dira bidaiak norberaren kokapenaren arabera: "Gure etxera etortzen direnean, Donostiako kasua daukat buruan, itota sentitzen gara eta 'nazka ematen din/k, ez zagon/k frantse-sa besterik!' esaten dugu. Eta asteburuan Jacan edo Municheko garagardo azokan zabiltzanean zer iruditzen zaizu, oso jator zabiltzala? Edo larritzen gara Donostiako gazteek periferiara joan behar dutelako bizitzera, eta noski hori arazoa dela. Baina Jacako gazteak Sabiñanigora doaz bizitzera, hemengoek han etxeak dauzkagulako, e! Edo berdin gertatzen da Castron edo Ezcarayen. Jacako lagun bati galdetu nion zenbat balio zuen pisu batek han: 'Jacan pisuak balio du euskalduna ordaintzeko prest dagoena', erantzun zidan".

"Txinako 1.400 milioi biztanle eta Indian beste hainbeste, klase ertainera iritsi dira hemen duela hamarkada batzuk bezala soldata baten ondorioz, eta %5-10ak dauka mundua ezagutzeko gogoia eta aukera. 140 milioi txinatar eta beste hainbeste indiar dira. Arazoa da gu mugitu garela mundu osoan zehar pentsatuz ez genuela asko molestutzen, baina orain haiek denek hona etortzeko aukera dutenean, zer? Hemengo paisaia edo ondare kulturalen argazkiren bat ikusten badute eta 'begira zer polita!' esaten badute, izorratu gara, bukatu zaigu gozamina. Inork ez dugu Venezia izan nahi, ez Milango katedrala, baina gehienok egon gara han".

## NOLA BIDAIATU BESTE ERA BATERA?

Iztuetak CO2 aurrezteko gako batzuk eman dizkigu: "Partekatzea da gakoetako bat, eta hain urrun ez joatea. Badaude taula batzuk eginak: zentzuzkoa da Sevillara joatea hiru egunerako? Eta Irlandara joatea asteburu baterako, despedida egitera, edo liburu bat aurkeztera, edo bertso-saio batera? Non jartzen du norberak muga? Taulek esaten dute 5 ordu-


ko hegaldia gehiegi dela hiru aste baino gutxiagorako". Baina gasoil kontsumoaz gain beste kontsumoak ere aztertu behar direla oroitarazi du: "Beste gai bat da gero han nola portatzen garen. Hegazkinari begira gaude eta gero bero egiten duelako bi dutxa hartzen dira egunean!".

"Bidai" izena eman gabe ere, egunerokoa kilometro pila egitea ohikoegi bihurtu zaigula azaldu du: "Sostengarria izateko zerk kutsatzen du gutxien? Egiten ez den horrek, beraz, pandemian bezala kieto egotea litzateke irtenbidea, baina ez dugu hori nahi. Eta bakoitzak justifikatzen du berea: batek bertsolari finalera joan nahi du; Osasunak jokutzen du Sevillan eta 15.000 lagun doaz ikustera partida ia 1.000 kilometrora, edo 70.000 lagun baster guztietatik Bruce Springsteen Bartzelonan entzuteran... Nahiko lan badugu kontraesanekin. Diskurtsoa izugarria dugu, baina noraino jaitsiko du norberak bere langa? Aspaldi kalkuluak ateratzen nituen: autobusean 20 lagun artean egin baditugu 5.000 kilometro hilabete batean, kalkulatzeko nuen pertsonako zenbat litro gasoil gastatu genuen. Eta konturatzen nintzen jende askok lanera joateko hori baino askoz gehiago gastatzen zuela".

Gasoil merkearen garaia bukatuko dela ziur dago, eta horrek mugatuko ditu bakoitzak egingo dituen kilometro kopuruak. Baina hortik aurrera, bidaiak eragiten dituzten desorekak gaintzeko formula miragarrik ez daukala dio Iztuetak: "Ez dakit zein den soluzioa. Nire aldetik egoista litzateke munduan nahikoa ibili eta gero 65 urterekin besteei 'ez bidaiatu!' esatea. Nik badakit nola bizi izan naizen, uste dut bizimodu austero bat eraman dudala, baina ezin diet besteei esan zer egin. Ikusi beharra dago euskaldunok zer izan garen eta non ibili garen eta beraz, orain iritziak eman ditzakegu, baina sententziarik ez". Gasoil merkearen garaia bukatutakoan ere, bidaiatu nahi duenak modua bilatuko duen itxaropena du: "Etxetik oinez edo bizikletaz ateratzen bagara, jaten gastatuko dugu etxean gastatzen duguna. Trena merkea da, Interrail txartelak oso merke daude, garraio publikoa sekula izan ez duen ia doakotasunean dago. Baina oso libretik ibiltzen ohitua gaude, hori da arazoa. Garraio publikoaren alde hitz egiten duen jende asko ezagutzen dut, baina hartzen dutenak oso gutxi".

## AURTENGO UDA, DESBERDINA

Aurtengo udarako ez du bidaiarik pres-tatu Iztuetak: "Adina da motibo bat. Ar-



JOSU IZTUETAK UTZIA

**"Nairobotarraren helmuga".** Ahaggar mendiak Aljeria hegoaldean. Iztueta: "Honaino iristen ginen, Tamanrasset basamortutik oso gertu. Sorrera bolkanikoa dute"

dura handiak hartu ditut nire bizitzan eta beti soka tentsatuta eramatea bezala izan da: larritasun bat suertatu dela mendian; matxura bat konpondu beharra Noruega bezalako herrialde garestian (arazo mekaniko bat zena triskantza ekonomiko bihurtzen da horrelakoetan); arazoak aduanatan edo aireportuan; elkarbizitzan bakoitzak bere aurpegi onena erakusten du, baina itxurari astebetetz eutsi ahal zaio eta hortik aurrera arazoak izaten dira; osasun ezbeharrak... ez dut uste nire buruari horrelako tratua gehiago emango diodanik. Inflexio puntua iritsi zait: lehen erabaki nuen zer bizimodu izan nahi nuen, eta orain erabakiko dut zer bizimodu ez dudan egin nahi".

42 urtez gustuko lana izan du Iztuetak, baina ez eroso: "Urteak eman ditut lurrean lo gehiago eginez ohean baino, dutxatu gabeko egun gehiago izanez dutxatutakoak baino, bidoiko ura edanez etxeko iturrikoa baino... eta bidai horiek egin ahal izateko urte asko pasatu ditut apnea ekonomikoan".

Aurtengo udan Euskal Herrian zer egingo du munduko bazterrak ikusten trebatu denak? "Distantzia txikian gauza asko ditut egiteko. Adibidez, hondartzara joan desgaraian, irakurtzen lasai egon, gaixo dauden ezagunak bisitatu, falta zaizkidan leku batzuk ezagutu [Mikel Arrizabalagaren liburu erakutsi du, *Jaizkibel eta Aiako Harria*], herri txikiak bisitatu, jendeari pultsua hartu, oporretan bidaiatzen ez duen jendeak zer egiten duen ikusi...".

Uda pasatzeko leku pribilegiatuan bizi garelako digu, "ez paisaiagatik bakarrik, kultur agenda begiratu besterik ez dago: 20 kilometroko erradioan denetarik dago. Gipuzkoan 55 ekipamendu kultural daude. Distantzia txikian ditugu osasun eta kultura zerbitzuak, Europako beste herrialdeetan kilometro pila egin behar dituzte horien bila. Zerbitzuak hobetu behar dira, baina daukaguna baloratu behar dugu eta zaindu, okertu ez daitezten". ●



ikastolenelkartea

**Euskal Herriko Ikastolak**  
EUOPAR KOOPERATIBA ELKARTEA

Errotazar bidea 126 - 20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)

tel. 943 445 108 | fax. 943 465 294



ehi@ikastola.eus

www.ikastola.eus

KLIMA LARRIALDI GLOBALA IRUDITAN

# Urtze Aroa

Alfons Rodríguezek hogei urte daramatza mundu osoan klima larrialdiaren ondorioak argazkitan jasotzen, *The Melting Age* (Urtze Aroa) proiektuaren barruan. Zuri beltzeko irudiokin, zerbait egin beharraz ohartarazi nahi du argazkilariak.

  ALFONS RODRÍGUEZ

**GROENLANDIA.** Poloetako izotz-masa handia, ur bihurtua, munduko ozeano eta itsasoei batuko zaie. Antartikako edo Artikoko (Groenlandia, irudian) izotza ez ezik, lakuetako eta glaziarretako izotza ere ari da urtzen; eta Lurreko ur gezaren %70 biltzen dute. Munduko Meteorologia Erakundearen arabera azken hamarkada inoizko beroena izan da.



**K**lima-aldaketa antropogenikoa frogatutzat jo daiteke jadanik. Une honetan gertatzen ari den zerbait da. Munduko ia herrialde guztiak biltzen dituzten nazioarteko konferentzia handietan, egoera honen aurrean nola jokatu eta ondorioak nola arindu eztabaidan ari dira, eta erantzukizun globalaz edo justizia klimatikoaz ere hitz egiten dute, gure planetaren destinoa ikusita. Garrantzitsua da biltzea akordio batzuk lortzeko, lotesleak izan edo ez. Baina benetan inporta duena da kalte batzuk jada konponezinak direla.

### BIOMASA UGAZTUNAREN %96

Dagoeneko zortzi mila milioi gizaki lur-tar gara, eta nahiz eta aurreikuspen batzuek adierazten duten 75 urteren buruan hazkunde hori geldituko dela, urte hori urrunegi dago gaur ez kezkatzeko. Izan ere, Homo sapiens-a planetako biomasa ugaztunaren %96 da dagoeneko.

Hogei urte baino gehiago daramatzat hainbeste aipatzen den klima larrialdia- ren lekuko zuzena izaten. Beste pertsona askok bezala, modu batera edo bestera, ingurune eta kasuistika zehatzetan ibili naiz. Hala izan naiz sei kontinenteetan eta 105 herrialde baino gehiagotan. *The Melting Age* (Urtze Aroa) izeneko proiektuan, testigantza hori irudikatu nahi izan dut.

### MILIOI ERDI ESPEZIE

Glaziarrek eta kasko polarrek Lurreko ur gezaren %70 gordetzen dute, baina azken 70 urteetan glaziarren izotzaren 10 bilioi tona urtu da. Azken hamar urteak historiako beroenak izan dira.

Zazpi urteren buruan planetaren batez besteko tenperatura 1,3 gradu igoko da gutxienez, eta mendearen amaieran, egoera horrek eta glaziarren urteak era-

## Izotz azpitik azaleratuko den lurraldea espazio berria izango da natur baliabideak esplotatzeko, batez ere petrolioia. Izotz hori urtzea ekarri duen petrolio bera

gingo dute itsas maila 1,5 metro handitzea. Ondorioz, ehunka milioi pertsona desplazatu behar izango dira. Baina ordurako milioi erdi animalia-espezie baino gehiago desagertuko dira, orain arte identifikatuta dauden 1,3 milioi espezieetatik ia erdia.

### URTEAN 1,3 HONDAMENDI

Muturreko fenomeno meteorologikoak ugaritu egin dira. Lehen, hamar urtean behin gertatzen zena, orain 1,3 aldiz gertatzen da urtean. Espainiako Estatuan lurraldearen %10,4 erdi idorra zen duela hamarkada batzuk, orain %21,6 dago klima lehor horren menpe. Eta joera gero eta handiagoa da.

Esaterako, Herrialde Katalanak 2023an inoizko lehorterik handiena jasaten ari dira; milioika kaltetu izan dira eta murrizketa larriak daude. Lehortearren eta berotzearen ondorioz, gainera, suteak duela hamarkada batzuk baino askoz maizago gertatzen dira.

### UR GAZIA HANDIK HONA

Denak joko esperpentoduna eta groteskoa dirudi, eta gu geu jokalaria iza-

tera behartzen gaitu. Aurrekaririk ez duen zentzugabekeria. Groenlandian edo Antartikan, esaterako, planetaren berotzeak izotza urtzeaz gain, faunan eta ekosistemetan eragina duten itsas korronteak hozten ari dira.

Ur gazi gehiegi ari da mugitzen alde batetik bestera, eta ur edangarria duten akuifero urriak xahutu egiten dira –litro bat ur duen plastikozko botila bat egiteko, likido bereko lau litro erabiltzen dugu–.

### UZTAILAREN 28RAKO AGORTUTA

Duela hiru hamarkadatik egiten da klima aldaketari buruzko COP munduko konferentzia, justuki planeta gehien berotu den 30 urteetan. Hau da, ezer gutxirako balio izan duela dirudi.

Kontzientzia falta horrek beste defizit bat izan dezake: iaz, uztailaren 28an agortu genituen planetak urtebetean eskaintzen dituen baliabideak. Aurten noiz gertatu ote da hori? Hortik aurrera, ordezkatu ezin denetik gastatzen dugu.

### PETROLIOA ABERATSENTZAT

Poloak urtzen ari dira eta horrek kalte izugarria egingo digu. Haatik, gizakia tematzen da halako egoerak beste begi batzuekin ikusten. Groenlandian edo Antartikoan izotz azpitik azaleratuko den lurraldea espazio berria izango da natur baliabideak esplotatzeko, batez ere petrolioia. Izotz hori urtzea ekarri duen petrolio bera. Batzuk aberatsago eta gehiago handiena pobreago egin gaituen erregai fosila, alegia.

Inork ulertzen ez duen zentzugabekeria da hori, mundu guztiak etsipenez eta berekoikeriaz onartzen duena: gure amaiera guk geuk eraginda. Geuk bakarrik. ●



**Irurako udala**

San Migel plaza 1, 20271


udala@irura.eus

[www.irura.eus](http://www.irura.eus)



## Siberia

Hobeto eta gehiago bizitzearen ideia industrializazioarekin eta aurrerapen teknologikoarekin lotuta egon izan da. Siberiako bihotzean dagoen Ulan Ude hiriko kutsadurak indize oso arriskutsuak ditu osasunerako, baina hango biztanleek diote fabrikak –batez ere industria aeronautikorako motorrenak– denentzako bizi iturri direla. Hori da industrializazioaren kontraesan nagusia: hobeto bizitzeagatik gutxiago eta okerrago biziko gara.



↑ **Dubai.** Lurraren historian aldaketa klimatikoak gertatu dira arrazoi naturalengatik, gehienetan pixkanaka, eta ondorioz, denbora eman die planetari eta bertako biztanleei egokitzeko, oreka berri bat lortu arte. Egungo klima-aldaketak izaera antropogenikoa du, hau da, gizakiak

eta bere ekintzek eragin dute: industrializazioak, kutsadurak, baso-soiltzeak... Horrek denbora gutxian desoreka nabarmenak sortzen ditu. Dubai eta antzeko hiri handiak dira kutsadura-gune nagusiak, behar dituzten baliabideengatik eta sortzen duten CO2 kopuruagatik.



euskal eskola publikoa  
denona, denontzako

ehige   
Gurasoen  
elkartea

info+ 944 169 360 / [ehige@ehige.eus](mailto:ehige@ehige.eus) / [ehige.eus](http://ehige.eus) / Ronda 27, 1ezk, 48005 Bilbo





↑ **Cabo Verde.** Ikerketak eta soluzio teknologikoak ez dira klima aldaketa gelditzeko gai izan. Bizimodu jasangarriak bultzatzea, naturara eta landa-ingurunera itzultzea, ekosistemak babestea eta baso naturalak biziberritzea dira benetako alternatiba bakarra. Irudian, Afrikako Cabo Verde artxipelagoan eguzki-energia lortzeko instalazio moderno erraldoi bat.



← **Hego Sudan.** Ekialdeko Gogrial eskualdea. Dinka etniako artzain gerlari nomada talde bat Dubekeko herrixka zeharkatzen ari da bere familiekin. Lehorte gero eta ugariagoek Afrikako etnia horren joan-etorri handiak eragin dituzte, beren aziendarentzako ur eta larre freskoen bila. Ganaduaren gorputzetan jan-edanaren eskasia nabari da, bereziki esnea da falta zaiena, dinkatarrek euren haurrak elikatzeko erabili ohi dutena. Gainera, nekazarien lurak zeharkatzeak edo okupatzeak liskar bortitzak eragiten ditu euren artean. Dinka artzain guztiek beren ganadua AK-47 fusilez armaturik gidatzen dute, alerta egoeran.



Talaios  
Coop

talaios.coop

## Teknologia eta ekonomia eraldatzaileetan bidelagun

kontaktua@talaios.coop | 943 013 297



**Herrialde Katalanak.** Basoak eta oihanak hustubide bat dira atmosferatik CO2a kentzeko eta oxigenoa askatzeko. Berotze globalak, lehorteek eta zuhaitz-mozketek, basamortutzea ekarri dute. Laborantza estentsiboak eta intentsiboak ere basoen aurka egiten du sarritan. Bero-boladek eragindako hezetasun eskasaren eta basoen kudeaketa eta garbiketa txarraren ondorioz, suteak suntsitzaileagoak dira eta baso-masak hamarkada askotarako desagerrarazten dituzte. Irudian, Kataluniako Pont de Vilomarako sutea 2022an.



↑ **Antartika.** Seigarren kontinenteko izotza, ur gezaren erreserba handienetakoa da, 14 milioi kilometro koadroko azalera baitu. Izotz hori desagertzeak eragin handia izango luke itsas mailaren igoeran, eta milaka milioi pertsonaren joan-etorri masiboak eragingo lituzke.

**Manila.** Zikloi eta ekaitz tropikalek munduan gehien zigortzen duten herrialdea dira Filipinak, hondamendi horiek gero eta ugariagoak eta suntsitzaileagoak baitira, berotze globalaren ondorioz. Hildakoez gain, ekaitzek dozenaka milaka desplazatu utzi ohi dituzte eta ekonomia gero eta kaskarragoa da. Zenbait adituren arabera, aurretik klima-aldaketaren aurka borrokatzeak baino kostu handiagoa ekarriko digu orain bere ondorioak arintzea.



**Indonesia.** Klima larrialdiaren ondorioz animalia espezie asko beste habitat batzuk okupatzen hasi dira, uraren gazitasunagatik, temperatura altuengatik, itsas korronteengatik edo elikagairik ez dutelako. Epe ertainean espezie asko desagertuko dira, batez ere oso kalteberak

direnak. Komodoko dragoia (irudian) eta antzekoak oso mehatxaturik daude jadanik. Eragina genetikoa ere bada. Adibidez, itsas dortokek giroko tenperaturaren arabera zehazten dute euren sexua: 29,3 gradu zentigradutik gora eme jaiotzen dira, eta hortik behera ar.



# “Ibaiak haien ibilguetan gero eta sakonago hondoratzen ari dira”

ALFREDO OLLERO OJEDA

Euskal Herria zeharkatzen dutenen artean ibairik handiena da Ebro. Haren ertzean mintzatu gara, Ollero bizi den Zaragozako sarreran, lertxunaren ibili geldoa, txorien kanta zoroa eta ibaiaren emari barea lagun, udaberria 33 gradura lehertu den arratsaldean, zorionez arbolen gerizpean. Ebroren aditu handienetakoa da. Tesia hari buruz egin zuen 1990eko hamarraldiaren hasieran. Mito ugari daude Ibaien bueltan, batez ere haien ur-goraldiak tarteko: elkarrizketan xehe-xehe txikitu ditu. Ebro aztertu dugu nagusiki, baina oro har, haren urak egungo ibaien ispilu dira.

 XABIER LETONA BITERI  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

## Zer esan daiteke Ebro ibaiaren osasunaz?

Nik duela 30 urte Ebrori buruzko tesia egin nuenetik bere egoera ez da asko txartu. Areago, hartzen ari dira neurri egokiak, nik nire tesian defendatzen nuen moduan, eta apur bat hobetzen ari da. Egiten ari diren hainbat lan ibaiaren leheneratzeko lan gisa har daitezke. Ebro hondatu zen bereziki 1960ko hamarralditik 2000. urtera gutxi gorabehera –nik batez ere jartzen dut arreta adierazle hidromorfologikoetan–. Ikuspegi biologikotik arazo gehiago daude, erriberako basoak hiltzen ari direlako, besteak beste. Ebroren alde gatazkatsuen uholdeena da, baina ingurumenaren ikuspegitik une honetan ez da kezkatzen nauen ibaia.

## Baina zuk esaten duzu ibaiak larrialdi egoera bizi dutela. Zergatik diozu hori?

Egoera hori Antropozenotik dator, hau da, kapitalismo neoliberalak eragindakoa da. Ibaiak batez ere XX. mendeko bigarren erdialdean pobretu ditugu. Ur kopurua jaitsi egin da, ibai gehienetan %20-30 ur gutxiago dago, eta horrek zerikusi handia du landa-eremuetako exodoarekin. Horrek ekarri zuen mendi eremuetan abeltzaintza eta nekazaritza bertan behera utzi zirela, eta ondorioz, basoak asko ugari ziren. Hori oso positiboa da hainbat alorretarako, baina basoak ur asko kontsumitzen du. Horri gehitu behar dizkiogu beste bi arrazoi: bata, azken hamarkadetan izandako lur sail ureztatuen hazkunde itzela, eta bestea, urtegietatik lurruntzen den ur kopuru handia. Horren ondorioz, ibaien ur kopurua asko gutxitu da, baina baita sedimentu kopurua ere, eta horrek nabarmen eragiten du gaur egun nozitzen ditugun ingurumen aldaketetan.

Landa-eremuan 1950eko eta 1960ko hamarraldietan gertatu ziren aldaketa horiek orain ari dira nozitzen ibaietan. Ibaien emarien gutxitzearen ondorioz, erriberetako landaretza biziki hazi da. Lehen ez zen ia landaretzarik ibai bazterretan, edo askoz gutxiago, animaliak bazkatzen zirelako bertan eta, oro har, nekazaritza eta abeltzaintza jarduera handiagoagatik. Landaretza hori handitzea ongi dago, arrazoi askorengatik gainera, baina ibai-ibilguan ere hazi egin da. Zergatik? Erriberetan gero eta ur gutxiago dagoelako eta, ondorioz, ibaiak ibilguan hondoratzeko joera duelako. Fenomeno geomorfologikoa da, eta ebakidura deitzen da. Erriberetatik erretiratzen doaz ibaiak eta haien ibilguetan gero eta sakonago hondoratzen dira. Hori Europa osoan gertatzen ari da, eta hemen bereziki Pirinioetako ibaietan. Landagunetako exodoak eta urtegiek eragin handia dute ibaien ebakidura horretan.



## **ALFREDO OLLERO OJEDA**

Logroñon jaio zen 1964an. Bere ikerketa eremuak ibaien geomorfologia, ibilguen eta erriberetako ingurumen aldaketak, eta ibaien leheneratzea dira. 1992an argitaratu zuen Ebrori buruzko tesia. 1991 eta 1995 artean ingurumen aholkularitzan jardun zuen. Ondoren, EHUn aritu zen irakasle, 2002an Zaragozago unibertsitate publikoan hasi arte. Uraren Kultura Berria Fundazioaren sortzaileetakoa izan zen, eta hainbat sari jaso ditu ibaien defentsan egindako lanagatik, besteak beste, 2012an Ecologistas en Acciónekoa.

**Beraz, nagusiki hortik dator ibaien larrialdiaz aritzea.**

Bai. Ibaiek oroimena dute, eta jasaten duten presioaren ondorioa hamarkada batzuk geroago erakusten dute. Beraz, duela 40-50 urte egin ziren urtegiek, al-daketa klimatikoak eta landa-eremuen exodoak ibaiak estutzera eta sakontzera bultzatzen dituzte. Pirinioetatik jaisten diren Gallego ibaia, Aragon, Cinca... lehen oso zabalak ziren, gaur egun estuagoak dira, eta ibilguan sartuago daude. Eta gainera, sinpleagoak dira: orain hondartza eta sedimentu barra gutxiago dituzte.

Ibaien larrialdi egoeraz hitz egiten dugu, ebakidura hori eragin duten faktoreak hor daudelako eta ez dagoelako desagertuko diren zantzurik. Herri-tarrak ez dira mendira itzuliko, urtegi handiak ez ditugu eraitsiko, eta aldaketa klimatikoa gehiagora doa. Euria kopurua antzekoa da orain eta lehentxeago, baina oso modu desberdinean dator; eta batez ere, tenperaturak gora egiten du, eta beraz, hur gehiago lurruntzen da. Euria horren era desberdinean egitean, esaten da ibaien ur-goraldiak ere murriztu egingo direla, baina handiagoak ere izango direla. Eta lehorre garaiak luzeagoak izango dira, dagoeneko gertatzen ari zaigun bezala.

**Ibaientzat zer da egokiena?**

Ibaia osasunarentzat onena da ur-goraldi ugariak izatea, baina ez oso handiak, eta hain zuzen ere, horiexek dira erabiltzen direnak urtegiak betetzeko. Konponbide gaitzeko arazoa da hori, beraz, uste dut ibaien ebakidura handitu egingo dela.

Ebroren kasuan, adibidez, tesia egin nuenean ez nuen ebakidura zantzurik ikusi. Duela hamabost urte, aldiz, antze-man nuen leku batzuetan hondoratzen ari zela. Azken bost urteetan lanean ari-tu naiz hainbat lekutan, eta ikusten dut

ebakidura nahiko orokorra dela. Hala ere, Ebrori XX. mendean kendu zitzaion espazioa itzultzen ari zaio, oso apurka bada ere. Ibai zabala da eta erresilentzia handia du, uste dut hondoratzea ez dela beste ibai batzuetakoa bezain azkarra izango.

**“Ur kopurua jaitsi egin da, ibai gehienetan %20-30 ur gutxiago dago, eta horrek zerikusi handia du landa-eremuetako exodoarekin”**

**Ibaien arazo hidromorfologikoak konpontzen badira, gainerako arazok ere –bioaniztasuna...– berez konponduko direla diozu. Azalduko duzu hori?**

Ibaien hondoratzea fenomeno humanoa da, ur-goraldien eta emarien gutxitzeak eragindakoa, eta horrek ondorioak ditu bioaniztasunean. Ibaia hondoratzen bada, freatikoa ere –lur azpiko urak– jaitsi egiten dira eta zabaleran urritu; orduan, erriberako zuhaitzak ur faltagatik hil egiten dira, eta horren ordez zuhaixkak sortzen dira. Ondorioz, makalak eta sahatsak ibilguan edo ubidean bertan sartzen dira, eta badoaz kolonizatzen irlak, sedimentu barrak... Beraz, ibaien hondoratzea berreskuratzea lortzen badugu, hau da, hidromorfologia osasuntsu bat, erriberako basoak ere berreskuratu-ko dira, eta ibaiaren fauna ere bai.

**Edozein modutan, hasieran aipatu dituzun hiru osagai nagusiak hor egonda, ez dirudi hori samurra izango denik.**

Hala da, bai. Gaitza ekarri duten zioek hor jarraituko dute, hortaz, irtenbide bakarra ibaien lehengoratzeko da; hau da, ibaia gaixo dago eta “botika” bat eman behar zaio ondoratu ez dadin, eta horretarako, batzuetan beste nonbaitetik ekarritako sedimentuak gehitu behar zaizkio.

**Ibaien ebakidurak, hondoratzeak, ibaiaren arazo guztiari eragiten dio?**

Ibaian gora ez horrenbeste, baina apur bat bai. Ibaia zati batean hondoratuta badago, ibaian gora ere higadura ematen da. Adibidez, zubi bat egiteko erreka ondoko legarrak erabiltzen badira, horrek toki horretan ibaian zulo bat sortuko du, eta epe laburrean uhaldi bat ez badator, zulo hori goialdean ere handituko du; hots, hondartzaren ertzean zulo bat egiterakoan eta urak estaltzen duenean gertatzen den bezala.

Hemendik gertu, Gallego ibaian, hori gertatu da 70eko urteetan egin ziren legar erauzketa batzuekin. Eta ibaiak memoria duenez, 2000. urtetik aurrera hasi zen sufritzen gehien. Gero geratu zen, ibaian gorako higadurak gertu zegoen presa batekin egin zuelako topo, baina orduan presaren oinarria desagiten hasi zen, eta hormigoia eta beste bota behar izan dute presa eror ez dadin. Edozein modutan, ibaiaren hondoratzearen eraginik handienak ibaian behera sumatzen dira, ibaiaren energia handiena norabide horretan doa eta. Horregatik, urtegiek ez dute kalterik egiten ibaian gora, ibaian behera baizik.

**Goazen jorratzera ur-goraldien gai eztabaidatua. Zergatik esaten duzu ez duela zentzurik “ibaiak garbitzea”?**

**ZESTOAKo**  
Udala

**Ezagutu Zestoa esperientzien bidez**

[www.zestoa.net](http://www.zestoa.net)

ZALDI IRTEERAK	IZARRAITZEKO BIRA ZESTOTATIK	EKAIN BERRI MUSEOA	ERDI AROKO LILI JAUREGIA	EZAGUTU PAISAIA eta ONDAREA



Gaur goizean honako adibidea jarri diet unibertsitateko ikasleei, hemendik ger-tu Cabañas herrian Ebron egin zen dragatzeari buruz. 2010ean jakin genuen dragatze eremuaz, eta egin aurretik hara joan ginen sedimentu barra hura neur-tzera. Egin zen dragatzea, gu hurrengo urtean joan ginen ostera ere neurketak egitera eta ikusi genuen berdin-berdin zegoela: urtebetean ibaiak leheneratu zuen dragatutako zatia ibaiak berak eka-

**“Fenomeno  
geomorfologikoa da, eta  
ebakidura deitzen da.  
Erriberetatik erretiratzten  
doaz ibaiak eta  
haien ibilguetan gero  
eta sakonago  
hondoratzen dira”**



rritako legarrekin. Urte hartan ez zen uhaldi handirik egon, baina ibaiak segun-doko 400 metro kuboko emaria darama-nean, sedimentuak garraiatzen ditu eta hori hainbatetan gertatzen da. Dragatzea, beraz, dirua botatzea besterik ez da.

Horrez gain, dragatzeak ibaiaren eba-kiduran sakontzen du. Kentzen baduzu metro bateko sakonerakoa, ibaiak bete egiten du. Eta egiten baduzu bi metro-koa, ibaiak agian ez du betetzeko ahal-menik, baina orduan haren ondoratzea eragiten da. Hor daude ere dragatzaileen bultzatzaileek dioten dragatze integra-

agurainen euskaraz  
bizi nahi dugu



lak. Kilometroetan egiten dituzte, eta orduan bai, ibaiari zauri sakona egiten zaio, baina horrek ondorio larriak ditu: zubiak oinarririk gabe uztea, erriberako basoen heriotza freatikoa asko jaisten delako...

**Diozunez mito ugari daude ibaien inguruan. Ikus ditzagun batzuk. 2022an Burlatan foru gobernuko eta udaletako hainbat agintari bildu ziren 2021eko goraldiez aritzeko. Tuterako alkate Antonio Toquerok hala zioen: “Duela 40 urte Ebro garbitzen zen eta ez zuen gainezka egiten, eta gaur egun bai”.**

Bera batez ere ibaiaren ertzetako landaretza kentzeaz ari da, eta horrek eragin txikia du ibaiaren ur-hustuketan, gehien jota %5-%10ean eragiten dio. Landaretza garbituta lortzen duzu ibaiaren abiadura handitzea, landaretzak batez ere hori lortzen baitu, emariaren abiadura geldotzea. Ibaiak badu bere autoerregulaziorako modua, eta beraz, kudeaketa hori imitatu behar dugu: gainezka egitea, sedimentuak barreiatzea, landaretza abiadura gutxitzeko erabiltzea...

Horrez gain, Toquerok esandako hori ez da egia, lehen gutxiago garbitzen zen eta; gainera, ez dut goraldi bakarria ezagutzen txikiagoa izan dena ibai garbitu delako. Ebrok antzeko goraldiak ditu eta horietan ez dago inongo alderik ibai garbitu aurretik eta ondoren. Horiek guztiak kondaira urbanoak besterik ez dira.

**Beste mito bat: “Emari gutxiagorekin Ebrok gero eta gehiagotan egiten du gainezka”.**

Arazoa da lehen Ebroren emaria gaizki neurtzen zela, eta hori Ebroren Konfederazio Hidroelektrikoak (CHE) berak onartu du. 1997tik sistema berriekin neurtzen da eta ikusten da lehengo

uhaldiak eta egungoak berdintsuak direla, eta gainezka ere antzera egiten duela.

**Hirugarren bat: “Gaur egun legarribarra eta irla gehiago dago, eta beraz, dragatu egin behar da”.**

Hori guztiz gezurra da. Hori dioen jendeak ez ditu inoiz ikusi 1927ko edo 1956ko Ebroren aire irudiak. Lehen askoz barra gehiago ziren eta handiagoak. 1957an, Ebrok ez zuen ia erriberako landaretzarik, eta hondartza zabalak zituen. 1927n Ebrok ez zuen ia itzulirik egiten, hainbat besotako ibai zabala zen, irla handiekin eta ia zuzena leku gehienetan. Meandroak geroko kontua dira.

Eta zergatik bihurtu da meandro-ibaia? Batez ere urtegiengatik eta eraikitako defentsengatik. 1960ko abenduaren 31n uhaldi oso handia gertatu zen Castejonen, eta emariak ia 5.000 metro kubo segundoko hartu zuen –gaizki neurtua seguruenik, nire ustez ez baitzen 4.000tik pasatu-. Goraldi hark uholde handiak eragin zituen, eta kalte handiak. Orduan hasi ziren eraikitzen uholdeen aurkako defentsak, eta ibaitzulietan jarri ziren batez ere, ibaiak gehien higatzen duen tokietan. Horrekin indartzen ari zara ibai hori meandro-ibaia izatea, baina aniztasun geomorfologikoa galduta, hala nola irlak edo ibai-besoak.

**“Ez dugu ibai okupatu, beti landu dugu lurra ibai-ertzearaino”**

Ibaia sinplifikatu egin dugu eta nekazariak landaketa defentsetaraino eraman dute horiek jarri ondoren. 80ko urteetatik aurrera defentsa horiek Ebro osoan eraiki ziren. Ondorioz, ibai ez da ia mugitzen, ia egonkorra da. Ibaiari tokia kendu diogu eta nik nire tesian proposatzen nuen espazioa itzuli behar geniola,



**“Ibaiaren osasunarentzat onena da ur-goraldi ugariak izatea, baina ez oso handiak, eta hain zuzen ere, horiexek dira erabiltzen direnak urtegiak betetzeko”**



☎ | 944 557 027 · 944 557 009  
✉ | [udala@larrabetzu.eus](mailto:udala@larrabetzu.eus)



[www.larrabetzu.eus](http://www.larrabetzu.eus)





besteetarako kaltegarria da. Ibaien urak guztioi ematen digu osasuna.

Bigarren hausnarketa: ez da urtegi gehiago egin behar, ez delako urik egongo horiek betetzeko. Urtegiek ez dute lehortea konponduko, alderantziz, egokitu egin behar da eta ur asko kontsumitzen duten uztak kendu. Urtegi-tatik, ubideetatik, igerilekueetatik... ur kopuru itzelak lurruntzen dira. Baina urtegi handien kalteez gain, aipatzekoa da ere urtegi txikiena, horietako kopuru handia dago ibai eta arroiletan; horiek sedimentu kopuru handiak geldiarazten dituzte, eta horrek ibaian behera sedimentu gabezia handia dakar.

**“Urtegiek ez dute lehortea konponduko, alderantziz, egokitu egin behar da eta ur asko kontsumitzen duten uztak kendu”**



gutxienez 500 metro alde bakoitzetik. Oso poliki bada ere, orain CHE hori egin ten ari da aukera duenean. Kontu hauez eztabaidatzeko bilerak egiten dira lur-jabe, zientzialari, talde ekologista eta administrazioaren artean, eta horietan lur-jabeek ez dute nahi ibaiaren inguruko lurretan eragitea, dena ibilguan egin nahi dute. Haien ametsa da urtegiek guztiz egonkortutako ibai, ibilgu ahalik eta sakonenarekin, etor daitekeen ur dena hor sar dadin eta inoiz ez dezan gainezka egin. 60ko urteetatik aurrera egindako lanen ondoren, ibaiaren espazioa 700-800 bat metro izatetik 200era pasatu zen.

**Goazen Esako urtegiara. Gaur egun 447 hm<sup>3</sup> ditu eta 1.525 hm<sup>3</sup>-ra handitzeko lanetan ari dira. Apirilaren 17an 257 hm<sup>3</sup> zituen (%57), iaz sasoi horretan %79an zegoen eta duela hamar urte %83an. Oraingoa betetzea gaitza da, baina hirukoiztu nahi dute.**

Lehenik aipatu nahi nuke oso gaizki iruditzen zaidala lehortearen adierazle bat urtegien ur kopurua izatea. Zergatik hedabideek ez dute adierazle gisa hartzen ibaien edo akuiferoen ur kopurua? Funtsean uraren ikuspegi kontsumista dugulako: urtegi-tako ura baliagarria da, baina ibai-takoa ez. Urtegi-tako ura ona izan daiteke gauza batzuetarako eta

Esaren kasuan, nik uste horren handia egin nahi dutela buruan dutelako Ebrotik noizbait ura beste nonbaitera eramatea. Adibidez, zuk Tortosatik [Tarragona] Valentzia edo Murtziara ura eramane nahi baduzu, segurtatu behar duzu Ebrotik beti izango duela hori egiteko adina ur, eta hori gerta dadin nonbaiten pilatu behar duzu ura. Bestela, bakarrik Zaragozako ur edangarrirako eta Bardeak ureztatzeko ez da horren urtegi handia egin behar.

Esakoa kezkarria da ere magalak duen ezegonkortasunagatik, horrek ibaian behera sortzen duen arriskuare-



**IBARRAKO**  
U D A L A

*Ibarran euskaraz bizi nahi dugu.  
Eta zuk?*

San Bartolome plaza 2  
20400 IBARRA  
Euskara Zerbitzua: 943 67 38 27  
euskara@ibarra.eus  
www.ibarra.eus

• Bulego orokorrak	943 67 11 38
• Euskara Zerbitzua	943 67 11 38
• Udaltzaingoa	943 69 73 24
• Kukumiku Haur Eskola	943 67 02 84
• Kiroldegia	943 67 15 44
• Kultur Etxea	943 67 03 99
• Gizarte Zerbitzua	943 67 11 38

kin. Eta gainera, azkenean guztiz betetzea erabakiko balitz, urteak beharko lirateke betetzeko, eta horretarako urtegiak uhaldu denak irentsiko ditu, horrek ibaian behera izango dituen ondorio kaltegarriekin, lehenik Aragoi ibaian eta gero Ebron.

### Esaten da Espainiako Estatua dela Europan presa gehien eraisten ari den estatua. ¿Hala da?

2022an egindako txosten batean, Espainian 618 presa kendu dira eta 2021ean Europan presa gehien eraitsi zuen herrialdea izan zen. Zalantzarik gabe, hori da bidea, bota presak eta gero ibaiak berreskuratuko du apurka bere izaera. Zehaztu behar da, halaber, kentzen ari diren presa gehienak jadanik ez direla erabiltzen, edo gatazka sozial gutxiak direla. Iruñean, adibidez, hor da Santa Engraziko presa Arrotxapeko auzoan. CHEk ezikusiarrena egiten jarraituko du berriz eraiki ez dadin, baina ez du guztiz sartu nahi ere, erantzun sozialaren beldur. Landabenen dagoen presa txikia ere kendu beharko litzateke

### Oro har, dena den, harritzen nau zein gutxi hitz egiten den horien erai-teaz, dakartzaten kalteez eta abar.

Ni egon naiz Gipuzkoan presa txiki horietako batzuen eraistea aztertzen, eta hainbatetan biztanleriaren oposizioa izan dugu: herritarren bainu lekua delako, edo ondarearen ikuspegitik han halako industria edo burdinola egon zelako... Toledoko Arte Ederren Akademiak esan berri du mesedez ez daitezela Toledoko presak kendu, haiek El Grecoren margoetan agertzen direlako. Eta bai, 600dik gora kendu dira, samurrenak, baina halako milaka daude. CHEN kendu nahi dituzte, baina nik proposatu dizkiedan guztietan ezetz esan didate.

## “Dragatzea dirua botatzea besterik ez da eta ibaiaren ebakiduran sakontzen du”



### Horrez gain, energia berriztagarrien garaian, energia hidroelektrikoak garrantzia handia hartu du.

Bai, energia berde edo berriztagarritzat hartzen da hori, baina jakina, mahaia- ren ganean jarri behar da azpiegitura horiek ibaietan sortzen dituzten kalteak. Kapitalismoak ekarri dizkigu egun bizi ditugun energia eta ingurumen arazoak, eta egungo trantsizio energetikoan ere kapitalismoaren eskua ikusten dut. Azkenean berdinak aberasten dira. Klima aldaketaren ondorioetako bat da Frantzian edo iparralderago dauden hainbat herrialdetan erregadioak sortzen ari direla, baina sistema horrek funtziona dezan presa kopuru handia eraiki behar da. Beldur naiz XXI. menderako energia hidroelektrikoak eta erregadioak har dezakeen indarra- rekin; horien ondorioz presa gehiago egingo balira, ibaien *requiem*-a litzateke eta.

### Oso modan jarri dira nekazari lurretan eraikitzen ari diren uraska handi horiek. Doñanako parkean, Huelva, akuiferoak agortzen ari

### dira eta Estatu Frantsesean istilu handiak ekarri dituzte.

Batzuetan ibaietatik ateratzen dute ur hori eta besteetan akuiferoetatik. Bietan sortzen dituzte kalteak. Baina kez- kagarriena ur kontsumo maila handia da, eta zenbat eta ur kopuru handiagoa kontsumitu okerrago denerako. Irten- bidea ez da ur gehiago, baizik eta gu ur eskasiara egokitzea. Maila guztietan irtenbidea ekonomiaren desazkunderan dago, ez hazkunderan. Datozen hamar- kadak gogorrak izango dira eta desaz- kundera ezinbestekoa izango da.

### Artikuluren batean kexu idatzi duzu tokiko hedabide askok normalean presak eraistearen aurka egiten dutela, ibaiak "garbitzearen" alde... Tokiko botereek indar handia dute, antza.

[Barre egiten du eta galdera itzuli] Zuek independenteak zarete?

### Euskaraz ekoizten dugunez, gure aurrekontuaren %30 diru- laguntza ofizialeetatik dator. Baina hori kontuan hartuta, medio independentea gara eta hala jokutzen dugu.

Galdera luzatu dizut, halako gaietan ez dugulako hedabideen laguntza handirik jasotzen, eta iruditzen zaidalako heda- bideek menpekotasun handia dutela dirua ematen dietenekiko. Ikusi bes- terik ez Canal Royarekin gertatu dena. Irakurtzen dugu *Heraldo de Aragón* eta itzela da, baina jakina, nola ez du proiektu horren alde egingo bere ja- beak zuzenean sartuta daudenean proiektu horretan? Edozein kasutan, Canal Royaren kasuan aurkako olatu handia sortzen ari da, eta uste dut azke- nean ez dela egingo. ●



# MONDRAGON, pertsonak elkarlanean

MONDRAGONen jarduera-arloak dira Industria, Finantzak, Banaketa eta Ezagutza. Euskal Herrian sustraituta, beren kooperatibek presentzia handia daukate atzerrian.

Hainbat merkatutan marka liderrak ditu: Laboral Kutxa, Copreci, Danobatgroup, Eroski, Fagor, Maier, Orkli, LKS eta Orbea, besteak beste.

Enpresa-jardueraz gain, gestio demokratiko propioa duen sistema baten bidez garatzen da eta inguruko gizarteaz konprometituta dago.

Kultura, ohitura eta hezkuntza babestea izan du betidanik Korporazioak bere ezaugarriak aipagarriena.

[www.mondragon-corporation.com](http://www.mondragon-corporation.com)



GIZATASUNA  
LANEAN

MONDRAGON





Finantzak  
Industria  
Banaketa  
Ezagutza

# Hamabi hilabete, 48 azal





# Hilabetero pilula monografikoa



Azaleko ilustrazioak: Joseba Larratxe *Josevisky*



# ARGIA

## BABESTEKO



## ARRAZOI

### **1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA**

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

### **2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ**

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

### **3. HEDABIDE DIGITALA ETA DADEREKOA**

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

### **4. EZ GARA NEUTRALAK**

ARGIAN jendartearen eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

### **5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ**

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

### **6. ELKARLANAK BULTZATUZ**

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

### **7. GOOGLE GABE**

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

### **8. BANAKETA EKOLOGIKOA**

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorroetan.

### **9. 100 URTETIK GORA**

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

### **10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA**

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

### **11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA**

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

**TXIKITIK ERAGITEN** [argia.eus/eginargiako](http://argia.eus/eginargiako)



## KULTUR GOMENDIOAK

# Dena eta gehiago jan (edo hartu atsedeen)

 GORKA PEÑAGARIKANO  MAITANE GARTZIANDIA / ARGIA CC BY-SA

**B**ilboko Guggenheim-ak ireki zuen aroan, hori da kulturaren rola: dena eta gehiago jan nahia. Txiki geratu zaigu guztia, eta bigarren Guggenheim-aren bila goaz. Orain, baina, makro-espazio kulturala esparru artistikoarekin lotu beharrean, ingurumenarekin lotuko dugu, *modan* dago-eta. “Gora ekologismoa eta begira zein ederra gure biodibertsitatea; etorri, etorri, guztiontzako lekua dago-eta”. Helburuak bera izaten jarraituko du, ez egin zalantzarik. Bilboko alkateak ondo baino hobeto esan zuen moduan: “Ahalik eta ekitaldi jendetsuenak ekarri nahi ditugu, Bilbok posizio bat izateko nazioartean, eta turismoa erakartzeko”. Gero eta gehiago, gero eta handiago, hobe. Garai hau zerbaitek definitzen badu, hori izango da...

Krakatekoak bistaratu dira, ordea. Errepara esparru musikari: Jon Urzelaik bikain deslotu ditu hainbat korapilo *Su festak (Euskal musika jaialdiak XXI. Mendean)* liburuan (Susa, 2022). Baita Nando Cruz kazetari espainiarrak ere Macrofestivales (“Makro-festivalak”) saia-keran (Planeta, 2022). Jaialdi potoloetan sarri eskaintzen diren lan-baldintza gero eta makurragoak jo-puntuari jartzeaz gain, behatu behar zaio musikari ematen


zaion balio ez-artistikoari ere, eta nola bihurtzen den merkantzia hutsa. Zenbat eta kontzertu gehien eskaini, hobe –jakina, ordu erdiko emanaldiak guztiak-. Ez da berria: salmentarako produktua da jardun artistikoa, sistemaren salgai bat gehiago. Preziatua egun, bogan dagoena. Eta musikazaleentzat, goiztiarra da gainera. Has zaitezke 2024ko uda planeatzen, dagoeneko hainbat makro-hitzorduetarako sarrerak hartu daitezke-eta.

Baina tamainak axola du. “Gero eta gutxiago, hobe”, akaso hori ere ez da premisa, baina izan daiteke bidea. *Deshazi* behar dugu aurrera egiteko, ezinbestean kulturaren ere, merkantilizazio erabatekoarekin eta kulturaren eta artearen txikizioarekin amaitzeko. Edukiontzietan sarturik da kultura, dena ahalik eta gehien eta ahalik eta azkarrean, unean bertan, kontsumitzeko eran egon dadin. Beterik eta aldi berean hutsik dauden edukiontziez inguratu gara.

Kultura kontsumitu nahi duenari ez zaio askorik kostatuko, telesail bat ikustea ez baita inoiz hain erraza izan. Abuztuan atsedean hartzeko aukera duenak, ordea, datozen orrietan aurkituko ditu arnas apur bat eman dakizkiokeen gomendioak, ARGIAko kide bakoitzak gustu propioz eskainiak.









## Ni ez naiz Mikel Laboa

Joseba *Josevisky* Larratxe,  
Harkaitz Cano, Un ai Iturriaga

ELKAR, 2022 / 128 OR.

Daitort, sortzaile moduan Mikel Laboa sekula ez da niretzat erreferentea izan, nahiz eta haren jeinutasunaz kontziente naizen, eta ziurrenik uste baino kanta gehiago ezagutzen dizkiodan. Niretzat, Laboa da aitak etxean zeukan *Lau bost* diskoaren azalean espazio-ontziari begira zegoen suge erraldoi hura. Eta uste dut, Canok, Iturriagak eta Josevisky-k buruan iltzaturik dudan irudi horri darion fantasia zoragarria ekarri dutela komiki honetara. Testuak egiten dituen keinu oro ez dut harrapatu, hori zur, baina istorioaren zurrumbilo hori-uridin-gorriak betebetan harrapatu nau. Latza.

🔗 Jon Torner Zabala



## Petrokalipsia

Antonio Turiel

TXALAPARTA, 2023 / 208 OR.

Energia krisiaren testuinguruan gako ugari ematen dituen lan baten aurrean gaude. Zer ez dugun lortuko, zer ez den posible eta nola ez dugun konponduko krisi honetatik ateratzea, egungo sistema ekonomikoarekin jarraitzen badugu behinik behin. Antonio Turiel fisikariak idatzi eta Joseba Barriolak itzulia, liburuak idazkera erraz eta ulergarrian azaltzen ditu energia-iturri berriztagarriek dituzten mugak eta erregai fosilen agortzeak ekarriko dizkigun ondorioak. Eta amaieran, zer egin dezakegun ere esaten du egileak.

🔗 Urko Apaolaza



## Esclavitud. Una historia de la humanidad

(“Esklabotza, humanitatearen historia bat”)

Michael Zeuske

KATAKRAK, 2018 / 636 OR.

Lehen ikasgaia: milaka urte atzera eginda, pertsona pertsona denetik existitzen da esklabotza, eta ia edonon, baina ez beti ezaugarri berdinekin. Egileak bost mesetan desberdintzen du esklabotza historian zehar, familia ingurunean baliatzen den esklabotzatik, XIX. mendeko afrikar beltzen esklabotza komertzial ezagunera. Bigarren ikasgaia: herrialde garatuen egungo oparotasuna esklabotzaren gainean eraikita dago. Eta azken lezioa: gaur egun, historian egon den esklabo kopuru handiena dago. Esklabotza historian ulertzeko liburu giltzarria.

🔗 Xabier Letona Biteri



BAKARRIZKETAK



ANTZEZLANAK



FAMILIARRAK



EKOIZPENAK MANAGEMENT



www.ttipia.eus



## A la conquista del cuerpo equivocado

(“Okerreko gorputzaren konkista”) Miquel Missé

EGALES, 2018 / 172 OR.

Liburuak urte batzuk dituen arren, ekarpen interesgarria egiten dio azken boladan han-hemenka eztabaida-iturri den gaiari: transexualitatea. Bere esperientziatik, errespetuzko debatera deitzen du Miquel Missé gizon transexualak: gorputz batetik bestera trantsitatzeari zilegi eta eskubide izanik ere, horrek behar du izan transexualen aldarrikapen politiko nagusia? Konponbidea beti eta bakarrik ez da norbere gorputza eraldatzea, dio Missék, eta generoaz, identitateaz eta gorputzaz gogoetatzen du, galdera bati tiraka: “Zein da pertsona transok dugun ondoezaren jatorria eta nola egin aurre ondoez horri?”.

🔗 Mikel Garcia Idiakez



## Haurrek hitza

Lidia Txukovskaia eta Lidia Zhukova (1942), Josu Zabaletak euskaratua

KATAKRAK, 2022 / 84 OR.

Europara gerra itzuli den honetan, bakearen aldeko manifestua da hau. II. Mundu Gerrara eramango gaituzte Sobietar Batasunetik Uzbekistanera ebakuatutako haurrek. Milioi bat lagun baino gehiagok egin behar izan zuten bidaia hori eta 200 intelektual baino gehiago egon ziren haurrak zaintzen, tartean, liburu honen autoreak. Testigantzak biltzen umezurtz etxe batetik bestera ibili ziren. Haurrek hitz egiteko duten sotiltasun ederrarekin, gudako egunak nola bizi izan zituzten kontatzen dute, kapitulu oso laburretan. Josu Zabaletak itzuli du errusieratik euskarara; gaztelera, frantsesez, ingelesez, italieraz... ez dagoen lan hau.

🔗 Lander Arbelaitz Mitxelena



## Lur gainean, itzal azpian

Leire Milikua Larramendi

SUSA, LISIPE SAILA. 2022 / 116 OR.

Emakume nekazariak sektorean zenbateko eta nolako parte hartzea duten aztertzen du liburu honek, eta horretarako EAEko datuak eta emakume nekazarien testigantzak uztartzen ditu. Zenbat dira emakume nekazariak? Parte hartzeko aukeretan eragiten duten zein baldintza bizi dituzte egunerokoan? 2015-ean Eusko Jaurlaritzak Emakume Nekazarien Estatutua onartu izanak zer ondorio ekarri du elkarrean erabakiguneetan, emakumeen parte hartzeari begira? Beren hitza kontuan hartua sentitzen al dute?

🔗 Estitxu Eizagirre

ARGIA azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



## Zaldi bat ihes garrezko zelaian

Koldo Izagirre egindako hautaketa



## No!

Komikia

Eli Pagola, Maitane Gartzandia eta Miren Artetxe



## OTU

Sortu zuen istorioak Karta-jokoa 70 karta



## Cada capa de l'atmosfera

("Atmosferaren geruza bakoitza")

Maria Arnal eta Jose Luis Vicente

CCCB, 2022 / 4 ATAL

Maria Arnal sortzaile katalanaren musika gustuko duen orok entzun beharko luke podcast berezi bezain landua. Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroko ikertzaile Jose Luis Vicenterekin batera, klima krisiak eragindako aztarnen inguruko saiakera eder bat sortu dute eta horretarako soinua izan dute tresna. Arriskupean ezarri dugun planetaren hotsak eta Arnalen musika konposaketak maisuki uztartu dituzte hainbat proiektu, aditu eta arituren praktika eta hausnarketekin. Ordu erdiko lau atal gozagarri, bereziki lehen hiruak, katalanez zein gaztelaniazko bertsioetan.

🔗 Axier Lopez



## Artxipelagoa

Ulu Mediak ETBrentzat

2022-23 / 8 ATAL

ARGIA Saria irabazi duen zerbait gomendatzea apustu erraza dela esango luke edozeinek, arrazoi osoz. Baina ni arrazoa kentzera etorri naiz beste bati, "bigarren zatiak inoiz ez dira onak izan" esan zuenari. Ulu Mediako lagunek ez dela hala erakutsi dute. Nazioartean asko mugitzen ari diren fikziozko podcasten eredua euskarara ekartzea baino gehiago, entzungailuetara kateatzen zaituen istorioa sortu dute, eta bigarren denboraldi honetan aurrekoaren langa gainditu dute, soinu kalitate berari eutsita, baina gidoia eta pertsonaiak koska bat gehiago garatuta.

🔗 Axier Lopez



## Urak aske

Bego Zubia

PIXEL / ELHUYAR, 2021 / 76 MIN.

Artikutzako Enobietako urtegiko bi milioi metro kubo ur husteko prozesua kontatzen du dokumental harrigarri honek. Horrela erabaki zuen Donostiako Udalak, erabaki ausarta oso, asko baitira halako neurri bat hartzeak dituen ondorioak, esaterako biodibertsitatean. Muturluze piriniarra deituriko ugaztun txiki berezi baten lorratzari jarraituz, urtegiek sortzen dituzten ingurumen problematikez ohartarazten du ikuslea filmak, eta horretarako aditu ugariren iritziak eta Europako beste adibide batzuk ere jasotzen ditu, Normandiako Vezins-eko presarena kasu.

🔗 Urko Apaolaza



Done Bikendi 2 - 48001 Bilbo  
Tel: 94 423 75 91  
e-mail: bulegoa@zenbatgara.eus

**Hamaika bide  
hamaika aukera**



[www.zenbatgara.eus](http://www.zenbatgara.eus)














## The Banshees of Inisherin

("Inisheringo arima herratuak")

Martin McDonagh

ERRESUMA BATUA, 2022 / 114 MIN.

1923an Irlanda mendebaldeko irla txiki batean kokatuta, laguntasun harreman bat da istorioaren muina: Pádraic eta Colm txikitako lagun minak dira, egun batetik bestera eta arrazoi jakinik gabe, Colmek bien arteko harremana mozten duen arte. Pádraicek ez du ulertzen zergatik eta harremana berreskuratzen saiatuko da, egoera muturrera eramanez. Argudio sinple honi tiraka eta irla bakarti bateko tristura nahastuta ironia eta umorearekin, espero ez ditugun gertakizun eta hausnarketetara garamatza film honek.

🔗 Eneritz Arzallus



## In my skin

("Nire larruan")

Lucy Forbes

ERRESUMA BATUA, 2021 / 10 ATAL

Bethan gezurretan ari da. Etengabe ari da gezurretan. Inguruan dituen guztiei esaten die gezurra: lagunei, irakasleei, ikaskideei, gustatzen zaion neskari. Baita bere buruari ere. Gainerakoei begira, bere bizitza zoragarria da. Ama maitekorra eta bizimodu berezia duela uste dute lagunak. Baina errealitatea oso bestelakoa da. Gezur horiek guztiak aita bortitz baten eta nahasmendu bipolarra duen ama baten errealitatea ezkutatzeko asmatzen ditu. Berak bakarrik eusten dio familia-bizitza atsekabegarri horri nerabezaro betean.

🔗 Maitane Gartzandia



## Selftape

Mireia eta Joana Vilapuig

FILMAX, 2023 / 6 ATAL

Mireia eta Joana Vilapuig ahizpa kataluniarrek ekoitzi dute *Selftape* telesaila, fikziotik kontatutako autobiografia. *Polseres vermelles* telesail entzutetsuko bi aurpegi ezagun dira, eta horrek emandako ospea, ospearen kudeaketa, presioa eta emakume gorputzaren sexualizazioa dute hizketagai, besteak beste. Zer gertatzen da nerabetan izar bilakatu eta dagoeneko ez denarekin? Osasuntsua da nerabe bat ospetsu eta erreferente bilakatzea? Eta orain, jendeak kalean errekonozitzen du? Baina dagoeneko aktore ez bada, eta taberna bateko barran egiten badu lan, porrot egin duela esango genuke?

🔗 Gorka Peñagarikano



Ez da jogurta. Goenaga da



[www.yogurgoenaga.com](http://www.yogurgoenaga.com)

📞 943 21 63 27

✉ [goenaga@yogurgoenaga.com](mailto:goenaga@yogurgoenaga.com) 📱 Whatsapp (+34) 671 10 11 80

Pokopandegi Baserria, Igara. 20018 Donostia.



## Anonyme Popular

Igor Elortza / Rafa Rueda

ZART KOLEKTIBOA, 2022

CDa oparitan jaso, aparailua isiotu, kozinatzeari ekin eta... “Ui, zer da hau!”. Ez zitzaidan sartu. Biharamunean ostera ere: eseri lasai, jarri ostera ere diskoa, eta bertso-jarriekin lagunduta entzun. “Dedio, ze ona!”. Igor Elortzaren astinduak eta hausnarketa zirikatzaileak barneratu –“aiba, hori nik bizi izan dut!”–, eta sasoi batean samur entzungo ez nuen –“doinu elektroniko horiek...”– Rafa Ruedaren musika fina barruraino eraman. Bi astera, Iruñeko Antzerki Eskolako zuzenekoak samur biderkatu zituen etxeko entzunaldi ederrak. Dena bideo irudi iradokitzailez jantzita. Zu, ni, gu... atzo eta gaur.

🔗 **Xabier Letona Biteri**



## Itsasoa da bide bakarra

Ines Osinaga

ELKAR, 2022

*Itsasoa da bide bakarra* lanaren egile eta ekoizleak dio hau ez dela disko bat, liburu bat dela, baina aldi berean ez dela liburu bat. Halaxe da, narrazio liburu bat irakurtzen ariko bagina bezala, hamasei kantetan istorioak entzuten eta oso erraz irudikatzen joango da entzulea. Ines Osinagak Joseba Sarrionaindiaren hitz jolasti bezain iradokitzaileetatik abiatuta ondu ditu kantuak, emakume kolaboratzaileekin aurkeztu dituenak. Musika industriaren ohikoak ez diren hiru minutu baino dezente luzeagoak dira piezak, baina inolaz ere astunak, belarrira eta batik bat barrura gustagarri egiten baitira. Habanako haize goxo eta gordina dakar diskoak, trikiti doinuetatik elektronikoetaraino bidaiatzeko. Folklorearen beste aurpegi bat.

🔗 **Leire Artola Arin**



## Bizi bagina bezala

Nihil

AUTOEKOIZTUA, 2022

Aitorren tronboiak eta Liaren saxoak garrantzia berezia hartzen dute Debagoienako talde gaztean. Lehen lan luzea dute honakoa. Pop doinu bereziek, funk ukituarekin, dantzan jartzen dituzte geldirik egon nahi ez duen gazteriarren gerriak. Bereziki ondo egiten du belarrira Sararen ahots goxoak, eta pianoa ere ongi ematen zaio; aldean, gainera, Beñatek eta Xabik gitarra eta baxua ondo jotzeaz gain, koroak egiten entzutea plazera da; Ahaztu baino lehen edo Bilatzen oreka abestiak, horren adibide.

🔗 **Gorka Peñagarikano**

**aek** Gurekin lan egin nahi duzu?

AEKn, irakasle lan-poltsa osatu nahi dugu, ikasturteko beharrei erantzuteko. Gurean lanean hasteko asmoa baduzu, jo ezazu orrialde honetara: <https://aek.eus/eu/lan-bila>

## IBILBIDEAK

# Sasien gainerik

Natur eta kultur ondare aberatsa dugu Euskal Herrian. Baita altxor horiek mehatxupearan dituzten dozenaka azpiegitura ere. Bost ibilbide ekarri ditugu orriotara, beste hainbat problematika mahai-gaineratzeko aitzakia polita direlakoan. Arabako mendietan hasi dugu txangoa, non makrozentral eoliko bat egin nahi duten. Oderitzen (Nafarroa), berriz, gasbide bat eraikitzeko egitasmoak aurrera jarraitzen du; baita Erdizen, ganaduarentzako

Baztango (Nafarroa) bazkalekurik onenean, magnesita meategia egiteko proiektuak ere. Eta Zumarragan (Gipuzkoa) plastikoa tratatzeko fabrika eraiki nahi du hango udalak. Bosgarren txangoa Zuberoan egingo dugu, Ozaze-Zühara aldean. Han ez dute azpiegitura handirik eraikiko, baina Ipar Euskal Herri osoa eraldatzen ari den fenomenoaren lekuko zuzena da: etxebizitzaren espekulazioak barnealdea ere kolpatu du.

 URKO APAOLAZA AVILA / JON TORNER ZABALA

# 1 Azazeta Haizea lagun Arabako mendietan



LEIOLA MENDI TALDEA

## URKO APAOLAZA AVILA

**A**rabako toki ezezagun bezain ederrean kokaturik, Azazeta errepideko bortu baten ize-na delako etorriko zaio askori burura, irratian neguan kateak behar direlako bakarrik entzuten dugun toki bakarti horietakoa. Baina Azazeta hori baino gehiago da. Arraia-Maeztuko udal-erri barruan dagoen herri txikitxoa, Arabako Mendien babesean gordetzen den bailara polita osatzen du, basoz eta zelaiez inguratua. Eta fokua zabalduz gero, Arabako Mendialdeko Kuadrillan sartzeko atea ere bada; albistegietatik kanpo geratu ohi den Euskal Herri horretara pasabidea.

Hain justu, albiste batek ekarri du hedabideen agendetara Azazeta. Aixeindarrek bultzatuta –Iberdrola multinazionalak eta Eusko Jaurlaritzak osaturiko sozietatea– makrozentral eoliko bat egin nahi baitute mendilerroan –herritik kilometro ingurura–, 200 metroko garaierako zortzi aero-

sorgailu erraldoirekin. Proiektuari ingurumen baimena emana dio jadanik Jaurlaritzak eta 2025ean jarri nahi dute martxan. Gainera, bada eoliko beste egitasmu bat ondoan, Laminoria-ko harrobiaren ingurumarian.

Azpiegitura horren kontra makina bat mobilizazio egin dituzte herritarrek eta talde ekologistek. Arabako Mendiak Askeren esanetan baso autoktonoen erreserba garrantzitsu bati eragingo dio proiektuak: “Iberdrolak Euskal Herriko birikez jabetu nahi du”, diote plataforma horretako kideek. Gainera, salatu dute haize-errota gehienak desagertzeko arriskuan dauden hegazti espezieen eremu kritikoan jarri nahi dituztela –miru gorria, arrano beltza, sai arrea eta ugatza kasu–, eta hegazti migratzaile askoren igarobide ere badela mendizerra.

Aerosorgailuak jarri nahi dituzten tokitik hegoaldera Izkiko Parke Naturala dago, Europako ameztirik handiena gordetzen duena –eta orni-

**NON**  
**Arraia-Maeztu (Araba)**

---

**NOLA IRITSI**  
Gasteizko Salburuatik abiatzen den A-132 errepideak zuzenean eramango zaitu Azazetako gaineraino. Lizarratik, N-132-A errepidea hartu eta Santakurutze Kanpezura igarota, Arraia-Maeztun bidegurutzea dago aukeran, Azazetara edo Iturrietara joateko.

---

**+ INFORMAZIOA**  
[www.arabakomendialdea.eus](http://www.arabakomendialdea.eus) webgunean, Arabako Mendialdeko Kuadrillako turismo atalean mapak, gidak eta informazio ugari aurkitu daiteke.

tologia-turismoa egiteko ideala, Eusko Jaurlaritzaren turismo webguneak dioskun bezala–. Kapilduiko meteorologia radarrak mugatzen du parke naturala. Radarra tokiz kenduko omen dute, aerosorgailuen besoen indarra haraino iritsiko den beldurrez...

Inguru horretaz guztiaz (oraindik) gozatu ahal izateko badaude hainbat aukera. Okinara joan gaitzke hango sima ikusgarrian espeleologia egitera, edo Vasco-Navarro trenbidearen bide berdean bizikletan ibil gaitzke. Guk Arabako Mendien oinezko ibilbide zirkularra aukeratu dugu, PR A-61 deiturikoa. 33 kilometro eta 1.275 metroko desnibelarekin, egun batean edo bitan egin daitekeena. Zortzi herri zeharkatzen ditu, Antoñanako kasko harresitu ederra barne, eta ibilbidean Santa Teodosia bezalako ermita erromaniko zoragarriak aurkituko ditugu. Hori guztia Izki eta Iturrietako natur guneen artean, eta haizea lagun. ●



## 2 Oderitz Aralarko lurpean ur natural egarriz

 URKO APAOLAZA AVILA

**A**ralarko goi mendietako paisaia zoragarrietan paseatzea maite dutenek –udaran larre eta neguan elur– edo mendizerrako basoak zaintzen dituzten abeltzain eta herritarrek, orban zarpail bat ikusiko diote hemendik ez gutxira, Nedgia Navarra SA enpresak gasbide bat eraikitzeko bere egitasmoarekin aurrera jarraitzen badu.

Arakilgo Etxeberrin dagoen distribuzio saretik Lekunberriko Albisualde poligonoraino joango litzateke gas naturala garraiatzeko hodia, lurpean, metro eta erdiko sakoneran. Ia hamabost kilometrotan, gutxienez zortzi metro zabaleko soilgunea sortuko luke, batez ere Etxeberritik Oderitzera inoko eremu aldapatsu eta basatian –trazaketaren erdian dago Oderitz, eta hortik aurrera Astitzen eta Allinen barneratuko litzateke–.

Arakilgo eta Larraungo udalak ez dauke gasa Lekunberriko poligonora eramatearen aurka. Baina Nedgia enpresak eta Nafarroako Gobernuak bultzatu duten aukera hori kaltegarriena dela irizten dute. Badago alternatiba bat, Plazaolako bide berdeak “humanizatutako” trazadura aprobetxatzea planteatzen duena, mendiari halako ebakidurarik ez egiteko. Foru administrazioko teknikari batek txostena egin zuen udalen enkarguz alternatiba horren inguruan: “Txosten serio bat da, ez gara ezer asmatzen ari”, azaldu zuten prentsaurrean.

Larraungo eta Arakilgo bailaretako herritarrak biltzen dituen Aralar Zaindu Dezagun plataformak salatu du 6.000 zuhaitz moztuko dituztela gasbidea egiteko; hodiak Etxeberritik Lekunberriarainoko ibilbidean Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremua zeharkatuko duela bost kilometrotan luzetan; eta Latasako akuiferoa bezalako ur errekaragarako guneei eragingo diela. Sustrai Erakuntzak azaldu duenez, obrak egiterakoan haitzulo eta osinak agertuko balira gasbidearen

proiektuak ez du inolako neurririk planteatzen, eta ez du “zonaldeko ondare geologiko garrantzitsua” aintzat hartzen.

Oderitz eta Astitz inguru karstikoa sima, haitzulo eta galeria ugari josita dago. Haietaz ezagutzeko, besteak beste, Mendukilo bisitatu daiteke –itxita dagoenez, erreserbatu egin behar da–, baina badira beste haitzulo ez hain ezagunak erraz iritsi eta libre ikusteko modukoak.

Adibidez, badago ibilbide zirkular bat Oderitz herrian hasi eta amaitzen dena, eta Egar izeneko bi haitzuloetaraino eramango gaituena, konplikaziorik gabeko sarbidearekin. Estalagmitak, estalaktitak, salak, zutabeak... beste Aralar bat aurkituko du bisitariak barrunbe horietan. Horrez gain, ibilbidean zehar Azolape, Pikabotz edo Pagamendi bezalako trikuharriak ere ikus daitezke. Hamaika kilometro inguru ditu, apenas 250 metroko desnibela, eta goiz batean egin daiteke. Parajeotan lurpean sartu eta azaltzen da jostari ura, Aralarren benetan naturala den baliabidea, gasa ez bezala. ●



 **NON**  
**Larraun (Nafarroa)**

---

 **NOLA IRITSI**  
A-15 autobidetik Lekunberriaraino iritsi eta Aralarko San Migel santutegira doan bidean Alli aldera jo, Oderitzera ailegatu harte. Irurtzundik N-7500 errepide bihurturik ere zuzenean iristea da Oderitzera.

---

 **INFORMAZIOA**  
Oderitzeko “trikuharrien ibilbidea” balizaturik dago eta Wikiloc atarian track ugari aurkitu daitezke.



AGUSTIN APAOLAZA



# 3 Erdiz Baztango bazkaleku onenean, magnesita gose

JON TORNER ZABALA

**E**rdiz edo Erdizaga. Bertara eramaten dute azienda abeltzainek, Baztango bazkaleku hoberenak baitira hango larreak. 476 hektareako bazkalekua. Erregerena mendigunearen baitan kokatua, Baztan eta Esteribar haranen mugan. Herri lurrak dira, baztandar guztiak erabiltzen ahal dituztenak. Larre berdeez gain, baina, badu bestelako bitxi preziaturik: Magna (Magnesitas Navarra) multinazionalak proiektua du abian, Erdizen egiteko magnesita ateratzeko meategia. Egitasmoa 2001ekoa da, baina hainbat gorabehera tarteko –besteak beste, proiektu hori bera Erdizetik oso gertu, Zilbetin, egiteko Espainiako Auzitegi Gorenak 2015ean ezarri zuen debekua–, 2023an gaude eta proiektuak hor dirau. Baztandarren %80 aurka dago, baina Nafarroako Gobernuak foru interesekotzat jo du.

Magna multinazionalaren harrobiak 100 hektareako hedadura izango luke, Aldude mendiko natur-gune betean, zeina Kontserbazio Bereziko Eremu izendatuta dagoen Europar Batasunak sustatutako Natura 2000 sarearen baitan. Ageriko balio ekologikoa ez ezik, eremuak ondare kultural aberatsa ere gordetzen du, hainbat mendetan abeltzaintzarako eremu gisa erabili izanaren ondorioz –80 familien abereak bazkatzen dira bertan–.

## ARTESIAGA - SAIOA

Xorroxin irratiko lagunengana jo dugu mendi-txangoa egiteko gomendio eske eta, pentsatzen genuen moduan, esan digute bide eder asko dagoela inguruan. Bi puskatan egin daitezkeen ibilbidea gomendatu digute: Iruritik abiatuta Artesiaga mendateraino (987 m) bizikletaz, eta handik oinez

Saioara (1.418 m), Baztango tontorrik altuenera.

Lehenbiziko parteak ditu 15,2 kilometro luze. Nahiz eta lehenbiziko erdian ere baduen malda gogorrik, Meakako muinotik (7 km) aurrerakoa da pikoena. Saioako itzuliak, bestalde, zazpi kilometro ditu, eta tartean behin paisaiatz gozatzeko geldialdiak eginez ere hiru bat ordutan egin daiteke. Teknikoki, gainera, ez du zailtasunik. Behin tontorrean, laino gehitxorik ez badago, ikusiko ditugu itsasoa eta hondartzak, Larrun, Higa, Itzaga, Moncayo, Auñamendi, Hiru Erregeen Mahaia, Anboto... Eta, magalean, ardi, behor eta behiak bazkan. Haientzat ez dago parajeotan gauza preziatuagorik eurak babesteko zein elikatzekeko landatutako gorosti zahar, mota desberdinetako zuhaitz lepatu, ira-leku, belai eta otadiak baino. Egunean zehar modu estentsiboan bazkatzeko saroi ederra. ●



**NON**  
**Baztan (Nafarroa)**

---

**NOLA IRITSI**  
Ibilbidea hasiko dugu Iruritan, Eugiranzko errepidea hartzeko.

---


**INFORMAZIOA**  
Irurita-Artesiaga ibilbidearen gainekoak ezagutzeko, onena da Interneten topa daitezkeen altimetriak begiratzea. Eta gauza bera mendi-txangoen kasuan: [baztanturismo.eus](http://baztanturismo.eus), [baztan-bidasoa.com...](http://baztan-bidasoa.com...)



## 4 Beloki Han goitik hautsa ikusten da



JON TORNER

 JON TORNER ZABALA

Zumarragan badugu eraikin-multzoz bat herriguneak besteko zabalera duena ia, Arcelor Mittalen fabrika zaharra, industriak gurean izan duen garrantzia geroz eta urriagoaren erakusgarri. Hura itxi eta gutxira, 2021eko urrian, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantxa Tapiak adierazi zuen lursail horretan –Sprilur sozietateak erosia hamabost enpresa eraikitzeko aukera egon zitekeela. Pasa dira bi urte, eta mahai-gainean den proiektu bakarra “plastikoaren ekonomia zirkularraren berrikuntza poloa” da, Udalean nagusi den PSE-EEren hitzetan. Alegia, plastikoa birziklitzeko fabrika bat jarri nahi duela herriaren erdian Plastic Energy enpresak, nahiz eta, Tapiak azaldu duenez, ez dagoen inolako akordiorik sinatuta Gipuzkoako Diputazioarekin eta Zumarragako Udalarekin, garbiketa

ederra behar duten lur horiek lagatzeko. Esaten ari zaizkigun moduan “ez da erraustegia”, argi gera dadila. Hortaz, norbaitek “Erraustegirik ez” dioten pankartak jarri eta ordu gutxiren buruan beste norbaitek kentzea zentzuzkoa dela guztiek ulertuko duzue.

“Ez da oso herri polita zuena”. Zenbatetan entzungo genuen gauza bera, eta hein batean sinetsi ere egin dugu itsusia dela, edo ez behintzat hurbilean dauzkagun Goierri, Urola edo Debagoienako udalerrri batzuk bezain postalgarriak. Ez, guk ez dugu “Suitza txikia” goitizena merezi. Inguruan bada, ordea, merezi duen parajerik. Antioko ermitatik abiatuta adibidez zailtasun diferenteko ibilbide zirkular politak egin daitezke Izazpi (973 m), Samiño (933 m) eta Beloki (659 m) magal-tontorretan barna; edota Oletaraino, inguruko mendizaleen artean aski preziatua den “kresterio”



 **NON**  
**Zumarraga (Gipuzkoa)**

---

 **NOLA IRITSI**  
Antiora heltzeko, Zumarragako herrigunetik gora doan errepidea hartu behar da (2,5 km inguruko igoera).

---

 **INFORMAZIOA**  
Zumarraga.eus webgunean hainbat mendi-ibilbideren gaineko datuak topatuko dituzue. Tartean dira Belokiko ibilbide paisajistikoa, Oletako monumentu megalitikoak eta Hiru Tenpluen Ibilbidea.

edo “kordaletik”, zeina –hara, sorpresa!– parke eoliko baten egitasmoak mehatxatzen duen. Azken hori ibilbide erraz baina luzetxoaz denez, zerbait arinagoa proposatuko dizuegu, umeekin egiteko egokia: Antioko interpretazio zentroa eta taberna-jatetxea biltzen dituen eraikinetik Belokiko gurutzera, eta buelta atzera.

Bi ordutan aise egin daitekeen txangoan zehar, ezker-eskuin begirata ikusiko ditugu Txindoki, Aratz, Aizkorri, Irimo, Izazpi... Eta beheraxeago... ez, hor ez, horiek –sorpresa berriz ere!– Antzuola-Ezkio zatiko AHTren obrak dira; eta horiek Itsaso-Gueñes tentsio handiko linea berriaren dorreak; apur bat honantzago... bai, hura da Arcelor Mittalen fabrika. UZ Bizi! plataformak dioten gisan, “aire garbia” arnastu nahi dute bizi-lagunek, inguruko mendietan bezala herri erdian ere bai. ●

## 5 Ozaze Bide huts, etxe huts



GOOGLE MAPS

📍 **NON**  
**Ozaze-Zühara (Zuberoa)**

---

🕒 **NOLA IRITSI**  
Ozaze eta Zühara herriguneek osatua da udalerria. Mauletik hamar minutura dago autoan (D918 errepidea)

---

+ **INFORMAZIOA**  
Hauskoa eta Behorlegi edo Behorlegittuturru mendien bueltako ibilbideak *Wikiloc* moduko webguneetan kontsulta daitezke.

👤 **JON TORNER ZABALA**

**E**kainaren 3an Euskal Liburu eta Disko Azoka egin zen Ziburun. 2020ko hauteskundeetan aldaketa handia izan zen Lapurdiko kostaldeko herrian: abertzaleak nagusi dituen Ziburu Bizi zerrenda irekiak hogeitau urteetako gehiengo irauli zuen. “Erakutsi behar dugu gai garelako herriko etxe bat kudeatzeko, ideiak baditugula eta egingarriak direla”, zioen Leire Larrasa hautetsiak Ipar Euskal Herriko Hitzak egindako elkarrizketan: “Batez ere, hirigintza mailan arazo handi bat baita gure herrian, etxeen %42 bigarren etxebizitzak baitira. Erakutsi nahi dugu nahikeria hor bada gauzak egiten ahal direla”.

Ez da soilik Zibururi dagokion afera, molde batean ala bestean Ipar Euskal Herri osora zabaltzen den problematika baten adibide bat baizik. Bai, kostaldeko herriek dute bigarren etxebizitza tasarik altuena (Hendaia %35, Doni-

bane Lohitzunek %43, Getariak %44, Bidartek %47), baina horrek ekarri duenez prezioen garestitzea, barnealdera “migrazio inmobiliario bat” sortu da urteotan, zeinak eragin duen “laborantza lurren gaineko espekulazioa, eraikuntza berrien mehatxupearan”, hainbat eragilek salatu duenez.

Hain justu, espekulazioa salatzen ekainaren 27an okupazioa abiatu zuten Senperen, 1.300.000 eurotan salgai den etxaldean; eta lehenago, ekainaren 3an, Ozazeko plazan bildu zen hainbat herritar, Xiberoako espekulazioaren kontrako kolektiboak (XEKK) deituta, jai-giroan egiteko herriko etxe hutsen itzulua.

Handik abiatuko dugu orriotan jaso dugun 5. ibilbidea: Ozaze, Beterbidea eta Zühara herrigunea lotuko dituen zortzi kilometroko txango erraza, bi ordu eta erdian egin daitekeena, eta larre, soro, alor eta oihantxoetan barna, Arbaila mendialdearen altzoetara era-

mango gaituena. Zuberoa eta Nafarroa Behereko mendiguneak tontor politak ditu, Hauskoa (1.268 m.) eta Behorlegi (1.265) esaterako. Ipar Euskal Herriko mendi estimatuenetako bat da bigarren hori, bere itxura piramidala dela-eta hegoaldeko mendizaleek “Iparraldeko Txindoki” ezizenez ere deitu ohi dutena.

Iparraldeko “lasaitasun idilikoa” gure egiten dugun bitartean, espekulazioaren hatsa ere sentituko dugu aurrerantzean kokotean. Alda kolektiboko kideek etxebizitza hutsen gainean dioten bezala, frantses estatuak fiskalitatea aldatu beharko luke, “alokatzea huts mantentzea baino interesgarriagoa izan dadin jabearentzat”. Nolanahi ere, etxebizitza duin bat eskuratzea Iparraldean “merkatu pribatuan ia ezinezkoa” den honetan, egoera iraultzeko erantzun integrala eta alternatiboa beharrezkoa dela nabarmentzen du Aldak. ●

## IPUINA

---

# PEDRO RUIZ DE EGINO HIL DA -*Nerium Oleander*-



CIRA CRESPO



SHU OTERO

### I

Hala Pedro Ruiz de Eginoren hilketa nola hemen agertzen diren beste leku-kotza batzuk dokumentuetan jasotako gertaera historikoak dira. Izen bat bera ere ez da asmatua.

#### Hitzaurrea

Herri txiki bat abutzuko eguzkitan. Eguerdia da. Kanean sugandilak eta zenbait ume baino ez. Taldetxo bat errekarra doa, alai. Bitartean txepetxa, jo ta su, kantuan. Atari barru batean, itzaletan, bi emakume egurrezko aulki txiki banatan eserita, egun pasa. Bata pipa erretzen ari da. Besteak ezker eskuari begiratu dio, lehenengo esku gainari, gero, eskubarruari, eta hizketan hasi:

- Pedro Ruiz de Egin hil dala.
- Gure etsai zaharra.
- Hil egin dute, antza.
- Ondo merezita.

Ba omen zen behin Pedro Ruiz de Egin, gizon aberatsa oso, eta gaiztoa; bere kabutarako hitz egitea gustatzen zitzaiona. Lur sailak eta harrizko etxeak zituen. Eta hizkuntza hori ere bai, jakina, erdara ederra. Arabarra zen, baina Logroñora joaten zen, maiz; izan ere, jaioterriko lurretan Inkisizioaren komisario lana betetzeko kargua zuen.

Logroñon zela, Zugarramurdiko sorginen sektako hainbat sorgin erre zituzten. Han zen Pedro ikusle, lehen lerroan. Ondo gogoan zuen zer nolako erre usaina zabaldu zen Logroño kaleetan. Ez zen guztiz usain txarra. "Usain pizgarria!", pentsatu zuen Pedrok, Zugarramurdiko sorginak erre zituztenean. Guztia ikusi zuen. Ikuskizun izugarria izan zen. Barru-barruraino sartu eta bertan gelditu zitzaion haragi erre usain hura, antza.

### II

Zugarramudiko sektako emakumeak erre ondoren, bere jaioterri txiki eta txirora bueltatu zen, egun batzuetarako, gogoan ideia batzuk zerabiltzala; ez ideia onak. Eguerdia zen, eta neska-meak egurrezko mahai sendoan jarri zion plater txolkona. Pedro bere burua-rekin ari zen:

*Gure amak beti zioetan: "Gauza handiren bat egin behar duzu, Pedro. Hau da gure leinukoena patua. Egin zerbait". Gaixoa, ama... "ez jende zikin hauek guztiak bezala", zioetan. "Pentsatu, zu oso pentsalari ona zara eta". Pentsatuko dut, ama. Horretan nabil.*

Zopa beroegi zegoen. Harrika bota zuen koilara, maldizioka. Jasoko zuen neskameak. Buelta bat ematera atera zen.

*"Leku guztietan daude sorginak. Hemen ere izango dira, zergatik ez. Usain ona daukat nik jende gaiztoari antzema-*

teko. Ona, dudarik gabe. Jende bekaiztia dago hemen. Ez Zugarramurdikoak baino hobek. Basatiak. Bekaiztiak. Gaiztoak. Txiroak. Zikinak. Sorginak"

### III

Eta, hain zuzen, pasiera hartan zebilela aurkitu zuen Pedrok bere lehenengo biktima. Horrela gertatu zen: herrian buelta bat ematen ari zela, Eliza parean Ziordiako apaiz Diego Basurto-ekin egin zuen topo. Maiz izaten zen herrian, bertan ere meza ematen zuelako, eta elkarren ezagun ziren. Apaiz zaharra, gizon baldar eta nekatua zen. Petrilean eseri eta hizketan hasi ziren:

- Arratsalde on, on Pedro.
- Arratsalde on, on Diego.
- Zer moduz?
- Ondo. Logroñotik etorri berri naiz.
- Logroñotik?
- Bai. Jakinaren gainean izango zara nola erre zituzten Zugarramurdiko sorginak.
- Bai. Eskerrak. Beldurgarria da sorginen kontu hori.
- Orain Inkisizioaren komisario izan datu naute ni.
- Eta zer da hori?
- Hori zer den? Orain nik daukat hemengo sorginak aurkitzeko ardura.
- Ondo da.
- Lan zaila nirea.
- Seguru nago.
- Baina oso ona herriarentzat, Diego.
- Jakina.
- Zu ere herriaren zerbitzaile ona zara, Diego. Ondo dakigu guztiok hemen.
- Eskerrik asko.
- Ezaguna da nola laguntzen duzun jendea, ez bakarrik espiritualki, noski. Asko dakizu erremedioei buruz.
- Asko ez.
- Nolakoa zen eman zenidan ukendu hori, adibidez? Larruazala gorritzen zenerako hura? Zein belarrekin zegoen eginda?
- Ez dakit. Ez bainuen nik egin. Ageda Lezkanok egin zuen, aspaldiko kon-tua da. Etxean daukat oraindik.
- Ondo da jakitea.
- Ageda hilda dago.
- Ondo dakit hori ere. Sorgina zela esaten zutela ere badakit. Hori ere goratzen dut.
- Jendeak arinegi hitz egiten du, bazu-etan.
- Baina zuk Ageda ondo ezagutzen zenuen.

- Bai, herritarra nuen.

- Eta, aditu, Diego, zu ere ez zara, ba, aztia izango, Diego? –erdi txantxetan esan zuen Pedrok.

- Ni, aztia? Ez San Pedro baino gehiago.
- Sotanadun aztia. Badaude hala-koak ere.
- Horixe –Diegok, txantxari eutsiz bezala, baina apur bat serioago.
- Zuk bezala, ezkerreko lokian orba-na izatea sorginen seinale tipikoa da-eta. Logroñoan asko ikasi dut horretaz guztiaz, Diego.
- Ez nahastu ni, Pedro.

Elkarrizketa Diego apaizak nahi baino gehiago ari zen luzatzen; gehiegi, zeren eta elkarrizketak gehiegi luzatzen direnean gustatzen ez zaizkizun gauzak esaten hasten baitzara:

- Jesus, Diego, ez, ez. Nik zu nahastu...ez, ez... Baina sorginak aurkitu behar ditut. Laguntza eskertuko nuke, Diego.
- Ez dakit, Pedro. Ez dakit zer esan. Agedak belarrak ezagutzen zituen... Baina besterik ez. Belarrei buruz guztiok dakigu zerbait; ezkaia ona dela janariari usaina emateko, umeei ez zaiela heriotzorrik ukitzen utzi behar... hori ondo dakigu guztiok... Eta ez daukagu zer ikusirik deabruarekin, ez sorginkeriarekin, Pedro...
- Noski, Diego. Zaude lasai, gizona. Argituko dugu dena. Dena. Ez urduritu... Hemen denok ezagutzen dugu-eta elkar. Begira, berriro adiskide gaitzen, patxadaz hitz egingo dugu horri guztiari buruz... Zergatik ez zara Logroño-n nire etxera etortzen? Etorri nirekin.
- Ez dizut ulertzen. Zurekin Logroño-ra, zergatik?
- Etor zaitetz. Ondo egongo gara. Ezin duzu ezetz esan.

Zer ari zen gertatzen, baina? Nola bukatu zen baina, elkarrizketa hura horrela? Ibaiaren urak hostoa nola, halaxe eraman zuen hizpideak Diego egoera arraro hartara. Zaila da ulertzen, baina badakigu, hori bai, arratsalde hartan Diego Basurtok, Ziordiako apaizak, ezin izan ziola Pedrori ezetz esan:

- Ondo da. Joango naiz zurekin.

Eta Logroño-n etxean aberats jendearen janaria aurkitu zuen: ehizakia,

arrainak eta arrautzak. Ardo goxoa. Ohe on bat. Balkoietan azaleak eta jazminak. Eta beldur handiak. Urak bere bidean jarraitu zuen, indarrez; eta Diego Basurto, ito beharrean.


Etxe handi hartan jaiki zenean, goiz argitsua zen. Ohe gainean eta lehio aurrean eseri zen. Aurrean, jauregi antzeko etxe bat ikusten zen, eta usoak barandan, eta kalean jendea. Leihoaren ondoko horman bost liburu zeuzkan apal bat zegoen. Altxatu zen eta liburuxka bat hartu zuen. Diego Basurtok gaztelaniaz pixka bat bazekien, eta irakurtzen ere zerbait. Liburuak izenburu oso luzea zuen, eta nekez ulertu zuen ezer. (*Relación de las personas que salieron al Auto de la Fee*, eta abar, eta abar...). Barruan hizki gehiegi eta zerrrenda batzuk; zerrrendetan, izenak: *Miguel de Goyburu. Graciana de Barrenechea. Estefania de Yriarte. Maria de Yriarte. Ioanees Goyburu*. Hotzikara eman zion, zergatia oso ondo ulertu gabe. Eta gero, hurrengo: "*Todos ellos eran también del dicho lugar de Zugarramurdi, madres y hijas, y muy emparentados unos con otros...*". Ozenki eta geldoki ari zen irakurtzen Pedrok atea ireki zuenean.

- Utzi liburu hori.
- Zer da?
- Zugarramurdiko auziari buruz hitz egiten du. Oso interesgarria. Baina ez daukagu denborarik.
- Zer gertatzen da?
- Tribunalera etorri beharko zara, Diego.
- Zertara?
- Dakizuna kontatzera, Diego.
- Zer dakit nik?
- Izen asko.
- Baina nik ez ditut sorginak ezagutzen.
- Etorri beharrean zara. Bestela zu egongo zara susmopean, badakizu? Gauza batzuk esan dizkidazu, honezkerro. Eta aurpegian daukazun orba zera da, Diego? Baduzu erantzunik?

Liburua bere lekuan utzi zuen. Berriro ohe gainean eseri eta negarrez hasi zen. Ume txiki bat bezala hasi zen negarrez.

Pedrok Diego Basurto Ziordiako apaiza Logroño-n Inkisidorearen aurrera eraman zuen. Han ikusi zituen zeldak. Nahikoa izan zuen. Hil egiten zen jendea, hezetasun zikin hartan etsita. Ez ziren, berez, giza jendearen-





tzako lekuak. Logroñoeko zeldak txerrikortak ziren.

Inkisidore Nagusiaren aurrean jarri ziren biak. Eta Pedrok iradokitzen zuen guztia onartu egiten zuen Diegok. Behar zuen guztia zeukan Pedrok ehi-zaldi handi bat abiarazteko. Hura zirra-ra. Dena abiarazteko behar zituen izen guztiak:

*Basatiak. Bekaiztiak. Gaiztoak. Txir-roak. Zikinak. Sorginak*

## IV

Ehun pertsona baino gehiago izan ziren salatuak. Izen-abizena zeukaten guztiek. Eta bizitza bat. Ana Saenz, adibidez. 70 urteko emakume zaharra. Ilarduiakoa. Mehatxu egin zion Pedro Ruiz de Eginok:

*Esan zidan Logroñora bidaliko nintzela sorgina nintzela aitortzen ez bannen. Baina ni ez naiz sorgina.*

Eta gero bi neskato haiek. Izenik ez dakigu, baina bazuten izena, noski. 13 urtekoak. Larreakoak biak.

*Bere etxera joanarazi zigun. Torturatu egin gintuen. Eskuak eta hankak sokaz*

*lotu zizkigun. Mehatxu egin zigun sorgin ginela aitortu ezean Logroñora eramango gintuela. Gezurrezko aitortpena izan zen. Ez gara sorginak.*

Maeztun Korres ahizpak ere atxiki zituen. Logroñora eramane zituen, Tribunalaren aurrera.

*Egia ez zena aitortzea erabaki genuen eta rekontziliatu egin gintuzten eta etxera itzuli ginen. Baina Ines ez zen bere onera etorri. Eta gaixotu egin zen. Eta gutxira hil. Guk aitorturiko ezer ez da egia. Ni ez naiz sorgina. Baina nire ahizpa ez zela sorgina eskriba dezazuen ere nahi dut. Berak ez zuela egia zenik ezer esan Logroñon.*

## V

Horrela jarraitu zuen hurrengo hila-beteetan ere. Ehizan. Eta inkisidoreak pozik. Lan ona ari zen egiten-eta, Pedro. Interprete lanaren ardura ere bere gain hartzen zuen, gainera, salaturiko gehienek ez baitzekiten erdaraz.

*Interprete-lana giltzarri da. Baina ulertu behar duzue ezin dela dena hitzez hitz itzuli...interpretatu egin behar dira hitzak...interpretatu! Ulertzen duzue?*

*Nik ondo egiten dut, pentsalari ona eta buruargia naizelako; hala esaten zidan beti amak. Eta, gainera, badira oso argi entenditzen ez ditudan hitz batzuk ere... eta interpretatu egin behar izaten ditut. Sinonimoak bilatu. Agian ez dakizue sinonimo hitzak zer esan nahi duen. Nik bai. Eta, kontuz gero niri gezurretan ari naizela esatearekin. Ondotxo dakit nik zer ari naizen interpretatzen. Gezurrak ez, jakina, baina ulertu behar duzue... garrantzitsu garrantzitsuena sorgin zikin hauek guztiak ehizatzea dela. Ulertzen duzue, ezta?*

## VI

Arazo erantsia zen, Pedro Ruiz de Eginok, herriaren etsai horrek, aitormena eskatzeaz gain, izenak ere behar zituela. Izenik izen, beldurra zabaldu zen. Eta haserreak. Eta nazka. Eta nekea. Eta, Aaturiko Marikitarena gertatu zenean, gorroto bizia.

*Aaturiko Marikita zen nire ama. Bere baserria Korresetik gertu dago. Ni Logroñon giltzaperatua egon nintzen, denbora gutxi. Han gezurrak esanarazi*





zizkiguten. Eta horregatik itzuli zen goibel nire ama, goibel eta erru sentimendu handiarekin. Esan nion joan zedila Ofizio Sainduko norbaitekin hitz egitera. Maeztura joan zen, komisarioarengana. Eta hark gaizki hartu zuen. Esan zion "txerria eta zatarra". Esan zion berak egindako aitorpena gezurra zela esanez gero, orduan ziur bidaliko zutela sutara.

Hurrengo ostiralean, eguzkia irtetzeko zela, artzaina etxera joan zen abereen bila eta amak esan zion utz zezala atea irekita. Goiz hartan uharkaren ondoan itota aurkitu genuen. Burua agerian. Ortzera begira. Ur gainean.

*Eta bera ere ez zen sorgina. Ni ere ez naiz sorgina. Baina eginda dago kaltea. Orain mina nire bizitzaz jabetu da. Mina eta gorrotoa.*

## VII

*Ez direla sorginak, ez direla sorginak. Horrela hasten dira beti. Azkenean, baietz. Beti izaten dira sorginak. Gaur*

*aditu dut taldetxo hori... Hiltzaile esaten didate! Nik neuk entzun dut. Ni hiltzaile? Euli bat hil ez dut nik eta, hiltzaile?... Lotsagabe horiek. Atzo herriko etxeko leihoaren kristalak apurtuta agertu ziren. Jende gaiztoa. Gorrotatzaile profesionalak! Ez dira konturatzen, ergelak direlako, ni herriaren alde nagoela. Ez dute ulertzen. Nik beldurrarekin bukatu nahi dut, besterik ez! Sorginak gaiztoak dira! Mina egiten dute! Ez al dute ulertzen babo horiek?*

## VIII

Arratsaldea zen, Logroñon. Eguzkia sartzen ari zen. Pedro Ruiz de Eginok Inkisizioaren Tribunaletik bueltan zetorren, egunero egiten zuen etxerako bidetik. Kaleak jendez beteta zeuden, alai; erosketak egiten ari zen jendea, edo tabernetan zerbait hartzen. Beleen haserreak ere entzuten ziren, teilatu artean. Orduan, Pedro San Frantzisko plaza ondotik pasatzen ari zela, aurpegi

ezagun hori ikusi zuen, berari begira, irribarre egiten ziola. Pedrok etxerako pausoa arindu zuen. Eta etxera iristean, aulki batean eseri zen. Ez zitzaizkion pentsamenduak argitasunez ateratzen. Lastima. Beldurra bakarrik zeukan go-goan.

Eta gero, beste gertaera hura, noski; goizean, eguzkia atera berri. Neskamea, gosaltzeko zopa batzuk prestatzen ari zela, zarata bat entzun zuen atarian. Atera zen, eta inor ez, baina bai ohartxo bat, tolestuta.

Pedro esnatu zenerako, neskameak plater txolkona eta ohartxo utzi zituen mahai sendo baten gainean. Eseri zen Pedro jauna. Hartu zuen zopa. Hartu zuen oharra, eta ireki eta irakurri egin zuen:

*"Ene neskatxo, ez esan gezurrik. Non egon zinen atzo gauean? Pinu artean, pinu artean, eguzkiak inoiz jotzen ez duen lekuan, haize hotzak dardarazi ninduen"*<sup>1</sup>.

1. In the pines folk abesti amerikarraren zati baten itzulpen librea.



Ez zuen ulertu. Ez zuen ezertxo ere ulertu. Neskameari hitz horiek ezagutzen al zituen galdetu zion:

- *Herriko abesti polit bat da.*

Ez zen egun osoan etxetik atera. Eta hurrengo egunean, goizean, berriro mahai gainean, zopa beroa eta ohar bat:

*"Eta ez da inor errekan,  
eta zuk badakizu  
aski dela orain  
atzoko  
balentria eguzkitsuekin"*<sup>2</sup>.

Eta berriro neskameak: "*Herriko abesti polit bat da*".

Egun hartan etxetik atera zenean,

izkinetara begiratu ibili zen, aurpegi guztiak arakatu. Leku guztietan begirada ezagunak ikusten ari zela iruditzen zitzaion eta, etsita, burua galtzen ari zela pentsatu zuen. Inkisidoreen aurrera joan zen, beldurra zuela esateko. Bere herriko sorginak, arabarrak, Logroñon zebiltzan susmoa zeukala.

"Hori lan ona egiten ari zarelako da. Jainkoa zure alde dago"

*Hura izan zen itzulerako bidea hartu zuen azken eguna.*

## IX

Goiza zen txantxangorria kantuka hasi zenean eta Pedro Ruiz de Eginoren gorpua aurkitu zutenean, bere Logroño

etxean. Ordenaren aldeko indarrak etorri ziren. Begi bizigabeak aztertu zizkion eta, gero, goikoei hilketaren berri eman zieten, gutun baten bidez.

Hara hor gutunaren zati bat:

*"(Pedro Ruiz de Egin) Apareció una mañana con un pegote en una pierna que con mucha dificultad quitó de ella. Y luego sospechó que los brujos que le tenían amenazado se la habían puesto. Y le dio una calentura y al segundo día por la mañana halló en la boca y sintió en la garganta unos polvos como de ladrillo molido que decía que sabían a queso. Y entonces se dio por rendido y dijo a los médicos lo que pasaba y pidió que luego se le administrasen los sacramentos. Y con unas cámaras y vómitos que son los efectos de aquellas pozoñas murió al cuarto día. Y los médicos conocieron que su enfermedad procedía de los venenos".*

*(Orain, Pedro gure artean ez degoenez, guk geuk ere interpretatu beharko dugu gutuntxoak: Antza, gure Pedro maitea goiz batean jaiki eta zer, eta sorgin gaiztook jarritako txaplata susmagarri bat ikusi hankan. Eta gero, sukarrak jota geratu omen zen. Eta hurrengo egunean, xeheturiko adreilu baten gazta zaporeko hautsez bete omen zitzaion ahoa. Hau txarra. Eta orduan ezin izan omen zuen gehiago, eta azken sakramentuak emateko eskatu. Sorgin gaiztook irabazle: lau egunen buruan hil zen gure Peru. Medikuek goixotasuna pozoin baten errua zela erabaki omen zuten).*

Ikerketa bat abiatu behar zatekeen. Baina, orduan, ez dakigu zergatik, korronteak ibilbide aldaketa izan zuen. Sorginak eta egindako minak ahaztu eta Espainiako Inkisizioaren tribunalen ahalegin guztia herejeak ehizatzerara bideratu zen, asko omen zeuden eta. Eta, harrezkero, Espainiako Inkisizioaren lurretan sorginik gehiago ez zen izan.

Eta zorigaiztoko Pedro Ruiz de Eginoren hilketa ikertu gabe gelditu zen.

## Epilogo

Itzala nagusitu da Arabako herri txiki hartan. Umeak etxera itzultzeko bidea hartu dute, arin eta pozik. Igela, ilunabarrero bezala, korrokan dabil. Hontzak esnatzen ari dira. Emakumeek ez dute apartekorik egin egun osoan, eta oraindik egurrezko aulki txiki haietan eserita jarraitzen dute, bake-bakean. Pipa erre-tzaileak jakin nahi luke:

- *Nerium Oleander*-a jarri zaio?
- Heriotzorria, bai... ●



Hauek dira Gipuzkoarako eraikitzen ari garen etorkizunerako oinarriak. Gure ekonomia indartzeko, pertsonak babesteko eta gure ingurumena zaintzeko lanean ari gara. Gure etorkizuna orain hasten delako.

Etorkizuna Orain.

[etorkizunaeraikiz.eus](http://etorkizunaeraikiz.eus)

Gipuzkoako  
Foru Aldundia



ETORKIZUNA  
ORAIN

LABORAL KUTXA GAZTE-TXARTELA

# Ibili munduan 0 komisio ordainduta\*.



**EZ du komisiorik** Estatu osoko  
10.000tik gora kutxazainetan\*.

**EZ du komisiorik** LABORAL Kutxaren  
aldetik atzerriko kutxazainetan\*\*.

**EZ du komisiorik**  
dibisa aldatzeagatik.

\*Zure probintzian dirua ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintziazik kanpo, berriz, entitate hauekako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide. \*\*LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 18 eta 29 urte bitartekoa (biak barne), eta Bizum aktibatuta eduki behar duzu entitatearekin.



**LABORAL**  
kutxa

Bada beste modu bat